

SENEZ

1996

ITZULPEN ALDIZKARIA

18 ZBK



SENEZ

ITZULPEN ALDIZKARIA

18 zbk.

1996

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, nahitaez, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin.

EIZIE



Azala eta marrazkiak: Juan Azpeitia, "ETNO-GRAFIKÆ" 1996
Maketazioa: Arantzazu Royo
Zuzenketak: Lurdes Auzmendi

© EIZIE

© Artikulugileek, testuena.

© Juan Azpeitia, marrazkiarena.

ISBN: 84-7086-287-1

Legezko gordailua: SS 1.289

Inprimaketa: Itxaropena, S.A. - Araba kalea - Zarautz


SENEZ

ITZULPEN ALDIZKARIA

Zuzendaria:
Koldo Biguri

Helbidea:
Zurriola hiribidea, 14
20002 DONOSTIA
Tel.: (943) 27 71 11
Fax: (943) 27 72 88

EIZIE



Samaniegoren lau alegia	
Itzulpena: KOLDO BIGURI	9
Euskal testu zaharrak eta itzulpengintza	
JOSE M. SATRUSTEGI	13
Kultur hitzen itzulpena literatura testuetan	
JAVI CILLERO	25
Hitz ezetik mihia zaurtzen ez dik	
KARLOS DEL OLMO	55
<i>Hura, bera</i> eta abarren adar gehiago	
JUAN GARZIA GARMENDIA	81
Literaltasunaren arazoa Brohumil Hrabal idazle txekiarrarengan	
KARLOS CID ABASOLO	113
Liburuak	
XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU	135

Zenbaki honetan, aurreko urteetan EIZIEk literatur itzulpena aztertzeke asmoz antolatutako mintegi eta ikastaroetan landu ziren gaietako batzuk eskaintzen ditugu, gure bazkide eta harpidedunentzat eta, oro har, euskara lantzen dihardutenentzat ere interesgarriak izan daitezkeelakoan. Artikulu mamitsuak dira, hausnarketa terorikoarekin batera alderdi praktikoa ere ukitzen dutenak adibide ugariarekin.

Honela, gaur egungo euskarazko itzulpengintzak derrigorrezko duen teorizazio lanerako tresna izateko helburuari eusten dio gure aldizkariak; helburu horixe zeukatzen EIZIEk martxan jarritako mintegi-ikastaroek, eta egokia iruditu zaigu haien ondorio eta emaitzak gure irakurleekin partekatzea.

Zenbaki honetan, beraz, gaur egungo euskarak kultur hitzen itzulpenarekin, kalifikazioarekin eta izenordeekin dauzkan arazo batzuk jorratzen dira, eta Karlos Cidek txekieratik egindako itzulpen bati buruzko gogoeta egiten du; baina badago mintegietan aztertutakoa ez den beste artikulu bat, Jose M. Satrustegirena, euskal itzulpengintzaren historiarako ekarpena egiten duena.


Guztiaren osagarri moduan, ohiko liburu-erreseinekin batera, Samaniegoren lau alegia erantsi ditugu, jatorrizko testuaz eta itzulpen proposamen batez, aldizkariari atari jostaria eman nahirik. Honen ildotik, gogorarazi nahi dugu, bukatu baino lehen, gure aldizkaria zabalik dagoela era honetako edo bestelako literatur testu itzuliak argitaratuta ikusi nahi lituzkeen guztientzat.

Samaniegoren lau alegia

Itzulpena: KOLDO BIGURI

El león vencido por el hombre

*Cierto artífice pintó
una lucha en que valiente
un hombre tan solamente
a un horrible león venció.
Otro león, que el cuadro vio,
sin preguntar por su autor,
en tono despreciador
dijo: Bien se deja ver
que es pintar como querer
y no fue león el pintor.*



Gizonak menderatu zuen lehoia


Artista baten koadroan
gizon bat ageri zen
inoren laguntza gabe
lehoia menderatzen.
Lan hura ikusi zuen
lehoi batek ondoren,
bere baitan esan zuen
koadro hartaz burlatzen:
"Ez da zaila asmatzea
artista nor izan den;
gizona izan behar du,
lehoia ez bederen".

Las moscas

*A un panal de rica miel
 dos mil moscas acudieron
 que por golosas murieron
 presas de patas en él.
 Otras dentro de un pastel
 enterró su golosina.
 Así, si bien se examina,
 los humanos corazones
 perecen en las prisiones
 del vicio que los domina.*


Euliak

*Ezti gozoa aurkitu zuten
 mila eulik abaraskan,
 guzti-guztiak bertan hil ziren
 preso eztiaren biskan.
 Bakarren batzuk amaitu ziren
 sagar-pastel baten puskan.
 Gauza bera gertatzen zaie
 giza-bihotzei askotan,
 harrapaturik geratzen dira
 gurari txarren kaiolan.*



La serpiente y la lima

*En casa de un cerrajero
entró la serpiente un día,
y la insensata mordía
en una lima de acero.
Díjole la lima: "El mal,
necia, será para ti.
¿Cómo has de hacer mella en mí
que hago polvos el metal?
Quien pretende sin razón
al más fuerte derribar
no consigue sino dar
coces contra el agujón.*



Sugea eta lima

*Arotzaren etxean
ari zen sugea
limari kosk egiten,
zer burugabea!
Alferrekoak ziren
haren ahaleginak
kamustu zitzaizkion
hortz eta haginak.
Azkenean sugeak
ezin du jarraitu
limak burdina ere
erraz jaten baitu.
Erokeria duzu
orain eta beti
iraina egitea
handiago bati.
Gogoratu ezazu
behin eta betiko
ez jo akuiluari
indarrez ostiko.*

El asno y el cochino

*Envidiando la suerte del cochino
un asno maldecía su destino.
"Yo, decía, trabajo y como paja,
él come harina, berza y no trabaja
a mí me dan de palos cada día,
a él le rascan y halagan a porfía".
Así se lamentaba de su suerte,
pero luego que advierte
que a la pocilga alguna gente avanza
en guisa de matanza,
armada de cuchillo y de caldera
y que con maña fiera
dan al gordo cochino fin sangriento
dijo entre sí el jumento:
Si en esto para el ocio y los regalos
al trabajo me atengo y a los palos.*



Astoa eta zerria

Kortan zegoen zerri mardul bat
bizimodu egokian
astoa aldiz erretxinduta
zerriaren inbidian.
"Lanean nabil egun osoan
soroan eta mendian,
neke latz eta gogorren truke
lasto apurra, aldian.
Zerria berriz hortxe daukazu
etzanda alferrerian
jateko ona ez zaio falta
bere bizitza guztian".
Egun batean gure astoak
txit beldur-ikara handian
jende mordoa ikusi zuen
jabearen baserrian;
zerri lodia preso zegoen
hiru gizonen erdian,
laugarren batek laban zorrotza
sartu zion eztarrian.
Zerri gaixoa hilda ikusiz
guztiz modu itsusian
asto meharrak pentsatu zuen
bere korta bakartian:
"Zerri nagia bapo bizi zen
loditzeko aitzakian,
nahiago beraz bizirik egon
nahiz izan gose larrian".

Euskal testu zaharrak eta itzulpengintza

JOSE M. SATRUSTEGI

Bibliak Testamentu Zaharrearan dioen Babelko Torrea eta hizkuntza banakatuen mitoa bezain zaharra da historiaurretik itzulpengintzaren iturrama. Mintzaira desberdinetako gizonen hartu-emanetan elkar ulertu beharrrak sortu zuen aspaldi hartan itzultzaile zerbitzua.

Giza-aberearen aurre jatorria aintzat harturik, keinu-mainu eta oihu berezien sentiberatasun edo garraztasun eraginkorrean datza itzulpen guztien lehen batasun berezkoa. Zantzuen mimojardun orokor eta soinuen deialdi nahiz garrasi estuen espresio bizitik, gaur egungo teknologien jarduera elektronikotaraino, bide luzea ibili du gizonak kultura desberdinen arteko itzulpen arazotan.

Euskarari dagokionez, ahoz ahoko itzulgaien aipamenak maiz agertzen dira izkribu zaharretan; baina ez hainbeste itzultitako tes-

tuen azalpenak. Horrexegatik, hain zuzen, balio handikoak dira aurkitutako lekuko en zirriborroak.

Han edo hemen itzultzailea behar zelako adierazpenak ere badu, noski, baliagarritasunik euskararen historian hizkuntzak nozibait izandako hedadura zehazteko eta, bide batez, bertan euskara elebakar zutenen lekukotasuna azpimarratzeko. Elizako liburuetan arrunta izan ohi da apezpikuen agindu ofizialak herri-mintzairan eman zirelako oharra; baina parroketan ez ezik, epaitegietako izkribuetan ere bada batzuetan horrelako azalpenik.

Estellerrian, esate baterako, Arraztia abizenekoen armari eskubideaz sortutako auzi batean, hiru testigu aipatzen dira erdararik ez zekitenak beste horrenbeste herritan. Hauek dira, euren itzultzaileen izenekin batera:

1. *"Martin Sotes, vez. de Azcona... preguntado por el 6. art. de la Repregunta dixo que este testigo entiende poco Romançe y se examino en basquenze con el dicho Lopeç de Rieçu a quien le dio a entender lo que sauia y que Echo de ber sabia algo de bascuenze el dicho Lope de Rieçu y que no hubieron interprete"*.
2. *"Sebastian de Arraztia, vez. de Yruñela... y como tiene dicho se Examino en bascuenze y serbio de interprete Pascoal de Inça"*.
3. *"Goncalo de Suescun, vez. de Vgar... dixo que se Ratifica con esto que en don(de) dize que el concejo de Azcona tiene su ssolar en dicho lugar de Arraztia y este testigo fue examinado en basquenze por no saber Romançe y fue examinado conterprete (sic) que fue Pascoal de Inça y no saue si son parientes".¹*

Euskararen aldetik, hala ere, alboko berriak dira honelako aipamenak, non edo han noizbait hizkuntza zaharra mintzatzan zeneko albistea, alegia, itzulitako testuen lekukotasunik ez badago. Baina, zorionez, euskal testu zaharretan aurki daiteke batzuetan ohiko itzulpen haien zirriborrorik ere.

Era askotako izkribuak eta helburu edo funtzio desberdinetako lanak direnez, multzo berezitan bana daitezke: 1) itzulpen ofiziokoak, 2) testu parekatuak, eta 3) azalpen libreak.

1) Itzulpen ofiziokoak

Edukin zehatza eta mezu borobilaren testu finkatua ukiezina da itzulgai ofizialetan. Liburu santuak edo Biblia, Kristau Ikasbidea edo dotrinak, deboziozko liburu maisu handienak, eta udalerrietako ordenantzaren bat edo beste dira euskaldunon itzulpen zahar nagusiak. Muga estu horien barnean, iturrien esanahiaz jabetzea da itzultzailearen lehen egitekoa, eta hurbiletik hari jarraitzea.

Bitartekariaren eginkizuna, gero, ulgarritasunaren aldetik eskertzen da, eta hizkuntzaren edertasunagatik miresten. Nere iritzi apalean, idazlearen sormen ekintza baino korapilatsuagoa da batzuetan bikoizlearen eginkizuna. Artisau lan eskergaitza da, adibidez, lirika eta olerkaritzako gaiak duintasunarekin berreskuratzea. Izan ere, pentsabide oso landu edota amodio diztirantaren argi-printzaz hariltzen den irudia, ez da lerroz lerro eta hitzez hitz egiteko hustuketa. Ez da metroka edo haztagailuan neurt daitekeen materialea, gaztelu zaharren berreraiketako harlandu zenbatuak balira bezala.

Eskuak lotuta arte-ederretan bere lana egiten duen margolariaren antza hartzen diot bikoizle onari; iturramaren ekarkinari zehaztasunez jarraitu behar dio, alde batetik, baina irudi estetikoaren janzkera lortuz bigarren hizkuntzan. Gai arruntek ez dute, noski, horrelako zailtasunik; hala ere, ikerlan teknikoen esparruan jakintza espezialduen kontzeptu berriek korapilo handiak sortzen dituzte.

1. "Desculpa de Hernando Diaz contra el fiscal y su denunciante y lugar de Azcona sobre el escudo". (Atención de Angel Elvira y M. Inés Sainz, de Mendavia (Navarra). 1605, 16 eta 17 fol.

Testu zaharretako itzultzaileak mugatua-
goa zuen itzulgaien esparrua gizartearen ja-
kintza maila apalagoa zen neurrian, baina
baziren orduan ere zailtasunak. Aldaketak
sortzen dituen aurrerapenak berez dira gizar-
tearen biziko legea, eta erromatarren eragi-
na, adibidez, nabarmena izan zen euskaldu-
nen kulturaren eta hizkuntzan. Kristautasunak
denbora berean burubideak, ohiturak eta si-
nestea aldatu zituen Mendebaldeko herrie-
tan bere hiztegi propioa txertatuz.

Euskal testu zaharretako itzulpenen le-
kukotasun nagusia elizgizonen eskutik dator-
kigularik, erlijio gaiak dira ugariak. Itzul-
tzaileei dagokienez, eliz barruti mailan ez
zegokeen orduan ogibidez ofizioko itzultzai-
lerik. Norberak borondate onez eta beharri-
ren pasioz idatzitako zirriborroak dira ba-
tzuetan, maila desberdineko kalitatearekin.
Leitzako parrokiaren apaiz biren arteko auzia-
ren ondoren Erromatik etorritako idazki
baten itzulpena ez da, noski, eredu garriena.
Honela dio:

*“Ohec dirade Letra Apostolico baçuec
exe-/cutorialeac, probeituak Matheo Bura-
to / jaunak jueza Aitasantuak señalatua /
sacra Rotaco, erri onetaco Abbadiaco / au-
ciagatic ceña baitarame bachiller / D. Mar-
tin de Aldunçin eta D. Martyn de / Valcar-
losen artean. Aguinçen du / Juezac paga
dizala D. Martyn de Bal-/carloshac bachi-
ller Aldunciny, edo / haren procuradoreari
amaborz egunen / barrenean, borzetan eun
eta berroquey / eta amalau erreal alde bate-
ra, eta / verroquei eta amar ezcutu, amar-*

*na / erralecoric, eta gueyago sey ezcutu /
moneda veretic. Gustiac causa, eta / razoe
expresaçen diranengatic Letretan. / Eta gue-
yago pagatu behar ditu justamente / çor di-
tuen costuac. Aperçebimenturequin / paga-
zen ezpaditu termionetan, prozedi-Ituco
dela aren persona presso arzera, eta / aren
aziendac, eta rentac consignazera // eta se-
crestazera, eta ahec saldu eta / pagu eguite-
ra. Recrezicen dirade derecho / eta costu guz-
tiequin. Eta zerren eguin / ditudan dili-
gencia necessarioac Yruñean eta emen no-
tifica-/zeco Letra oec vere personan, eta ezin
/ aurquitu dudan, eguiten dut publicacio
au / eliza onetan, eta yminico dut Letrac,
eta / trasladua eliza onen ateari erasidich /
guztien notorio den. Eta datorren abbadea-
ren / notiçia. Eta gueyago aperçebiçen dut
/ emanen diodala trasladu fede eguiten /
duena escazen duten personaei, emateco /
noticia Abbadeari”.*²

Salbuespen moduan har daiteke eskuar-
teko itzulpen zaharretan Leitzako zirribo-
rroaren antzeko euskara mordoiloa. Gaita-
sunezaren beste muturrean, alderantziz, maila
goreneko itzulpen kopuru aberatsa dago eus-
kal literatura zaharrean. Ioannes Leizarragak
Testamentu Berria euskaratu zuenetik (1571)
etengabeko itzulpen tradizio eskergaitza izan
du Euskal Herriak Elizaren bidez. *Gudu Iz-
pirituala*, *Philotea*, *Kempis* eta antzeko abar
luzearekin aberastu zen hizkuntza eta esko-
latu bereziki Iparraldeko euskalduna. Ez ze-
goen noski ogibidez eta ofizioz itzultzaile ti-
tuludunik “profesioaz” mintzatzeko. Emai-

2. Archivo Diocesano de Pamplona. Proc. Leiza 1626, C. 490, n. 2, Sec. Mazo. Cf. Jose M. SATRUSTEGUI, “Contribución al fondo de textos antiguos vascos” ASJU, XII-XIII, 1978-1979, 13. or. eta hurr.
Euskal Testu Zaharrak I, Iruñea 1987, 46 or.

tzen txukuntasunaz eta hizkuntza jatorraz neurtzen zen maisuaren gaitasuna eta maila.

Hitzez hitz itzuli beharreko testu idatzien esparrua da itzulpengintzako eragin nagusia duena une honetan, eta betidanik altxor aberatsa utzi duena euskal literaturan.

Hitzak hitz, badu tradizio sendoa aspaldiko euskal itzulzaileen eskolak. Apezpikuen artzai-irakasgai luzeak euskaraz ipintzen saiatutako apaizik ere bada, besteak beste, Iruñeko elizbarrutian. Nikolas Polit auriztar ospetsuak euskaratutako bat argitaraturik dago,³ eta ez da bakarria bere izkribuen bilduma ederrean.

2) Testu parekatuak

Izkribu zaharren munduan bada bigarren maila bat itzulpenaren ikuspegitik baino zehatzago, oinarriko testu baten erabilpen libretik sortutako parekotasuna duela esan litekeena. Egile batek bere lana hizkuntza bitan burutu behar duenean, adibidez, iturburuko urbide desberdinen antzera, mezua- ren ildotik parekatzen ditu testuak. Bietariko hitzun trebeari errazago zaio hori, esaldiak hitzez hitz itzultzeko morrontzan erortzea baino. Dotrina erakustea, homilia egitea eta platicatan morala delako ohitura onetaz mintzatzeko zirriborroak idaztea edukinaren ardatzari lotuago dago normalean, testu bien arteko hitzen batasun ezin bananduari baino.

Besterik da, noski, jai nagusietako predikuen ospeari begira, edota kanpoko hizlariaren sona eta izenaren zintzurrinak direla medio estetikaren eraginez buruturiko sermoi bikoitzen kasua. Lerroz lerroko gainbegiratuan zerikusi gutxi dute, askotan, perpausen loturan eta azalpenen ordenan. Sermoia- ren zergatia, puntu nagusien gaingiroko ardatza eta, bereziki, esaldi apain, itxura boro- bil eta hiztegi txukunaren izarretako hizkuntza arrotza, izan zitezkeen testu parekatu haien adierazgarri distiranta.


Zabarkeriaren aldetik datorkioke, alde- rantziz, itzulpenari mordoilokeriaren arris- kua. Egileak hizkuntza bat duintasunez ba- liatu arren —gehienetan erdara—, bigarre- narekin eragozpenak baditu, edozein modu- tako akatsak nabarmentzen dira itzulpen itxurako testu parekatuetan.

Hizkuntza desberdinen arteko ikuspegi- tik euskararen barruko egoerara itzultzen badira begiak, bada euskalki eta azpieuskal- kien mailan aldaturiko testu parekatuak ere.

Ohikoa da, alde batetik, aurreko gizaldiko elizgizonen izkribuak ukitu txikiekin ondo- rengoak baliatzea. Paper mota, tintaren mar- ka, letra bera eta bien datak izan ohi dira ezaugarri zehatzak. Tokian tokiko euskara dela-eta testua arrotz gerta baledi dagoen dagoenean bigarren apaizaren eliztarrentzat, jatorriko paperetatik aldatu egiten zen izkri- bua ulergarritasunaren bidetik entzule be- rrien mintzairara.

3. Jose M. SATRUSTEGI. "Iruñeko elizbarrutiko izkribu baten itzulpena Luzaideko mintzairan" *SENEZ* 15, 1994, 73-93 or.


Dialektologia alorreko ikerleentzat interesgarria daitekeenez euskal testu parekatuen lekukotasuna, Anastasio Echeverri⁴ Lesakan (1857) emandako sermoi baten atala⁵ ekarriko dut adibidetzat, gero Nikolas Polit zenak Luzaideko hizkera modura aldatua⁶. Ongi azpimarratzen ditu Aurizko apaiz ospetsuak luzaidarren fiabardurak:




4. Anastasio Echeverri Elizondon jaio zen 1832ko apirilaren 16an. Xavier Roman Anastasio izenekin bataiatu zuten biharamunean. Apaiztu eta behin-behineko benefiziari egin zuten Lesakan 1856an. Bi urteren buruan egin zuen bere sarrera Zugarramurdiko parrokiari eta bertan egon zen 1907an hil arte.
5. Lehen orriburuan ezarria da noiz eta non emandako errepikapenak izan zituen. Honela dio: "Pred. 1857, el 8 y 15 de marzo medias; id 1858 el 7 de marzo a id, en Lesaca. Id 1858 el 21 de id en Zugarramurdi.
6. Auritz/Burgueten sortua zen Nikolas Polit jauna 1834ko abenduaren 7an. Apaiztu ondoren Luzaidera bidali zuten, erretergoan egon zelarik 1887 arte. Orreagako priore edo buru izendatu zuten orduan bere anaia Frantziskok utzitako karguan. Orreagan hil zen 1906ko ekainaren 3an.

Lesaka 1857

¿Norq emanentio gaur nere ezpañey itzaq, nere entendimentubari pensamentubaq, nere espiritubari fervoria, nere Ministerioari corresponditzen zayon bezalaco zelo bat, zubey gaur Christandadeco egui añ espantagarriya au proponitzeco? Auche da, araco pensamentu, munduco yende mortalaz añ lastimagarriqui anciya dagona ura, guizonen memoriyatiq veñere apartatu viar esluquiena ura: araco pensamentu miragarriya ura icusi dattetziuen gauza guciyeq viño gorago, gu alchatzen gattubena ura, munduco qriaturen desverdiña ura gureganiq arrancatzen dubena ura, viciyuaq aborreciyerazten eta virtutien egerciciyorat poderosqui muguierazten gattubena ura: auche da araco pensamentu icaragarriya ura, guizon deniq valientiena icaratzen, yaquinsun deniq presumittubena desengañatzen, Soberbo deniq altivuena humillatzen, deshonestuen verotasunaq itzaltzen, abaruba, vere ondasun injustubetatiq irauntenttubena ura: aucha da araco pensamentu andiya ura, ceñen vistan baituridite ttiqiyuaq martiren tormentubaq, Anacoreten penitencia espantagarriyaq, eta orañiq munduco mendiyuaq ere doblatzen eta chiquitzen baitire: auche da azquenan pensamenturiq edo ideariq eztuben pensamentuba ura, ceñen presencian icusten baittugu deusezerat viyurzen empleguriq ilustrinaq edertasun deniq perfectubenaq, ondasun deniq andiyenaq eta desaguerzen aziaq (sic) daraman polbua bezala ereinubaq eta Ymperiyuaq: auche Araco David penitencia icaratzen zuben, eta vere biciyaren emienda oso baterat determinatzen zuten betico urtieq, erratten zubenian *Cogitavi dies antiquos, et annos aeternos in mente habui* (Ps. 76 v. 6). Yarri ni-



tzen consideratzen, beti iraun viar duten egunetan, betico urtietan eta equin pensamentu espantosuaq quendu cidan nere loa bustierazi cittidan nere guatzia, eta nere yanaria, nere nigar zaminaquin, paraturiq nere veguiyen aincinian nere maldade guciyeq, Omnipotentiaren colera justuba, aren presenciyerat aguerzeco arquitzen naizen estadu tristia, eta nere esperuan dagon betico castigua, baldin ezpada urricalzen nere doloriaz, nere suspiruaz eta nere eguiyazco penitencyaz: Penitencia auche da bada niq culporen naufragiotiq ittotzeticq libratzeco artu viar dudana ola infernuco Ytsaso ondoriq vaguiartan itto esnadien.



Luzaide

¿Norq emanen dazco egun ene ezpainer itzaq, ene adimendiari pensamendiaq, ene izpiritari fervoria, ene ministerioari corresponditzen zacon bezalaco celo bat, cier proposatzeco eternitatiaren pensamendu icaragarria? Au da, munduco yende mortalez ain lastimagarriqui ahatziq doon pensamendu

ura, guizonen memoriatiq beinere apartatu behar ezluquena: pensamendu miragarri ura, icus ditezquen gauza guciaq bano gorago gu alchatzen guitiena, munduco creaturen amodio soberaquina gureganiq quentzen diena, vicio eta becatiaq aborrecihazten eta vertuteen practicatzer a igui hazten guitiena: au da pensamendu icaragarri ura, guizon deniq curayosena icaratzen, yaquinsun deniq presumitiena desengañatzen, sobervio deniq urgulutsiena humiliatzen, deshonesten verotasunaq eta pasioniaq itzaltzen, avarua, vere untasun inyustuetaiq erantzten diena: au da pensamendu aundi ura, ceinaren vistan iduri baitute ttipiaq martirren tormentiaq eta Saindien penitencia icigarriaq: au da pensamenduiq edo ideyaiq eztien pensamendu ura, ceinaren presencian icusten baitugu ezyeusercerat viurtzen emplegiq ilustreenaq, edertasun deniq perfectenaq, untasun deniq aundienaq, eta desaguertzen, aiciaq daraman errautsa bezala, erresumaq eta imperioaq: au da, azquenian, David penitenta icaratzen cien, eta vere vicitzaren erreforma oso baterat determintzen cien pensamendu ura, erraiten cienian: "*Cogitavi dies antiquos, et annos aeternos in mente habui*" (Ps. 76). Yarri nintzan consideratzen beti iraun behar duten egunetan, betico urteetan, eta pensamendu icigarri uneq quendu zahan ene loa, eta bustiaci zazquidan ene ohatzia eta ene yanaria ene nigarrequin, ezarriq ene veguien aitzinian ene crima guciaq, Yaincoaren colera yustua, aren presenciarat aguertzeco aurquitzten nizan estatu tristia, eta ene beha doon punimendia, baldin ezpada urricaltzen ene doloraz, ene pleñiez eta ene eguiazco penitenciaz.

Bi apaiz euskaldunok adintsukoak ziren. Bi urtez gazteagoa, nahi bada, auriztarra. Bazuten noski elkarren berri: izan ere, ez da hau bien arteko testu parekatu edo kopiaturako bakarra⁷. Lehen galdera, beraz, nor nori emandako izkribuak diren izango litzateke.

Zuzenean horri erantzuterik ez dago, baina kontuan edukiz Echeverriren eskuizkribuak Polit jaunaren bilduman zeudela eta, alderantziz, honenik ez Anastasioren pape-retan, logikaz iduri du Bidasoa aldetik atera zirela eta Luzaidera arribatu. Euskarari begiratuz, landuagoa da Politena, hitzez hitz jarraitu arren creduari.

Bigarren galdera bat iturrirei buruz egin daiteke. Berak propio egindako lana ote zen Lesakako benefiziataurena, ala beste nonbaiten oinarritua? Hogeitabost urteko apaiz gaztea zen 1857an Elizondoko Echeverri, seminariotik atera berria, eta ez litzateke harritzekoa izango lehen urratsak sermoi liburu-
ren batetik ikasiz emanak izatea. Gehi-
entan gatzelerazko autoreetatik hartzen zituz-
ten apaiz euskaldunek beren predikuak Na-
farroan, iturriak aipatuz askotan. Bide ho-
netatik egin liteke euskal testu itzulien jarrai-
pen emankorra.

3) Azalpen librea

Herritarren mintzaira ohikoa aberatsa da herri-jakintza mailan, baina era berean, hiri-

tarren hiztegi landua arrotz zaie askotan. Legegizon eta medikuen antzera, Elizak ere bazuen bere hizkuntza berezia Kristautasuna-
ren inguruan sortua. Gotzaien irakasgai eta
aginduak ez ziren beti ulergarriak herri xu-
mearentzat jatorriko erdara jantzian, eta zail-
tasuna arcagotu egiten zen euskarara hitzez
hitz itzultzean.

Parrokietako apaizak behartuak ikusten ziren artzai nagusien izkribu asko herri min-
tzairan adieraztera, eta norberak ahal zuen
moduan bete behar zuen agindua. Horrega-
tik, hain zuzen, hainbeste aldakin mota ikus
daiteke oinarri bereko idazkietan.

Adibidez, dantzei buruz 1750ean Miran-
da Argaiz Iruñeko apezpikuak emandako
aginduak hartzen badira aztergai, badago
Baztanen hitzez hitz egindako itzulpen osoa,
kopia banarekin Elbete eta Elizondoko pa-
rrokietan⁸.

Baina, bestalde, ez zuten Euskal Herriko
apaiz guztiek hartzen apezpikuen izkribu
luzeak itzultzeko lana, eta mezuaren muina
laburbilduz eliztarrei jakinarazten saiatzen
ziren. Horrela euskarara itzultitako zirribor-
roa ezin da esan berez gotzaitegiko dokumentua-
ren itzulpena denik, ez eta testu parekatua
ere, ereduko edukin nagusiaren azalpen li-
brea baizik.

Hamazazpigarren mendearen Erdiko
izkribuarekin jarraituz, Iruñea inguruan ipa-
rraldera dagoen Ezkabarte ibarreko Orrio

7. Apaiz berriaren sarrerako agurra, adibidez, antzekoa da biena. Ikus Zugarramurdikoa, FLV 48, 1986, 301. or.; eta Luzaidekoa, FLV 49, 1987, 99. or.

8. A.APAT-ECHEBARNE, *Noticias y Viejos textos de la "Lingua Navarrorum"*. Una carta pastoral de 1750 en vasconce, sobre bailes (San Sebastián, 1971), 67 or. eta hurr.

JOSE M. SATRUSTEGI, "Euskaldunen seksubideak", *Jakin* (Oñati, 1975) 28-29 or.

FRANTZISKO ONDARRA, "Textos en vasconce navarro de Baztán, Nuín y Urdazubi" FLV 40, 1982, 387 or..

herriskan agertu zen laburbilduz euskaratutako eskuizkribu jakingarri bat⁹.

Apezpikuaren sarrerako hitzetatik ikus daiteke, besterik gabe, testu bien arteko lotura-eza mezu berdina izan arren:

“A todos los fieles de nuestro Obispado, hacemos saber, que estando alta y severamente reprehendidos los bayles públicos, y las danzas por los Santos Padres, y Sagradas Escrituras, y prohibidos por los Sagrados Cánones, y Concilios, y por Santos, y Sabios Arzobispos, Obispos, en estos, y en los demás Reynos: y por grandes, y piadosos Príncipes, Reyes, y Monarchas, sus Consejos, y Reales Tribunales; por estos, y en los demás Reynos: y por grandes, y piadosos Principes, Reyes, y Monarchas, sus Consejos, y Reales Tribunales; por estos con gravissimas penas, y por aquellos con rigurosas Excomuniones, y Censuras; y assimismo continuamente reprehendidos, y reprobados por los mas Sabios, y zelosos Misionistas-Apostolicos, aun siendo los bayles de aquellos antiguos siglos de hombres, ó de solas mugeres”.

“Gure Obispadoco Christio fiel gucieri gaztiatcen diotegu, danza publicoac reprehenditcen dituztela Escritura Sanduac, eta Elizaco Doctoreac, arbiatcen dituztela Concilio, eta Missionista jaquinsunec, debecatcen dituztela Obispo Sanduec escomunicacionen azpian, eta Erregue Andi, eta piado-

soec oben Conseju eta Tribunalec pena andien azpian”.

Adierazgarriagoa da jarraian gotzaiak emandako azalpen luzearen telegrama antzeko laburpena:

“Ahora por la injuria de los tiempos, y por la infeliz, y comun relajación de las personas de ambos sexos, se ha introducido esta mezcla de hombres, y mugeres, tanto mas nociva, y perjudicial á las Almas, con la libre, y desenfrenada vista de los Jovenes, proximo trato, y comunicacion de unos, y otros, con escandalo público, sones y saynetes los mas vivos, carreras, y encuentros libidinosos, y repiques, que llaman de fuga, infernales, provocativos, y llenos de mortal, y executivo veneno, en acciones, ademanes, movimientos, y tocamientos impuros, paradas, bebidas, y refrescos, y Arcos por donde passa el Demonio en las danzas, assí en los parages públicos, como en los Encubiertos, Portales, Zaguanes, y transitos estrechos, que de proposito, y con poco motivo se solicitan, profanando frequentemente los Sagrados Templos, Basilicas, Hermitas, sus Atrios, y Cementerios, de día, y de noche, en Plazas públicas, y en los caminos, y despoblados: en que no pocas veces, y con mucho dolor nuestro, se mezclan tambien personas Eclesiasticas, y aun los pretendientes de Ordenes al mismo tiempo, que las solicitan, de que

9. Jose M. SATRUSTEGI, “El edicto eclesiástico de 1750 en versión vasca de la Cuenca de Pamplona”. ASJU XVIII-1 (1984), 41-51 or. *Euskal Testu Zaharrak I*, 80-81 or. 22. zkia.

hay bastantes exemplares; y aun de ser alguno, ó algunos Maestros de Danzas, y de tener por Oficio el enseñarlas personas de ambos sexos: Y adoleciendo de esta contagiosa peste, y mortal enfermedad la mayor parte de nuestro Obispado, deseando ocurrir tan imponderables males, y daños espirituales, y temporales, y descubrir á los Fieles estas estradas encubiertas, las mas seguras, y secretas de Satanás, y sus invenciones, y los estragos indubitados, inevitables de la deshonestidad, y luxuria, y sacar á los Fieles de los crasos errores, en que viven ocupados en esta pesima diversion, opuesta á todas las Leyes, y la razon, y en estos iniquos, é injustos espectaculos de Satanás, que son el origen, y la raiz de todos los pecados, y vicios, que reynan en los Pueblos; por lo que la Ley de este Reyno las llama *Oficina en que se fraguan muchas ofensas de Dios con escandalo de los Pueblos*".

"Eta bada gure Obispado gueyena aurquitcen da izurri cussusco, eta eriozco enfermedadade gonequi erituric, deseyatcen dugu cerbait berere erremediatcea ainberce calte, eta eracustea fieleai, diversione gaisto gau dela Satanasen laquio seguroa, eta Errietan aurquitcen diren becatu, eta vicioen astera, eta zaiña: orrengatic dio Erreñu ontaco legueac, Danza dela gaistaquinte-guia, non eguiten diren Jangoicoaren anitz offensa".

Aipamen eta zehaztasun asko murriztu edo baztertu egiten ditu itzultzaile honek batzuetan eta, alderantziz, gotzaiaren aginduren bat espreski gehiturik ematen du berak hitz gutxitan. Adibidez amaierako atala:

"Y que cada uno de los referidos ponga una copia é la letra de este Edicto en los Libros de la Iglesia, despues de los Mandatos de Visita, y la lean, y publiquen anualmente el primer día de la Pasqua de Resurrección de Nuestro Señor Jesu Christo, y en los dias festivos, que juzgaren ser conveniente, o necesario".

Orrioko apaizak beharrezkotzat jotzen zuen nonbait festaburu nagusietan errepikatzea, honako hau dioelarik:

"Eta bacoitcac imiñi dezala gure Edicto gau Elizaco Liburuan, eta leitu, eta publica dezala urteoro irur Bazkoetan eta Errico festaburu egunean, eta conveni, premia dela idurizayon jai egunetan".

Azalpen librea ezezik, dokumentu berria ere gerta daiteke batzuetan aldakia.

Euskal testu zaharretako itzulpengintzaz esandakoa, hain zaharrak ez diren gure egunetaraino mantendu zen Nafarroan. Ehunka itzulpen egin behar izaten genituen, gerra ostean euskara berriro plazaratzeko ahalegin ofiziala nahiz pribatua ondore onak ematen hasi zenean. Lorpen handia iduritzen zitzaigun eskariak gehitzen ikustea, eta ahal zen neurrian eutsi genion denbora berrietako profesionaltasun guztiaren oinarri zaharra den tradizioari. Behin-behineko irteera ezinbesteko egoeran.

Horrela itzuli nituen, besteak beste, lehen ikastoletarako:

Ardo ta Ogi Martxelín, J.M. Sanchez Silvaren "Marcelino pan y vino" (Iruñea, 1970)

Laminzulo. Greg. (Etorkizuna, 1972)

Iruzkiaren Abestia, Asisko Frantzisko (Barcelona, 1973)

Intzaur koskailu, Amadeo Hoffman (Etorkizuna, 1973)

Alizia, Lewis Carrol (Etorkizuna, 1974)

Eta hainbat dokumentu aspergariago.

Funtsezko galdera zera da: herri xumeari mezu bat adierazteko biderik egokiena al da hitzez hitz itzulitako hizkuntza landuarena? Plaza-gizonen emankortasun joria ulertuz eta ahogozatuz goxoki hartzen du jendeak emaitzarik sakonena. Pedagogiaren munduko hurbilketa.



Kultur hitzen itzulpena literatura testuetan

JAVI CILLERO

Sarrera

Kultur hitzen itzulpena berri samar irudi lekiok egunero-egunero euskarazko egunkaria irakurtzen duenari. Izan ere, oraintsu arte ez dugu aukerarik izan euskal egunkaririk irakurtzeko, eta hitz arrotzen uholdea prentsan nabaritzen da inon baino indartsuago: *Mossos d'Esquadra*, Sinn Fein alderdia, sare pelagikoak, Caliko cartela, play-offak... Kultur hedapena dela medio, hainbat hitz arrotz sartu zaizkigu hedabideetan barrena, hizkuntz adierazpideei lagundu edota eraso egiten dietenak. Ezaguna da alde horretatik ingelesaren indarra.

Nolanahi ere, eta Bibliako itzulpenak alde batera utzita, aspalditik erreparatu zioten arazo honi literatura unibertsaleko lanak euskaratzen trebatutako idazleek. Izan ere, literatura unibertsala itzultzean idazle baten ikusmoldea plazaratzen dugu, baina horren

atzean, askotan kultura baten ageripidea ere badugu, estaliago edo agerianago.¹


Hona hemen, adibidez, Jose Basterretxea *Oskillaso* idazle eta itzultzaileak (*Oskillaso*: 123) *The Cask of Amontillado* ipuinaren itzulpen-atarian egindako aitortpena: "Irakurgai huntan ikus diteke zelan komeni dan askotan beste hizkuntzetako hitzak nork bere idazkietan sartzca euren orthographia errespetaturik. Inglesez idatzita egonarren, iphuin huntan *palazzo* hitza italianoaz dago (ingelesez *palace* idazten da). *Palazzo* idazten duan bakhoitzean Edgar Poe'k Itali'ko aizeak ekartzen dizkigu."

Bestalde, aurrerago *Oskillasok roquelaire* frantsesezko hitza (kapa moduko bat) aipatzen du, "ezta euskerazko irakurleentzat ingelesezkoentzat baino arrotzagoa", eta gainera, hauxe gomendatzen du: "Heraldikaz mintzatzen geranean ere, eztugu esan behar

¹ Bestalde, kontzeptu batzuk zabaltzen ari dira, EAS delakoa, *European Average Standard* hizkuntza komuna, zenbait herritako idazmolde paraleloak biltzen dituen, nolabait esateko, nahiz eta oraindik ere halako baieztapenak baikorregiak izan.

urrezko, urdina, gorria, eta abar, *d'or, d'azur*, eta *de gueules* baizik, bestela ukuiluetako gauzetaz mintzatzen gerala irudituko baitu." Mirandek ere argitaratua zuen Poeren ipuinaren itzulpena 1952an, eta termino arrotzak erabili zituen.

Kultur hitzen arazoak eta ebazpideak anitz dira, eta ezin dira inolaz ere mugatu artikulu xehe batean. Neologismoak, maileguak, kalkoak, egokipenak eta beste nahas-mahas agertzen zaizkigu eguneroko hizkuntzaren zirimolan eta begi zolia erabili behar dugu direnak eta ez direnak bereizteko. Bestalde, hizkuntza etengabe bilakatuz doa, eta egun



arrotza dena bihar gure artekotzat jo genezake. Era berean, denboraldi bateko modak iragankorrak dira, eta hitz arrotz asko berez iraungitzen dira beroaldia igaro ostean. Itzultzailearen eginkizuna da hitz eta termino horietako asko galbahetik iragazi eta hondar baliagarriak bereiztea hizkuntzari sendo eta bizi eustearren.

Itzultzaileak nola edo hala erantzun behar izaten die arazo horiei. Era askotakoak

dira irtenbideak, baina oro har, marra bat egin genezake, bi alde bereizteko. Alde batera jotzen badugu, kultur hitz arrotzak barra-barra hartzen dituen itzultzailea dugu, barbarismoak-eta onartzeko zaletasun ikaragarria duena. Beste aldera joz gero, ordea, garbizalea topatuko dugu, inolaz ere kanpoko hitzik onartzen ez duena, beti ere euskal ordainen bat aurkitzen baitie. Bistan dago mutur horien artean kokatzen dela balizko itzultzaile orekatsua, hizkuntz jatortasunaren zalea, baina orobat murgildua hizkuntza eraberritzeko ahaleginetan. Kontuak kontu, hortxe dago kokka: noiz eta nola egin alde batera edo bestera itzulpenak taitutzean?

Itzultzaileon kezka ez da harritzekoa, zeren kultur terminoen itzulpena gehienetan itzulpengintzaren oinarrizko mailari lotua baitago. Bestela esanda, itzulpen arazo horrek zerikusi handia dauka hitzez hitzeko itzulpenarekin eta haren inguruko eztabaidekin. Kultura jakin bateko termino bereziren bat itzultzean, batzuetan ezinezkoa da XHn hitz egokirik aurkitzea eta bestelako irtenbideak bilatu behar izaten dira: mailegua, kalkoa, azalpena, parafrasia... Irtenbideak egon badaude, eta kontua da jakitea zertan den arazoa eta nondik nora doazen konponbideak. Hemengo lana, batez ere, kasu praktikoei begira eginda dago, han-hemenka irakurritako adibideez hornitua. Argi utzi behar da, beraz, azaltzaile dela, eta ez bide-erakusle. Dena den, ondo etorriko zaizkio oharrak eta gogoetak, eta handik sor litezkeen artikulu osatuagoak.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi nizkieke 1995-96ko EIZI Eren Literatura Itzulpenari buruzko Mintegian parte hartu zuten guztiei. Hona hemen partehartzaileak, hainbat ohar eta aipamen baliagarri eskaini zizkida-

tenak: Koldo Biguri, Karlos Cid, Mikel Garmendia, Juan Garzia, Idoia Gillenea, Aintzane Ibarzabal, Iñaki Iñurrieta, Fran Ispizua, Gerardo Markuleta, Xabier Mendiguren, Juan Mari Mendizabal eta Joseba Ossa.

Kulturaren definizioa eta arazo orokorrak

Hizkuntza hitzez beteta dago: teknika arloko hitzak, pentsamendu arlokoak, hitz afektibo zein neutroak... era guztietako hitzak bizi dira elkarrekin hizkuntzaren altxorean. Hori dela eta, argitu beharrekoa da zer den kultur hitza, nola bereizten den beste hitz klaseetatik, eta zernolako funtzioa daukan itzulpenean. Newmarkek honela definitzen du kultura: hizkuntza jakin bat adierazpide gisa erabiltzen duen komunitatearen bizimodua, eta bizimodu horrek dakartzan adierazpen multzoa. Horrenbestez, kulturak sortzen dituen adierazpen edota espresabideak definitzeko (adierazteko) erabiltzen ditugun hitzak dira kultur hitzak.

Testu literarioetan agertzen diren kultur hitzak itzultzean, itzultzaileak arazo jakin batzuei aurre egin behar izaten die. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar du kultur hitzen eremua ez dela gizabanakoaren hizkuntza edo idiolektoa, ezta hizkuntza unibertsala ere. Hizkuntza unibertsalean kultura guztietan ezagututako kontzeptu, tresna eta errealitateak sartzen dira: ispilua, mahaia, hil. Kontzeptu eta tresna horietariko batzuk kultura jakin batean sortuak dira, baina dagoeneko hedatuta daude kultura gehienetan, eta izendatzen dituzten erreferenteak unibertsalak dira.

Gizabanakoaren hizkuntza edo idiolektoa, berriz, norberak egindako aukeraketa estilistikoa da. Pertsona guztiek erabiltzen

dituzte, gogoz edo usadioz, bi hornidura linguistiko: eguneroko mintzaira, norberaren alfabetizazio mailari dagokiona, eta bakoitzaren altxor pribatua. Azken hau subkontzientearen atala da, eta oroitzapen adieraziena, hala nola bakoitzaren nortasun somatiko eta psikologikoaren batuketa berezi eta berebizikoa. Beste izenez, idiolektoa deritzogu (Steiner: 46). Dickensek *Coriolan nose* (Koriolanoren antzeko sudurra) hitzak erabiltzen ditu *Garai latzak*-eko pertsonaia baten aurpegia deskribatzean, metaforikoki ezaugarriren bat azpimarkatzeko. Halaber, Robert Luis Stevensonren pirata batek honela hitz egiten du *Altxor uhartea* liburuan: «...hauxe, orduan, niretzako moduko amarralekua...». Honela, idazle bakoitzak sortutako metafora eta esapideak literatur lanaren ezaugarri bihurtzen dira, bana-banakoak eta bereizgarriak.

Era berean, hitz teknikoak ez dira kultur hitzak, kontzeptu unibertsalak islatzen dituzten aldetik: telefonoa, faxa, etab. Hala ere, teknika alorrean sortzen diren zenbait hitz kultur hitzen eremuan sartzen ziren hasieran, harik eta mundu osorako bidea urratu zuten arte: damaskinatua.

Beraz, aukeran kultur hitzak bereizteko, alde batera utzi behar dira termino unibertsalak (definizio unibertsalei dagozkienak) edota termino tekniko-zientifikoak (definizio teknikoiei dagozkienak). Era berean, bazter utziko ditugu idazlearen espresabide bereziak, metaforak eta baliabide estilistikoak, idazlearen idiolektoa osatzen dutenak. Horrela, kultur hitzak kontzeptu espezifikokoak izendateko erabiliko dira, beti ere kultura jakin bati dagozkionak: estepa, *chef*, datxa. Hala ere, *chef* hitza aztertzean ikusten denez, kultur hitzak ere termino unibertsal bihurtzen dira batzuetan.

Hizkuntza berean azpikulturak izan litezke (*croft; mordida*), baina hitz dialektalak ez dira kultur hitzak, termino unibertsalak izendatzen dituztenean (ukuilu, korta; *loch, lake; lift, elevator*). Hor argitu egin beharko genuke zer den hitz dialektala eta zer ez.

Bestalde, kultura bakoitzak alor bat edo beste jorratzen du bereziki, handik hainbat analogia, metafora eta erreferentzia hartzeko. Kultur foku horiek hainbat alorretan sortzen dira, hala nola kirolean, faunan, eguraldian eta abarretan. Hortxe ditugu, adibidez, *kale egin* (bola-jokoan, bola biren artean bat ere bota gabe igaro), edota *lur jo* (bola-jokoan, lurrera egin, ohola jo barik), metafora fosilak. Horrek arazoak sortzen dizkio itzultzaileari, hizkuntzen arteko ezberdintasunak direla eta. *Offside*, ateko sarea, etab. termino zabalduak dira gaur egun, komunikabideen eragina dela medio. «*No ha gozado esa pelota*», berriz euskaratik gaztelerara zabaldutako esaera dugu.

Hitzak deskribatzen

Zaila da neurtzen hitz batek dituen esanahi mota guztiak, nola osatzen diren hitzak semantikoki, nola deskribatzen diren, eta zernolako eragina duten hitzunenengan. Hainbat metodo erabili izan dira eginkizun honetarako, baina ez dirudi guztiz argituta dagoenik kontua. Beraz, nork bere kategoriak erabiltzen ditueno, gorabehera handiak izango dira deskripzio lexikoetan.

Esaterako, honela definitzen du Mona Bakerrek hitzaren esanahi lexikoa *In Other Words* itzulpen eskuliburuan: sistema linguistiko jakin batean duen balio espezifikoa, eta sistema horretan erabileraren erabileraz hartzen duen «nortasuna».

Bestalde, Cruseri jarraiki, Bakerrek honako ezaugarriak biltzen ditu esanahi lexikoari dagokionez: esanahi proposizionala, esanahi espresiboa, esanahi ustezkoa (hautazko murriztapenak, kolokazioak), esanahi ebokatiboa (dialektoa, erregistroa; geografikoa, denborazkoa, soziala; diskurtsoaren eremua, partehartzaileen arteko harremanak, diskurtsoaren eginkizuna eta komunikabidea) (Baker: 12).

Esanahi proposizionala harreman bikoitz batetik sortzen da. Alde batetik hitza dugu, eta bestetik, hitz horrek errealitatean edo irudimenezko munduan adierazten edo deskribatzen duena. Bestalde, kontuan hartu behar da hitz hori hizkuntza jakin batean sartuta dagoela, eta hitzunik hizkuntza horretatik ateratzen duela hitza. Beraz, horretan funtsatuko gara adierazpenak benetakoak ala gezurrezkoak diren erabakitzeke. Adibidez, *alkandora* hitzak honako esanahi proposizionala du: gizona jantzia, soina eta besoak eta gehienetan lepoa estali eta aurrealdean botoiak dituena. Hori dela eta, zentzugabea litzateke *alkandora* erabiltzea oin-zangoetan erabiltzen den arropa adierazteko. Itzulpenetan, oinarritzko esanahizat hartzen da esanahi proposizionala, eta ondo betetzen ez bada, okertzat jotzen da itzulpena.

Esanahi espresiboa, berriz, ezin da nolana ere benetakotzat edota gezurrezkotzat jo. Izan ere, esanahi espresiboa hitzunaren sentimendu edota joerei lotuta dago, eta ez errealitate objektiboari. Beraz, bi hitzek esanahi proposizional berbera izanda ere, baliteke esanahi espresibo ezberdinak izatea. Bestalde, hitzaren esanahi espresiboa mailakatu egiten da; izan ere, sentimendu eta joera berdinak adierazten dituzten hitzak graduzio horren barruan daude. Horrela bereizten

dira hitzak bata bestearengandik: *unkind* eta *cruel* hitzek esanahi espresibo antzekoa daukate, biek jokaera ezatsegina adierazten dutelako, baina *cruelek* adierazten duena askoz ere bortitza goa da.

Batzuetan, hitzak bi motatako esanahi horiek biltzen ditu, bai proposizionala, bai espresiboa: *beamer* (BMW autoa). Beste batzuetan, esanahi proposizionalari dagokio soilik: *book* / liburua. Bestalde, badira esanahi espresiboari soilik dagozkion hitzak: *bloody* hitza, bestelako birao eta indargarri guztiak. Kontuan hartzekoa da, bestalde, esanahi espresibo soila duten hitzak itzulpenan ezabatzen badira, ez dela aldatuko testuaren esanahi proposizionala, hau da, oinarrizko esanahi identifikatzailea. Hala ere, testuaren kalitate espresiboak galera handia nozituiko du.

Esanahi ustezkoa hizkuntz murriztapenei lotuta dago. Horra hor, adibidez, hitzak berez aukeratzen dituen bikoteak, hautazko murriztapenak eta kolokazioak. Hautazko murriztapenak esanahi proposizionalaren funtzioetan kokatzen dira, hizkuntzaren isilpeko legeak balira bezala. Hizkuntzak berak erabakitzen du *langile* adjetiboari izen bizidunen bat lotzea, eta *karratu* hitzari izen bizigaberen bat elkartzea. Hala ere, irudizko hizkuntza edo figuratiboan nahita hausten dira legeak, poesiaren zereginetariko bat horixe baita.

Kolokazioak, berriz, murriztapen semantiko eta arbitrarioak dira, hitzaren esanahi proposizionalarekin zerikusirik ez dutenak. Adibidez, erabakiak *hartu* egiten dira euskaraz, baina ingelesez *you have to make a decision*. Nolanahi ere, kolokazioak eta hautazko murriztapenak ez dira beti hain erraz bereizten.

Esanahi ebokatiboa dialektotik eta erregistrotik sortzen da. Dialektoa hiztun komunitate edo talde batek erabiltzen duen hizkuntz barietatea da. Dialektoak sailkatzeko hiru irizpide erabiltzen dira: geografikoa (EEBB-etako *lift* / Britainia Handiko *elevator*); denborazkoa (talde bereko hiztunek adin ezberdinetan erabilitako hitz eta egiturak, edota historian zehar erabilitakoak: *verily* eta *really*), eta soziala (klase ezberdinetako hiztunek erabilitako hitz eta egiturak: *scent* eta *perfume*).

Erregistroa egoera jakin batean hiztunak egokitzen jotzen duen hizkuntz barietatea da. Erregistroa zehazteko hiru elementu aztertu behar dira: diskurtsoaren eremua, partehartzaileen arteko harremanak eta diskurtsoaren einkizuna.

Diskurtsoaren eremuak hiztunaren aukeraketa linguistikoa baldintzatzen du. Izan ere, hiztunak eremu batean kokatzen du bere burua hitz egitean, eta horrenbestez aukera linguistiko jakin batzuk egiten ditu. Ez du modu berean hitz egiten futbol partidu batean nahiz tabernan futbolaz hitz egitean.


Diskurtsoan parte hartzen duten hiztunen arteko harremanak erabakigarriak dira erregistroa zehazterakoan: seme-alabek ez dute berdin hitz egiten elkarren artean eta aita-amekin hitz egiten dutenean. Formaltasun mailak oso kontuan hartzekoak dira testuak itzultzerakoan, zeren SHn agertzen diren nabardurak XHra eraman behar dira, eta kasu batzuetan kulturak oso bestelakoak dira hiztunen arteko harremanak erabakitzean.

Diskurtsoaren modua hizkuntzaren egin-kizunari dagokio (mintzaldia, saiakera, argibideak, etab.); halaber, transmisio moduari lotzen zaio (ahozkoa, idatzizkoa). Diskurtsoaren moduak aukeraketa linguistikoei era-

giten die. Adibidez: idazkietan *yours sincerely* edota *mes salutations distinguées* agertuko zaizkigu askotan inor agurtzeko, baina ez ditugu hizketan erabiliko gauza bera adierazteko.

Faktore hauek guztiek eragiten diote mezuari, eta horrenbestez, itzulpenean ere nola edo hala agertuko zaizkigu. Itzultzaileen zeregina da faktoreak orekatzea eta mezua zuzen ematea. Nolanahi ere, hiru esanahi mota horien artetik proposionala eta

roago, ostera, harreman hori galdu egin da eta beste konnotazio batzuk hartu ditu: Britainia Handiko polizia-laguna izan da *bobby*, batez ere armarik erabiltzen ez duena. Gaur egun, berriz, gizartea bilakatu ahala, *bobby*ren irudia alda liteke, menturaz gogorrago bihurtzeraino (gogora dezagun orain dela urte batzuk Britainia Handiko meatzariak egin zuten greba), eta agian hitza bera ere aldatuko da, konotazio berriak hartuz, edo beste batez ordezkaturiko da.



ustezkoa errazagoak dira aldatzen hizkuntza batetik bestera. Esanahi bi horiek oinarrikoak dira hitzak zertan diren ulertzeko, izan ere, hitzaren definizioa adierazten digute, bai eta zein posizioa duen sisteman ere.

Hiru esanahietarik, oro har, esanahi ebokatiboa askoz ere lausoagoa eta neurgaitzagoa da besteak baino. Esanahi ebokatiboa oso erroturik dago SHren eremuan, eta hainbat elementuz osatuta agertzen da. Gainera, baliteke aldatuz joatea denboraren poderioz. Adibidez, *bobby* hitza: Sir Robert Peelen poliziak ziren hasieran, beraz, harreman zuzena zeukaten poliziburuarekin. Ge-

Kultur hitzak itzultzean sortzen diren arazo orokorrak

Mona Bakerrek zenbait arazo bereizten ditu maila lexikoan; izan ere, askotan gertatzen da XHk hitz zehatzik ez izatea SHko termino bat ordezkatzeko. Bakerrek aitortzen duenez, ezin da estrategia multzo finkorik antolatu honelako arazoak konpontzeko, zeren testuinguruak eta itzulpenaren helburuak guztiz baldintzatzen baitituzte itzultzeko teknikak (Baker: 17). Bestalde, balio-kidetzak kontzeptuaren arabera jokatu behar dugu, eta kontzeptu hori oraindik ere

argitu gabe dago. Horrenbestez, hitzez hitzeko itzulpena egitean sortzen diren arazo horiek hala-hola egokituz gero, honelako arazoak azalduko zaizkigu kultur hitzak itzultzerakoan:

a) SHko kulturari lotutako kontzeptu ezezagunak itzuli beharra. SHko hitzak adierazten duen kontzeptua guztiz ezezaguna izan daiteke XHko kulturari. Kontzeptuak abstraktuak edo konkretuak dira; kultura sozial, material, edota erlijiosoari dagozkio. Horrelako kontzeptuak SHko kulturari lotuta daude ezinbestean. Adibidez: *privacy, speaker, prom*. Horrelako kontzeptuak oso-osorik dagozkio SHko kulturari, eta ikusmolde berezi baten adierazgarri dira. Hori dela eta, itzulpena nekez izango da pare-parekoa; gehienez ere, hurbildu egingo zaio SHko hitzak duen oihartzun indarrari. *Prom* hitzaren ordez (kurso amaierako) dantzaldia erabiliz gero, oinarritzko esanahia ulertzen dugu, baina konnotazio guztiak galtzen dira: EEBB-etako institutu eta unibertsitateetan kursoaren amaieran ospatzen diren dantzaldi formalak dira, horrelakoetan gazteak trajez jantzita joaten dira, eta harreman sozialerako abagune aproposa suertatzen zaie. Era berean, Britainia Handiko Parlamentuaz ari garela, *speakerak* dituen funtzioak eta karguari lotutako konnotazioak oso bestelakoak dira Eusko Legebiltzarraren presidentearen irudiaren aldean.

b) SHko kontzeptua ez dago lexikalizatuta XHn. SHko hitzak adierazten duen kontzeptua ezaguna da XHn, baina ez dago lexikalizatuta. Adibidez: *standard* / estandarra. Horrelako bidea egiten dute hitz askok

hizkuntza batetik bestera, hasieran mailegu gordina izatetik XHko altxorreko hitz bihurtzeraino. Kontzeptua inportatzean, XHko kulturak SHko ikusmoldearen zati bat ere bereganatzen du, beraz, okerrean hor badago kolonizazio edo ezarpen arrotzaren arriskua, eta onenean, berriz, mestizajea.

c) SHko hitza oso konplexua da semantikari dagokionez. Askotan gertatzen da SHko hitzak esanahi semantiko konplexuak izatea. Horrela, morfema bakarreko hitz batek esaldi batek bezainbeste esanahi dauzka. Horrelako joera oso arrunta da hizkuntzetan, halako kontzeptuak garatzen dituelako zenbait gauzatan. Adibidez, *Altxor uhartea* liburuko hitz hau: *klabua*.² Halako kasuetan, badirudi oharrak eta glosategiak direla biderik zuzenenak esanahi konplexu hori itzultzeko. Nolanahi ere, parafrasia ere badugu.

d) XHk ez dauka termino generikorik. XHk dituen termino zehatzei hiponimo deritzete, eta generikoei *superordinate* (ingelesez). Batzuetan, SHko termino bat itzultzeko ez dago termino generikorik XHn, baina badira hainbat hiponimo errealitatea deskribatzeko. Adibidez, *facilities (cooking facilities / sukaldea; conference facilities / batzargela; facilities for the disabled)* elbarrientzako sarra edo zerbitzuak). Euskarak zehatzetara jotzen du, ingelesak bezala, baina frantses eta gazteleratik itzultzean termino generiko gehiago beharko ditugu.

e) XHk ez du termino espezifikorik. Beste batzuetan, XHk baditu hitz generikoak, baina ez ditu bereizten SHko hitz zehatzagoen esanahiak. Adibidez, *house* hitz gene-

2. Marinel korapiloa, bi soka bueltarekin egiten dena, halako moldez non sokaburuak gutuztatuta geratzen baitira.

rikoa da ingelesez, eta etxea ematen du euskaraz. Alabaina, badira *house* horren zenbait ñabardura, hala nola *bungalow, cottage, croft, chalet, lodge, hut, mansion, manor, villa, hall* etab. Agi danez, kultura bakoitzak bere gisan bereizten ditu esperientziaren eremuak eta ezin dira kasu guztiak parekatu.

Termino generiko eta espezifikoa itzultzean, sarri askotan XHko hitzak inguratu egiten ditu SHko hitzen esanahiak, prozedura metonimikoen bitartez. Baliabide estilistiko horiek oso erabiliak dira eguneroko hizkuntzan, eta itzulpen teknika ezagunak dira.

f) Esanahi espresiboaren ezberdintasunak. XHko hitzak SHko hitzaren esanahi proposizionala betetzen badu ere, ez du guztiz adierazten esanahi espresibo berbera. Arazoak larriagotu egiten dira testuinguruaren arabera: errazagoa da esanahi espresiboari indarra ematea itzulpenean, indarra kentzea baino. Horrela, XHko hitza neutralagoa bada, itzultzaileak elementu ebaluatzaileak gainera ditzake, hala nola adberbioak edota modifikatzaileak. Adibidez: *batter* aditzaren orde *jo* aditza erabil dezakegu, baldin eta ñabarduraren bat eransten badiogu, *gogor jo, krudelki jo, basaki jo* edota *sakaildu*. Korapilatsua goa da kontrako kasua, alegia, XHko balio-kideak esanahi espresibo indartsuagoa dueneko. Beti gertatzen dira halakoak gai «tabuetan»: erlijioa, sexua, politika... *Queer* (homosexual) hitza da adibidea. Homosexuala neutral samarra da, baina *queer* hitzari hitzparekidea bilatu nahi bazaio zaila da asmatzen: *maritxu* eta horren antzekoak gutxiesgarriak dira. Era berean, ausartuko da inor *drag queen* kontzeptua *mari-erreginare*ren bidez edo itzultzen?

Kultur hitzen sailkapena eta itzultze-irizpideak

SHko enuntziatuak XHko esperientzia linguistikora eramateaz bestalde, enuntziatuen irudia edo errepresentazioa ere eraman behar da XHko kulturak garatutako mundu ikuskerara. Batzuetan ezinezkoa da, mundu ikuskera anitz daudelako gure munduan, hau da, «kulturak» (Mounin: 81).

Zibilizazio berean badira esperientzia sozialaren munduak oso bestelakoak direnak bata bestearen aldean; hori dela eta, mundu batetik bestera itzultzen denean, nozioak ez dira erraz igarotzen. Batzuetan, ezinezkoa da itzulpena (Mounin: 86).

Honezker, Nida eta Newmarkek urratutako bideari jarraiki, hainbat sailkapen egin dira kultur eremuak bereizteko, eta itzultze-irizpideak finkatzeko. Funtsean, halako deskripzioa eginez gero, bospasei eremu nagusi agertzen zaizkigu kulturaren mapa honetan: ekologia, kultura materiala, kultura soziala, erakundeak, termino historiko-artistikoak eta kultura erlijiosoa.

Ekologiak honako terminoak biltzen ditu: landareak, animaliak, haizeak, mendiak, errekek. Herri guztiek dauzkate izendapenak izadiko elementuak identifikatzeko. Zein herri-tatik datozen eta zernolako berezitasunak dituzten hartu behar da kontuan. Garrantzi-tsuak badira, eta urrutitik badatoz, transferitu egiten dira (montzoi, tundra, siroko), eta beste termino labur eta neutroa eransten zaie, hala behar denean (simun haizea).

Egia esan, ekologian errotutako kultur hitzak eta esapideak oso lausoak gertatzen dira XHko kulturaren. Gaztelera «ir al campo», adibidez, oso esaera mugagabea da, guretzat mendira joan edo adierazi nahi lukee-

na. Mendi, sierra, *monte*, eta abarren esparrua nola mugatu? Horra hor mendilerro, mendizerra... Zenbaitetan, SHko hiztunak ere ez dira ados jartzen zer esan nahi duen hitz batek. *Bush* ingelesezko hitza dugu adibiderik nabarmenetako bat: Australian kokaturako nobela batean mendia edo izan liteke, lekukoen arabera, eta marrazki bizidunetan, berriz, ematen du oihana edo basoa dela.³

Animalia edota fruituen kasuan, berriz, kontuan hartu behar da XHko lexikoan daukaten garrantzia, merkatal ikuspuntutik. Ezezagunak badira, naturalizatu egiten dira: ahuakat / aguakate, pomelo (arabi sagarra), mango, papaia.

Tokian tokiko landare-animaliak kulturalak dira, eta ez dira termino berrien bidez itzultzen (orkidea, koala, kanguroa) baldin eta ez badira XHko ingurunean agertzen beste izen batekin. Orduan usadiozko terminoaren bidez itzultzen dira: *cod* / makailua.

Kultura materialari honako alorrak dagozkio: janaria, arropak, etxebizitzak, herriak, garraioak. Berez, SHko terminoa gordetzen da, azalpenak eta argibideak izanez gero (errezetak, etab.) Batzuk, honezkero egokituta daude: kruasan (EEL)... Baina beste testuinguru batzuetan transferituta daude: *croissant* (HE), *roastbeef*... Pastak direla eta, espainoletik edota frantsesetik jasotzen diren produktuak gorabehera, besteak azaldu egin beharko dira: *lasagna*, ravioliak. Nolanahi ere, maileguak oso bereziak dira, eta eguneroko egia estaltzen dute: ez dago dena mailegatzetik, ezta dena kalkoen bidez ematerik ere (Mounin: 84). Adibidez, gaztak, ogia, ardoa,

etab. Mouninek hirurogeita lau ogi mota bereizten ditu Frantziako herrialde batean.

Jantzi dagokienez, neologismoz beteta dago hiztegia: *jeans*, galtza bakeroak (unai prakak). Jantzi nazionalak ez dira itzultzen: sari, kimonoa, kilt... Arropari lotutako hitzen bat kultur hitz bihurtzen denean, hobe da argitzea, izen generikoaren bidez: *baggy* prakak. Batzuetan argibideak lekuaren arabera edota materialaren arabera ematen dira: *botas camperas* / larruzko (basoko) botak, *mink coat* / larruzko (bisoi-) berokia.

Herrialde jakin bateko etxeen izendapenak zuzen-zuzenean hartzen dira (*palazzo*, *bungalow*), nahiz eta beste batzuk euskarara itzuliak izan (*hacienda* / etxaldea).

Garraioak, halaber, ez dira itzultzen tokiko hizkera emateko erabiltzen direnean: troika, bou, galeoi... Autoa izendatzeko modu asko daude, hasi antzinetik datozenetatik gaur egungoak arte. Sinonimoen arazoa dugu hemen: EEBBetan hainbat modu daude termino bera adierazteko (*car*), denak konnotazioz beteak. Bestalde, garai bateko garraioak agertzen direnean, testua girotzeko erabil daitezke, beraz, ez dira itzultzen: *hansom*, *coupé*... Marka izenak tartean direnean, transferitu egiten dira: *Chevrolet*, *Rolls Royce*, *BMW*... baita hegazkinen izendapenak ere: *DC10*, *Concorde*, *Jumbo*...

Kultura materialak mundu ikuskeren arteko aldea zabaltzen du, bizimodu materialaren arteko ezberdintasunak direla medio, bai eta teknologia ezberdinei esker ere (Mounin: 82). Kultura materialak ez dira elkarren artean estaltzen. Izan ere, zibilizazio

3. *Bush* hitzaren deskripzioa dela eta, ikus Anthony Pymen *Epistemological Problems in Translation and its Teaching*, Caminade, Calaceit (Teruel), 71-73 orr.

handiko hizkuntzeran ere hitz arrotzak sartzen dira kanpoko kulturaren erakusgarri, hala nola *yard*, *dollar*, *troika*, etab. frantsesez. Hori dela eta, kultura materialak ez dira zehatz-mehatz itzultzen (Mounin: 83).

Kultura sozialari dagozkio gizakien arteko harremanetatik sortzen diren merkatalgune, ekintza eta iharduerak, lanaren eta astialdiaren inguruan biltzen direnak. Honelako terminoak itzultzean arazo konnotatibo eta denotatiboak daude: *charcuteria*, *drogueria*, *chocolateria*, *patisserie*. Transferentziak, kalkoak edota definizio funtzionalak egin daitezke: txarkuteria / urdaitegia, drogeria, txokolategia, goxodenda / gozotegi / gozotoki. Beste arazo batzuk sortzen dira merkataritza-guneak eta inguruko kontzeptuak itzultzean: *shopping center*, saltoki-gune, zentro komertziala... Horretan, kalkoak eta deskripzioak erabiltzen dira: *zone piétonnière*, oinezkoen alderdia, *delicatessen* edo *deli* (EEBB-erako dendatxoak).

Astialdia betetzeko kirolak, jokoak eta jolasak era guztietakoak dira: cricket, pentanka, *bowling* / bola-jokoa, hockey, squash, badminton, poker.

Kultura sozialak are eta zailago egiten du itzulpen lana, objektu ukigarririk ezean (Mounin: 85). Gizateriari lotutako hitzak: *the masses*, *proletariat*, *working class*... aspalditik geureganatu ditugu: masak, proletalgoa, langileria.

Beste alor bat kultura soziopolitikoari lotuta dago: erakundeak, usadioak, ideiak, prozedurak, kontzeptu politiko-administratiboak itzultzeko bidea ematen du.

Estatu-burua, gobernu-burua edota parlamentuaren izena nazioarteko morfemaz osatuta badaude, hau da, erraz itzultzekoak, hitzez hitz itzultzen dira: *Assemblée Nationa-*

le / Asanblea Nazionale, *Senate* / Senatua. Legebiltzar hitza Euskal Herriari omen dago, ordea. Parlamentuaren izena zail samarra bada (*Bundestag*), itzulpen ofiziala eman behar da administrazioko agiritan, baina askotan transferitzen da irakurle jantziarentzat, edo bestela azalpena gaineratzen zaio erdi mailako irakurlearentzat (Alemaniako Parlamentu Federala). Batzuetan, kale edota etxearen izena ematen zaio erakundeari, prozedura metonimikoa erabiliz: *Downing Street*, Ingalaterrako Lehen Ministroaren egoitza, *White House*, Etxe Zuria. Ministerioak, deskriptiboak izanez gero, hitzez hitz itzul daitezke: *Ministère de la Jeunesse et des Sports* / Gazteentzako eta Kiroletako Ministerio frantziarra.

Erakundearen izena argia bada, hala nola *Les Postes et Télécommunications*, bi motatako itzulpenak daude, argitalpen arruntetarako kultur baliokidea (*PTT* edota Frantzia-Suitzetako Posta Zerbitzua) eta argitalpen jasoagoetarako transferentziak edota hitzez hitzeko itzulpena (Posta eta Telekomunikazio Zerbitzua).

Erakundearen izena iluna bada, hala nola *British Council*, *Instituto Cervantes*, itzultzaileak ikusi beharko du ea dagoeneko itzulpen ezagunik dagoen, eta gero irakurleak ondo ulertuko ote duen testuinguru honetan. Testu informatiboetan, dena den, izena transferitu eta kultur baliokide neutroren bat erabil daiteke, baina hobe da baliokide funtzionala edo deskriptiboa ematea: *British Council*, ingelesa irakasteko eta zabaltzeko erakundea.

Dena den, batzuetan ez dago hori egite-rik, batez ere, itzulpena testuinguru jasoago batean gertatzen bada: *Bachelor's Degree*, EEBBetako unibertsitateen lehen zikloa (lau urtekoa) amaitzean eskuratzen den titulua.

Testu kolokialagoetan, berriz, kultur balio-kidea eman daiteke, besterik gabe: *Bachelor's Degree* / lizenziatu titulua. Herri mailako erakundeak transferitu egiten dira, termino bereziak direnean edota tokian tokiko hizkeraren berri emateko: *arrondissement*.

Orohar, zenbat eta adituago izan irakurlea, hainbat eta errazagoa da transferentzia. Tituluak, tratamenduak... batez ere, testu jasoetako hitz oinarritzkoetan, parentesi artean emango dira, definizioaren ondoan.

Bestalde, termino historikoak, nazioartekoak, erlijiosoak eta artistikoak (*Duma, Belle Epoque*), ez dira itzultzen, baldin eta jadanik itzulpen ezagunik ez badago (*Siècle des Lumières* / Argien Mendea). Batzuetan bikoteak sortzen zaizkigu, zeinek bere tradizioa duela: Berpizkunde (Aroa) edo Errenazimentua. Ohar gaitezen batez ere hitz eratorrietan sortzen zaigula arazoa: *renacentista* / errenazentista.

Nazioarteko erakundeak akronimoen bidez ezagutzen dira, baina badituzte itzulpen ezagunak ere: *WHO* (OME, Osasunerako Mundu-Erakundea). UNESCO, berriz, ezagunagoa da akronimoari esker.

Erljio hizkerako terminoak era askotakoak dira: *fumata* zuria... Erljiozko terminoak transferitu egiten dira: adbentistak, baptistak.

Arte munduan agertzen diren izenak irakurlearen kultur mailaren arabera itzultzen dira. Izendapen ilunak ez dira itzultzen: *Dresdeneke Staatskapelle*. Izendapen argiak badira, itzuli egiten dira: Berlingo Orkestra Filarmonikoa. Museoak, antzokiak, opera-antzokiak eta abar transferitu eta itzuli egiten dira: *Covent Garden, Metropolitan Museum of Art, Tate Gallery, Uffizi* jauregia... Unibertsalak bihurtzen direnean, naturaliza-

tu egiten dira: modernismoa, kubismoa, fauvismoa.

Itzulpen prozedurak

Mailegua, transkripzioa

Mailegatze prozesua bizpahiru urratsetan erabakitzen da, baina oso bilakaera luzea izan dezake. Mailegu gordinetik hasita, naturalizaziora edota kalkoa sortzera jotzen da. Askotan hitz berria eta zaharra bizikide gertatzen dira, eta erregistro bana hartzen dute, hala nola hizkuntza berezia (*cash-flow*) eta hizkuntza arrunta (irabazi eta amortizazioak). Hitza zabaldu ahala, hitzun komunitatearen onespina jaso eta hiztegian sartzen da. Ordurako, erregistroa galduta dago gehiengotan.

Mailegu lexikoek hizkuntzaren altxorra aberasten dute, bai formalki, bai semantikoki. Alde batetik, transliterazioaren bidez, SHko hitzaren forma XHko sistema fonologikoari egokituko zaio, hitz berriaren funtzio guztiak betetzea ahalbidetuz: hitza deklinatzea, beste batzuekin elkartzea, etab. Bestetik, XHk alor semantikoan izan dezakeen hutsunea bete egiten da, hau da, XHko alor semantikoa zabaldu egiten da, zehatzago eta adierazkorrago bihurtuz.

Maileguari dagokionez, badira zenbait prozedura SHko kultur hitzak itzultzeko:

a) Transferentzia. SHko hitza gordin-gordin hartzen da, inolako aldaketarik gabe. Testuak definitzen du terminoa, transliterazioa edota XHko sasiterminoa erabiliz, benetan ezer esan nahi ez duena, adibidez, *British Council*, Britainiar Institutua (?).

b) Etiketa. Termino arrotza kakotx artean jartzen da: "cappuccino" a. Gaur egun, letra kurtsiboa edo etzana erabiltzen da horretan.

rako. Kontuan hartu behar da zein den hitzaren bukaera, etiketa jartzerakoan: whisky *sour*, sour(ra), sour-a. Lehenengo aldiz agertzen denean, badago gidoia jartzea, izena ondo mugatzeko, baina behin agertutakoan, erre hizkia bikoiztu egiten da testuan. Izen arruntekin arazoa dugu: marra, letra etzana kendu... Hitzaren zati bat (letra etzanaz idatzia) hizkuntza emaileari dagokio, eta beste zati bat hizkuntza hartzaileari. Estetika arazoa ere bada. Beraz, honelako konbentziora iritsi beharra dago.⁴

c) Naturalizazioa. SHko hitza bereganatu egiten du XHk, transliterazio legeen bidez: *check* / txeke. Transliterazioa dela eta, euskal sistema erabili beharko genuke hitzak eta soinuak naturaltzeko (jurta / *yurta*), orain arte euskarara isuri ez diren soinuak egokitzeko. Bi eginkizun ditugu naturalizazioa aurrera eramateko: hotsak nola eman, eta transliterazio sistemak antolatu.

d) Neutralizazioa. Termino arrotzak neutralizatu egiten dira definizioaren edota azalpenaren bidez: *British Council*, ingelesa irakasteko eta zabaltzeko erakundea. Horrela, testuan azalduko da SHko terminoa eta honi lotutako azalpena, unitate osoa bailitzan, aposizioa edota erlatibozko esaldiaren bidez osatua. Ikus ditzagun honako adibideak:

- Aposizioa: ...*Mikado* operetaren doinu maitagarri horretan...

- Erlatibozko esaldia: Charliek *pneumatique* bat, zerbitzu bereziaz igortzen den eskutitza, aurkitu zuen...

- Partizipioa: dodoa, Maurizio irletan bizi zen hegazti iraungia.

- Parentesiak edo gidoiak, termino transferitua hitzez hitz itzultzeko: Tira, Doctors' Commonsera (Londresko Abokatuen Elkartearen egoitzara) joan beharko zenuke kereila jartzera...

Neutralizazioa oso baliagarria da mailegua eta errezetak batera emateko: Gustura hartu zituen *pancakesak*, irin-opil frijituak. *Spam*, urdaiazpikozko fianbre-potea. Whisky *soura*, azukrea eta limoia erantsitako edaria.

e) Izen sailkatzailea. Izen arrotzari erantsitako izen generikoa, terminoa mugatzeko: *baggy* prakak, *jeans* prakak. SHko erreferenteen forma eta funtzioak oso bestelakoak direnean XHko terminoen aldean, testuinguruko markatzaileak sartu behar izaten dira pasarte biblikoak argitzeko, Nidaren arabera. Literatur itzulpenetan, berriz, kontu handiz erabili behar dira, jatorrizko testua ez aldatzeko.

Elementu sailkatzaileak oso lagungarriak dira SHko terminoak ezezagunak direnean: rubi izeneko harribitxia, bataioaren erritua, gameluak izeneko animaliak... izan ere, rubia, bataioa eta gamelua ezezagunak izan daitezke kultura jakin bateko jendearentzat (Nida: 150). Nolanahi ere, beti aurkituko ditugu termino ezezagunak itzulpenak egitean: *palio* izeneko ospakizuna Sienan egiten dute urtero, eta hala ere, jende askok ez daki zer den telebistaz ikusi arte.

Testuinguruko markatzaileak erabiltzean, itzultzaileak bere arrastoak uzten ditu jatorrizko lanean. Hori dela eta, zilegi da galdezka zenbateraino alda daitezkeen edota al-

4. Pertsona izenak direnean, batzuetan izen generikoa eranstean zaie: Brodsky jaun, idazle, filosofo... Hauxe da helburua: batez ere hitzaren bukaera nolakoa den garbi jakin dezala irakurleak.

datu behar diren SHko terminoak itzultzean. Nidaren ustez, hiru baldintza bete behar dira aldaketak egiteko: 1) testua gaizki ulertzeko arriskua egotea, 2) testua zentzugabea suertatzea edota 3) itzulpena astunegia gertatzea.

f) Bikoizketa. Hitz itzuliari erantsitako aukerako hitza: *road-movie* edo errepideko filmea. Bitarteko urratsa da mailegua onartzeko edota XHko hitza nagusitzeko, aukerari uzten baitzaizkio biak irakurleari. Kasu honetan, bi bikoizketa mota ditugu: hitz batetik beste batera igarotzea (*bistro* edo taberna), edo bestela hitz elkarketa, kalkoaren bidez konpontzen dena: Karlomagnoaren Gurdia, edo Hartz Nagusiaren gurdia.

g) Oharrak. SHko terminoak azalpen luzea behar duenean, edota testuan txertatzerik ez dagoenean oin-oharrak erabiltzen dira: *Squire*⁵; «Goizez etorri naiz Parlamentu-trenaz».⁶

Bestalde, esaldi osoak itzultzeko ere oharrak erabiltzen dira, eta era berean, kantak, aho-korapiloak eta otoitzak azaltzeko: «Gradgrindar gaztetxoetariko inork ez zuen behin ere ulertu lelo tuntun hori, *twinkle, twinkle, little star; how I wonder what you are!*»⁷ Nolanahi ere, kanta ezagun-ezagunak badira (*Allons enfants de la patrie...*) beren hartan utz daitezke, testuan oharririk tartekatu gabe. Horrelako kasuetan irakurlearen kultur-eza-

gupen maila kontuan hartu behar da. Gai-nontzeko kasu guztietan, berriz, kanta eta ahapaldiak hitzez hitz itzuli ohi dira, eta aukerari dago oin-oharrak jartzea (originala erakusteko) edo ez: *Jesus, ez dut ahaztuko nola askatu ninduzun!*⁸

Halaber, STan atzerriko esaldiak sartzen direnean, egoki da oharra erabiltzea: «*Was wir Juden schon alles mitgemacht haben*»⁹, zioen maisu jaunak...»

Beste batzuetan, oharra testuan bertan txertatzen da, atzerriko hitz edo esaldiaren ostean. Hitzez hitzeko itzulpena izaten da, STan atzerriko hitzak oso markatuta daudenean.

Bi motatako oharrak bereizten ditu Nidak, Bibliako itzulpenez ari dela (Nida: 151). Batetik, egoera historiko jakinak aipatzen dituztenak. Kasu honetan azalpenak eta gertakizunak orri berean agertu beharko lukete; bestetik, ohar orokorrak, glosategian biltzeko modukoak, hala nola fariseoak, saduzeoak eta aipatzen dituztenak, edota pisu-neurriak biltzen dituztenak.

h) Glosak. Esamoldeak eta hitzak oso arrotzak badira, ezinbestean antolatuko dugu glosategia. Hitza lehenengoz agertzen denean, izar edo markaren bat agertu ohi da, baina gero testuan txertatu beharko litzateke. Bestalde, aipatu egin behar da orain arte

5. Nekazari arteko noblezia titulua, bereziki distritu batean lur sailik haundienak zituenari zegokiona (*Altxor uhartea*).

6. 1845ean Parlamentuak onartutako legeaz, tren konpainia bakoitzak miliako penny bat balio zuen tren zerbitzu bat ezarri behar zuen egunero (*Garai latzak*).

7. Herri anglosaxoietako haur kanta: «egin dirdir, egin, izartxo horrek; benetan jakin nahi nuke zein zaren» (*Garai latzak*).

8. *Zoaz mendira aldarrikatzera*. James Baldwin / Juan Mari Mendizabal (itz.). Ibaizabal, Euba, 1996. James Baldwinen eleberriaren pasarte honetan ez dago oin-oharririk. Eleberriaren jatorrizko titulua bera ere, alegia, *Go tell it on the mountain*, gospell kanta ezaguna da.

9. Zenbat sufritu dugun guk juduok! *Mundu mingotsa*. Josef Švorecký / Karlos Cid Abasolo (itz.). Alberdania, Irun, 1996.

euskaraz prestatutako glosategi gehienak euskarazko hitzak berak ulergaitzak direlako prestatu direla, hala nola Larrakoetxeak prestatutako hitz bilduma Shakespeareren antzerki lanen itzulpenean, edota Jokin Zaitetik apailatu ohi zituen glosategiak Sofoklesen tragediak itzultzean.

Nidaren arabera, SHko testuan implizituki agertzen diren elementuak esplizitatu egin daitezke XHko itzulpenean, baldin eta testua astunegi bihurtzen ez bada. Nolanahi ere, batzuetan mezua ulertzeko behar den informazioa ez dago implizituki SHko testuan. Horrela, informazio hori SHko kulturaren baitan dagoenean, ez da bidezkoa XHko testuan sartzea. Hobe da testutik kanpo aurkeztea informazio hori, bai glosategietan, sarritan erabilitako terminoak bilduz, bai oin-oharren bidez, ulertzeko zailtasunak agertu ahala (Nida: 219). Honelako zerbait egin dute Elizen Arteko Biblian, adibidez, ezkontza lebiratu-legearen arabera azaltzean.

i) Azalpena. Maileguari laguntzeko azalpena bikoizketaren antzekoa da, baina luzeagoa izan daiteke: Ez du ordaindu *copyright* ik, hau da, egile-eskubiderik.

Ikusten denez, mailegua erabiltzeko modu asko dira, eta ezinbestez etorriko zaigu burura honako galdera: mailegu gehiegi erabiltzen ote ditugu? Baliteke hala izatea, hedabideetan txango eginez gero, behintzat. Nolanahi ere, honetan bat gatoz Julio Cesar Santoyorekin. Irakasle espainiarrak dioenez, hizkuntzak bizirik daude eta hitz arrotzak bereganatzeko joera badute ere, hau ez da erraz gertatzen (Santoyo: 35). Lehenago, hitz arrotzak bere bidea urratu egin behar du, eta frogatu behar-beharrezkoa zaiela XHko hiztunei. Bestela, hizkuntzak behar ez dituen hitzak kanpora botatzen ditu, edota testu zaharren artean lurperatu.

Egia esan, euskarak askoz ere indar ahulagoa dauka gaztelera eta frantsesak baino, hitz arrotzei aurre egiteko. Auzo erderek alde guztietatik erasotzen diote: ingelesezko hitzak gaztelera eta handik euskarara igarotzen dira, edota bestela frantsesa bitarte heltzen zaizkio. Bestalde, gaur egun maileguak ingelesetik bertatik hartzeko joera berariazkoa dago. Non gelditu zaigu Santoyok eskaintzen duen konponbidea, hau da, XHk berak altxorreko hitza ekarri edo sortzea, geroago hiztunek erabaki dezaten mailegua onartzen duten ala ez?

Arazo honetan atzera egin genetzake eta garbizaleen *urrutizkinera* itzuli, nahiz eta oso adibide egokia ez izan *telefono* kultur hitzaren ordezkoko hutsala baita. Alabaina, latin eta grekeratik hartutako hitzak alde batera utzita, behar beharrezkoa da gaurko hiztunek ordezkoko hitzak aurkeztea maileguci aurre egiteko. Bestela, alferrik ibiliko gara hiletak jotzen. Hizkuntzak berak eskaintzen dituen baliabideak erabiliz, zenbait aukera ditugu kultur termino berriak sortu edota egokitze-ko. Aukera horien artean bi nabarmentzen dira:

a) SHko hitzak lehenagotik ere XHn baliokiderik badu, hau da, XHko hitza eta SHko hitza esanahi berekoak badira, XHko hitza erabiltzea SHko hitzaren ordezkaria. Horrela jokatzeko gomendatzen du Rafael Lapesak maileguari dagokionez.

Hori dela eta, Vidal Alva de Diegok DRAEtik hartutako zenbait adibide proposatzen digu, bai eta termino baliokideak ere (De Diego: 646). Guk euskarara egokitu ditugu, eta beste batzuk erantsi: *record* / errekor / marka; *sandwich* / sandwich / ogibitar-teko / otarteko; *comic* / tebeo / komiki; *chauffeur* / txofer / gidari; *boom* / boom / hazkun-

de azkarra; *hobby* / *hobby* / zaletasun; *yuppie* / *yuppie* / exekutibo / hirietako gazte profesionala; *abioi* / hegazkin / aireko.


Horren gainean zerbait aipatu behar da. Izan ere, gure ustez, atzerriko hitzen ordez proposatzen diren hitz guztiak ez dira esanahi berekoak. Adibidez, sandwich eta ogibitarteko: lehena, bereziki, moldeko ogiarekin egiten da, beraz, ogibitartekoa hitz generikoa dugu; sandwicha, berriz, azpikategoria batean sartuta dago. Bestalde, *yuppi* eta exekutibo (gaztelera halako mailegua proposatzen dute bestearen ordez) ez dira gauza bera, funtzio eta konnotazioei begiratzen badiegu: besteak beste, *yuppi* gazte profesionali dagokielako, eta exekutiboa enpresa-zuzendaritza taldeko kideei. Bestelako kontua da *yuppi* eta *sandwich* hitzek luzerako bizitza izango duten ala ez. Euskal hiztun komunitateak erabaki be-

harko du baliagarri, erabilgarri edota bestela ere, apaingarri eta arbuigarri ote diren.¹⁰ Zenbat eta unibertsalagoa izan kontzeptua, orduan eta onargarriagoa izango dugu euskaraz.

b) Aldez aurretik XHn dauden unitateak semantikoki egokitu, SHko hitzaren esanahia har dezaten. Adibidez: kondoi / preserbatibo (gaztelera dela medio), detektibe / ikerlari (Egunkariaren Estilo Liburua).

Hala ere, bigarren sail horretan berriz ere ageri dira latinetik jasotako hitzak, (detective = detectare, ingelesa dela medio), eta izen propio egokituak (XVIII. mendean bizi izan omen zen Condom izeneko doktore ingelesa). Beraz, lehengo gomendiora itzuliz gero, esan genezake ez dagoela zertan ordezkatu hizkuntza klasikoetan errotutako hitzak. Gainera, kasu hauetan sortzen zaizkigun hitz berriak ere anbiguoak dira, eta gehienez ere hitz zaharraren ondoan kokatzen dira, inolaz ere itzaltzen ez dutela: ikerlari (agian hobe litzateke ikertzaile) mota asko daude, hala nola Marie Curie eta Pasteur, baina Philippe Marlowe detektibea da hainbat hizkuntzatan, eta preserbatibo mota asko daude kondoiak bestalde.

Edozein kasutan, badirudi hitz pareok bizi-bizirik daudela, eta geroak esango digu zein gailentzen den. Batzuetan, bi terminoak atxiki daitezke, zein bere esparruan kokatuta, adibidez, preserbatiboa medikuntzarako utziz eta kondoi eguneroko hizkuntzan erabiliz. Honetaz, betiko moduan, hiztunek dute azken hitza, inongo gomendioak gora-behera.



10. Kasu batzuetan badirudi eremua nahikoa erabakita dagoela: aireko hitza 1956 agertu zen Iparraldeko testuetan hegazkina izendatzeko, baina ez da ia inoiz erabiltzen Hegoaldeko testuetan.

Euskal hitz berriak eratzeko mendebalde zein ekialdeko hiztunak hartu behar dira kontuan. Horrenbestez, nola erabaki maileguak gazteleratik edota frantsesetik hartu behar ote diren? Printzipioz, badirudi jatorrizko hizkuntzatik hartu behar direla, eta hori gehienetan ingelesa omen da. Beste kasu guztietan, frantsesa eta espainola tarteko, korapiloa zailagoa da askatzen. Azken urteotako hiztegietan islatzen denez, Iparralde eta Hegoaldearen arteko bideak banatzen ari dira, eta horrek arazo larriak ekarriko dizkigu orotariko hizkuntza ulergarriari begira.

Kalkoa

Honela definitu ohi da kalkoa: SHko egitura lexikoa XHko elementuen bidez kopiatzea. Hala ere, batzuetan XHko elementuak erabili arren, esanahia eta elementuen ordena SHkoa da. Nolanahi ere, XHko unitate berria sortzen du, gehienetan hitz soila baino konplexuagoa: *Thanksgiving* / Eskerre-gite Eguna.

Kalkoa errazago sartzen da XHn, batez ere fonologikoki eta grafikoki egokitu behar ez delako. Hori barik, XHko elementuez baliatzen gara kalkoak egiteko, baina konbinazio berezien bidez. Hori dela eta, hitzez hitzeko itzulpenaren adibiderik argiena dugu kalkoa, jadanik hiztegian ditugun hitzez osatua: *White House* / Etxe Zuria.

Nolanahi ere, kalko guztiak ez dira hitzez hitz egiten: *Berlin Wall* / Berlingo harresia. Izan ere, hitzez hitzeko bertsioa desegokia denean, edota konnotazio bitxiak dakartzanetan, aldaketak egin behar izaten dira: *photo-finish* / helmugako argazkia; *mesa redonda* / mahai inguru; *skyscraper*, *gratte-ciel*, *rasca-cielos*, zeru-harraskari / etxeorraz; *kindergartens* (al.) / *kindergarden* (ing.) / *jardin de infancia* (gazt.) / haurtzaindegia.

Kontuz ibili behar da kalko lexikoarekin. Zenbaitetan, presaka egindako kalkoak lehendik ere itzultitako hitzak estaltzen ditu: *Chamber of Representatives* / Ordezkarien Ganbara (EEBBetako Kongresua da itzulpen onartua, dagoeneko).

Bestalde, kalkoak ez dira berez gertatzen: hain zuzen ere, SHko neologismo edo hitz konbinazio berri baten itzulpenak dira. Hori dela eta, kalkoa ideia berri baten adierazpena da, ordura arte erabili ez den hitz-elkarketa baten bidez adierazia (Santoyo: 41).

Beraz, askotan —ez beti, ordea— kalkoak hitz elkarketa berria dakar SHn bertan. Kalkoaren mekanismoak metafora eta hone-lako baliabide estilistikoak dakartzkigu gogora; oso elementu antitetiko eta kontrasteoak ditu barne egituran, hizkuntza arruntean ezer esan nahi ez dutenak. Bestela, nola ulertu *marea beltz* edota *saskibaloia*ren esanahia? Zer ote da *zesta punta* hitzez hitz ulertuta, “saskimuturraz” bestalde? EEBBetan hala ulertu bide dute, izan ere, *jai-alai* metonimiaren bidez izendatzen baitute euskal pilotaren modalitate hori.

Metafora txikiak diren aldetik, kalkoak ez dira inolaz ere euskarara egokitu behar. Oso bestelakoak dira metafora fosilak, hau da, hizkuntzaren baitan pilotutako esamoldeak (*pull somebody's leg*, adarra jo), esapideak (*as a matter of fact*, egia esan) eta kalkoak (*new wave*, uhin berria).

Kalkoek ez dute kultura baten nagusitasuna adierazten, ez baitira oso lotuak hizkuntzaren jatortasunari. Lehen esan dugunez, metaforaren antzeko baliabide estilistikotzat jo genitzake. Hori dela eta, SHn bertan, kalkoak ulertezinak dira lehenengoz irakurtzen duen irakurlearentzat: zer esan nahi zuen *black tide* (marea beltza) kalkoak Eskoziako

nekazari batentzat orain dela urte batzuk, lehenengoz erabili zenean? Arazo nagusia SHko egitura eta XHko egitura ezberdinak izatea da: *science fiction*, *zientzia fikzioa*, *ciencia-ficción* da gaztelerez gaizki eraturako bikoitean, baina hala ere bidea egin du hizkuntza horretan eta gainera beste kalko batzuei atea ireki: politika fikzioa etab.

Kalkoak XHn bere bidea urratzen badu, fosilizatu egingo da, eta osagai lexikoak zcin antolaketa sintaktikoa ordezkazekin izango dira: *gerra hotza* bai, baina ez dugu *gerra berorik*. Bestalde, kalkoei larregizko beldurra ez izateagatik, esan dezagun oso baliagarriak direla Europako hizkuntzen estilo komuna garatzeko. Alde horretatik, nabaritzen da gure komunitateko hizkuntza gehienetan kalkoak ametitzeko joera.

Kalkoak egiterakoan jatorrizko hizkuntzari begiratu behar zaio. Tradizioak agindutakoaren bidetik: zinemagintzaren hizkera ingelesetik hartzen da, arte munduko hitz asko italiera eta frantsesetik, etab. Hori dela eta, auzo erdara batean (gaztelera, frantsesa) sortzen diren formulak itzultzeko, abantaila izango dute mendebaldeko edota ekialdeko hiztunek, kasuan kasu. Har dezagun, adibidez, faroltxo gorria (*farolillo rojo* / *lanterne rouge*) esamoldea. Kirolan erabiltzen da, batez ere, txirrindularitzan, eta aski zabalduta dago hedabideetan. Txirrindulari lasterketetan erabiltzen da, baina lehenagotik dator. Dirudenez, *lanterne rouge* Frantzian zabalduak hitz-elkarketa da, ibilgailu zaharren mundutik kirol ihardueretara eramana, ekin-tza jakin batean azkena dabilena adierazteko: *Dans une course, un classement, celui qui*

occupe la dernière place, par allusion à la dernière voiture d'un convoi, signalée par une lanterne rouge (Larousse: 2962).

Badago ordainik euskal kulturaren egoera eta kasu berean erabil daitekeenik? Bestela ere, kalkoa dugu irtenbiderik errazena. Jatorrizko esamoldea frantsesetik datorrenez, *lanterne rouge* hitz-elkarketa euskaratu beharra dago esamoldea osatzeko. Kalkoaren elementurik argiena *rouge* hitza da, gorri koloreari baitagokio. Ikus dezagun, bada, nondik datorren beste hitza, *lanterne*. Lanterna (latina) (< etruskoa) < Lampter (grekoa) (lanpara, argia). Nolanahi ere, tresna berezi baten izendapena da, hain zuzen ere, barruan argia duen kutxa-antzekoa. Aukeran zenbat hitz ditugu hitz hori ordezkatzeko: argimutil, eskuargi, argiontzi, kriseilu, argi gorria... Ikus ditzagun definizioak:

Argimutil: Kandelaren edo beste edozein argiren euskarria.

Argiontzi: Argi egiteko erregairen bat duen *ontzia*.¹¹

Eskuargi: *Beirazko ontzi* batean jartzen den argia, eskuan eramaten dena.

Farol: Material garden batez osatutako *kutxa-antzekoa*, barnealdean duen argia itzal ez dadin balio duena.

Kriseilu: Olioazko *argiontzi* metxaduna, zintzilikatze gako bat duena; kandela sartzen den ontzi gardenena, zintzilikatzen dena edo zintzilik eramaten dena.

Horrenbestez, kalkorik zuzenena farol gorria izan liteke, gaztelerezko faroltxo gorria alde batera utziz. Bestela, euskal altxorreko esamolde parekoren bat bilatu eta erabiltzen hasi. Nolanahi ere, horrelako eztabai-

11. Letra etzanak guk eginak dira.

da kamutsetan dihardugun bitartean, hiztunek hautua egin dute eta kalkoa txertatuta dago komunikabideetan eta hiztegietaraino heldu da. Adibidez, faroltxo gorria *Hiztegi entziklopedikoan* ageri da, eta EITBeko emankizunetan barra-barra entzuten da¹². Izan ere, kalkoak zabaltzekotan, ezinbestekoa da hiztegiek eta hedabideek eskaintzen duten laguntza. Berriz ere, arretaz begiratu behar zaie euskarazko prentsa eta hedabideei, hizkuntz egoeraren berri ematen digutelako, hala indarra nola ahulezia erakutsiz.

Analisi konponentziala, definizioa eta parafrasia

Honelako baliabideak erabiltzen dira SHko terminoak hobeto azaltzeko. Mailegu edota kalko hutsaz haratago daude, baina ez dira egokipenak ere.

a) Analisi konponentziala. Itzulpengintzari gagozkiola, honela egiten da analisi konponentziala: SHko hitz bat eta XHko hitz baliokide bat hartzen dira, elkarren arteko elementu komunak aztertzeko. Hitzok antzeko esanahia dute, baina ez dira guztiz baliokideak. Azterketa honetan hitz bien osagai komunak agertuko dira lehen, eta gero bata bestearengandik bereizten dituztenak. Gehienetan, SHko hitzak esanahi espezifikoa du XHkoak baino, eta itzultzaileak osagai semantikoak erantsi beharko dizkio XHko hitzari baliokidetza lortzeko. Adibidez: *yukata* / kotoizko kimono xumea, batez ere udan erabiltzen dena.

b) Definizioa. Neutralizazioaren antzekoa da, baina kasu honetan termino arrotza eza-

batu egiten da itzulpenean. Horrela, testuan azalduko da SHko terminoari lotutako azalpena, unitate osoa bailitzan: *Halloween* / Domu Santu egunaren bezpera; *Yom Kippur* / Garbai Eguna; *Thanksgiving Day* / Eske-rrerite eguna. Hitzez hitzeko itzulpena izan daiteke, edo bestela azalpena ematen duena, ospakizunen izen deskribatzailea: *Memorial Day* / Maiatzaren azken astelehena, gerran hil direnei EEBBetan egiten zaien omenaldi eguna.

c) Parafraasiak bi motatakoak dira: a) Hitz eratorriak erabiliz egindako parafrasia: *Terraced gardens / implantés en terraces* / terrazatan kokatutako lorategiak; b) Hitz solteak erabiliz egindako parafrasia: *You can even dine 'al-fresco' in the summer on our open air terrace*. Gainera, udan gure terrazan eseri eta kanpoaldean afal daiteke.

Nidak zenbait muga ezartzen dizkie testuan egiten diren parafraisi eta gehikuntzei. Inolaz ere ez dira itzultzailearen gogora erabili behar: dagokion pasartean inplizituki agertzen dena baizik ez da azaldu behar testuan. Ezin dira erantsi datu kulturalak, nahiz eta interesgarriak izan, itzultzen den pasarteko hitzen zentzuan isladatzen ez badira. Halaber, ezin dira erantsi testuaren beste pasarteetatik hartutako informazioak, eta are gutxiago kanpoko testuetakoak. Nida Bibliako itzulpenaz ari da, baina azalpen horiek oso egokiak dira literatur lanetarako ere (Nida: 152).

d) Mailegua + edukiaren aipamena: hainbat hilabetez ez zen joan *mikvahra* bere burua garbitzera. Azken hiru hitzak gainera-

12. Elhuyar Hiztegiak (Gaztelera/Euskera), berriz, honako hitzak dakartza farolillo rojo itzultzeko: atzen, azken, azkeneko (saillapenean, bereziki txirridularitzan). Hiztegia 3000: farolillo rojo: azkena.

tu zaizkio itzulpenari, *mikvah* horren funtzioa azaltzeko. Kulturen arteko arazoa da hori, eta esanahia argi uzteko, ezaugarri nagusia esplizitatu egiten da. Fauna eta flora oso bestelakoak badira, irakurleak ez dauka errealitate horren presentziarik. Gauza bera gertatzen da adjetiboak esplizituki azaltzen direnean, nahiz eta jatorrizkoan ez ageri: *las mariposas de Muzo* / Muzoko tximeleta *urdinak* (Nerudaren poema baten itzulpena).

Lehen ere ikusi dugunez, Nidak zabalkuntza lexikoak onartzen ditu testuan agertzen diren elementu arrotzak markatzeko edota sailkatzeko. Itzultzaile estatubatuarak honela sailkatzen ditu zabalkuntza lexikoak: 1) sailkapenak, 2) ordezkapen deskriptiboak, 3) berregituraketa semantikoak.

Sailkapenak sarritan erabiltzen dira, beti ere jatorri arrotzeko hitzen bati erreduantzia semantikoa emateko, irakurleak hitzaren forma edo funtzioa uler dezan: Jerusalem hiria, fariseoen sekta. Ordezkapen deskriptiboak SHko esapideak baino luzexea goak izaten dira, zenbait elementu lexiko elkartu behar baitira dagokion objektu edota gertakizunaren forma eta funtzioa deskribatzeko. Hala, sinagoga hitza "juduek kulto erlijiosorako erabiltzen duten etxea" deskribatzen da. Hala ere, SHko esapide batzuk oso trinkoak dira, eta zabalkuntza handiagoa behar dute XHn. Honelakoetan, egitura semantikoak itxuraldatu egiten dira, azalpenak emanez edota bestela, oharren bidez (Nida: 218).

Egokipena

Egokipena XHko kulturaren erreferentziak erabiltzea da SHtik datozenak ordezkatzeko, inolako aipamenik egin gabe. Oro har, egokipena haurrentzat edo irakurle berezien-

tzat prestatutako testuetan agertzen da. Euskal itzulpengintzak badu alor berezia jorratua honetaz (*Irakurmendi* saila Elkarren, *Mikoleta* saila DDBn). Berez, ez da literatur orokorraren prozedura, baina batzuetan topo egiten dugu berarekin. Nolanahi ere, egokipen prozedura batzuk literatur testu guztietan agertzen dira:

a) Kultur baliokidea: *Bachelor's Degree* / lizentziatu; *coroner* / forentse; *sandwich* / ogibitarteko.

b) Hitz generikoa erabiltzea (egokipen semantikoa): *Shampoo the hair* / Ilea shampooz garbitu. *Condom* / preserbatibo.

c) Hitz neutroagoa erabiltzea (egokipen semantikoa): *He lives in a croft.* / Etxola batean bizi da.

d) Itzulpen onartua: *Basque Studies Program* / Renoko (Unibertsitateko) Euskal Mintegia. Itzulpen finkatua erabiltzean konnotazio eta denotazioen arazoa dugu, haren bidez kultura bakoitzaren izakera agerian jartzen baita.

Batez ere, testu neutro eta zabalkunde mailakoetan erabiltzen da egokipena, kulturaren zama hain astuna ez denean. Literaturan, berriz, egoerak eta gertakizunak markaturik ez dauden narrazioetan. Jatorrizko testuaren pertsonak, lekuak, erakundeak eta fantasiazkoak direnean, errazagoa da egokipena. Horra hor, adibidez, umeentzako ipuinak eta haur literaturaren jolasak: zenbatzeko formulak; hitz arrotzak (*vicar* / bikario hitzaren orde, apaiza hitz generikoa erabili). Haur literaturako itzulpenetan, adibidez, askotan aldatzen zaie izena pertsonaiei, SHn hitz jolasak eta egiten direnean.

Bestelako testuetan, testuingurua zenbat eta neutroagoa izan, hainbat eta errazagoa da egokipena. Horra hor *A cup of tea in Pam-*

plona, Robert Laxalten eleberraren izenburua. *Kafea hartzea Iruñean* itzuli behar izan da, esaldiaren testuinguruak hala behartzen duelako: mugazainak kontrabandista bati galdetzen dio ea zertara doan Iruñera, eta erantzuna xumea bezain ironikoa da: kafea hartzera. Gure artean nahikoa bitxia litzateke tea hartzera joatea Iruñera, Hemingwayren pertsonaiaren bat ez bada, behintzat. Horrenbestez, kultur arteko hutsunea zegoen eta esaldia egokitu egin behar izan da.

Hala ere, testuingurua oso markatuta badago, arazoak sortuko zaizkigu. Errealitate historikoa oso garrantzitsua da testuak ulertzeko. Hori dela eta, ez dago aldatzerik pertsona, leku edota erakunde historikoen izena.

Bestalde, egokipena testuinguru kultural batean oso markaturik agertzen bada, anakronismoak gertatzen dira: Orixek hala egin zuen, Kanaango ezteietan txistulariak zirela esanez. Testuinguru ahistoriko batean, egin liteke, kokapen historiko-geografikotik kanpo badago. Bestela, kakofonia erreferentziala da.

Honetaz ari garela, Nidak sinbolismoaren arazoa dakarkigu gogora. Gertakizunen esangura historiko eta sinbolikoa oso kontuan hartzekoak dira teknika markatzaile eta zabalzaileak aztertzean. Sinbolo unibertsalak, hau da, analogiaz zabaltzen diren egoerak adierazten dituztenak ez dira zertan hitzez hitz itzuli. Kasu honetan egokipenak bilatu behar dira eta beste kultura batean ondo txertatzen diren sinboloak, hala nola Bibliako mahatsen kontuan (Jn 15). Beste batzuetan, berriz, herri jakin bateko sinboloak direnean,

hau da, herri batek garatu duen egoera sinboliko baten adierazgarri, tokian tokiko izendapenak atxiki behar dira, hala nola pikondoa (Mt 11, 12-14) juduen ugalkortasun ezaren sinboloa baita. Beste horrenbeste gertatzen da ardiak edota antxumeak aipatzean, juduen sakrifizioetan eginkizun nagusia betetzen baitute (Nida: 150).

Egokipenak egitean sortzen den beste arazo bat baliokidetzarik eza izaten da. Nola egokitu: *he has a sincere, Abraham Lincoln voice?* Kasu honetan, gainera, jatorrizko pertsonaia ezaguna da, baina ezezaguna denean, askoz ere zailagoa da identifikazioa. *Abraham Lincoln voicek* ikaragarri iradokitzen du, beraz arriskutsua da halako gauzak argitu nahi izatea.¹³ Hori bai, ohar batean azal dezakezu Abraham Lincoln nor den, ezezagunegia bada. Baina autoreaz aparte, eta autoreak berak ere bere iritzia izan dezake, nor esan dezake zein eduki semiko daukan *Abraham Lincoln voicek*, zein da horren analisi konponentziala? Literatura horretan oinarritzen da. Testuak ez dira monosemikoak, interpretazio bakarrekoak: horretan datza literaturaren subjektibitatea.

Beste batzuetan aldaketa horiek lexikalizatuta daude: Perogrullo, Pernandoren egiak, pellokeriak esan... hor lexikoan sartuta daude. Tarteko gauzak ere badira: Don Juan, Casanova eta Rasputin. Badute elkartasunik, baina historikoki oso bestelakoak dira, eta batzuetan funtzionatzen dute, besteetan ez.

Kultur terminoak egokitzeotan, jatorrizko erreferentzia identifikatuta egon beharko da. Batzuetan, identifikazio zehatza lortzeko, SHko terminoak eta definizioa elkarrekin

13. Xabier Mendigurenen oharra.

agertuko dira, hala nola EEBBetako kalifikazio sisteman: A+, bikain, A, oso ongi, etab. Termino juridikoen itzulpena egiteko, adibidez, gehienetan itzulpen morfologikoaren bidez egiten da, edota definizioa erantsiz: *District Attorney* / Barruti fiskala.

Bestalde, ez da ahaztu behar testuan erabilitako prozedurari eutsi egin behar zaiola. Ez da komeni testu berean egokipenak hemen, hitzez hitzeko itzulpenak hor eta jatorrizko hitzak han aurkitzea pertsonaia eta erakundeen kasuan, adibidez.

Nolanahi ere, badirudi egokipenak batzuetan arrakasta izaten duela, eta hortaz, halako elementu berriak sortzen dituela XHn, elementu zaharren bidez adieraziak. Horrelakoetan, konnotazio ezberdinak ez badituzte, elementu berriak itzulpen kasu berezizat hartzen dira. Bestalde, onartutako itzulpen ezagunak hizkuntzaren altxorren sartzen dira: *Supreme Court*. Epaitegi Nagusia (EEBB). *Basque Studies Program*. Renoko (Unibertsitateko) Euskal Mintegia.


Bestelakoak

a) Irudiak erabili. Erreportaietan eta komunikabideetan erabiltzekoa. Babes grafikoak azalpenak ematen ditu, eta batzuetan ez dago zertan itzuli kontzeptua. Haur literaturan ere erabilgarria da, batez ere, parafraasi luzeak ez erabiltzeko.

b) Ezabakuntza (elipsia): elementu linguistikoak (metaforak eta indartzaileak) kendu testu arruntetan. Esanahi proposizionala aldatzen ez duten elementuak ezabatu egiten dira, testuak informazio-galerarik jasan gabe. Literatur testuetan, berriz, kontuz ibili behar da elementuak ezabatzerakoan. Kanpoan utz daitezke erredundantzia soilak, hau da, elementu sintaktiko eta lexikoak di-

ren aldetik, baina kultur elementuak badira, ahaleginak egin beharko dira nola edo hala emateko.

c) Testuinguruaren arabera itzuli. Hitz batek esanahi anitz dituenean, kasuan kasuko itzulpena eman dakiok. Alabaina, hitz esanguratsuak testuaren giltzarri bihurtzen badira, orduan oinarritzko kontzeptuei egokitura itzuli behar dira. Halako zerbait gertaten da kontzeptu filosofikoekin.



Baliokidetzak deskriptibo-funtzionalak (ohiturak eta keinuak)

Bi bide ditugu keinu eta ohitura arruntak itzultzeko: deskripzioa eta funtzioa. Keinu edota ohituraren funtzioa anbiguitatea argitzeko emango da: kapela *ikutu* baietz esateko, *erpurua atxiki* zeozter ondo dabilela esateko. SHko kultura eta XHkoa elkarrengandik aski urrunduta badaude, honelako azalpenak ezinbestekoak dira:

«...etxeko garbiketa gainerako Urte Zahar egunetan baino askoz arinago amaitua zegoela ohartu zen».¹⁴

«...aurpegia *ur gaztetan* igurtzi ondoren...»¹⁵

Hainbat ohitura eta usadio, hizkuntza arruntaz deskribatuak, baliokide deskriptibo eta funtzionalen bidez ordezkatu behar dira, zeren hitzez hitzeko itzulpenak zentzu okerra emango bailuke. Adibidez: *nod* aditz ingelesa, baiezkoa egin zuen, baietz egin, buruz baiezkoa egin edo halako zerbaitez deskribatu ahal da; hitzez hitzeko itzulpena, berriz, buruari gora eta behera eragitea da.

Hizkuntza batzuk besteak baino deskriptiboagoak dira. Horrela, hizkuntzaren maila hori zaindu egin behar da, handik aurrera ez pasatzeko. Esaterako, *dijo, exclamó*, etab. alemaneraz askoz esplizituagoak dira, eta ingelesera pasatzerakoan ez dira denak igarotzen. Hizkuntza bakoitzak zenbait konbentzio sartu ditu. Azkenaldion idazleak konbentzio horiek lantzen ari dira, eta itzultzaileok ezin gara joan askoz aurrerago. Idazleak ere sortzen ari dira itzulpenetatik edo behartuta, eta denok ari gara gauza bera lantzen. Ez dugu gelditu behar tradizioan, baizik aurrera egin, dosifikatuz, ea testuak ondo korritzen duen. Gauza bera egiten da ingelesetik euskarara: *say sei* aldiz agertzen bada, aldatu egingo dugu. Testuak ez luke nabarmendu beharko, euskal prosagintzan normal korritzen duena beharko genuke. Nolanahi ere, aukera estilistikoak ere badira: Carverren *Katedrala*.

Esamoldeak

Esamoldeek eta atsotitzek kultur hitzen esparru berezia osatzen dutela esan genezake. Izan ere, kultura jakin baten antolaketa eta mundu ikuskeraren berri ematen digute, nahiz eta kultur hitzak eta hitz unibertsalak nahasian erabili. Hain zuzen ere, gehienetan elementu unibertsalez osatutako sintagmak dira, baina guztiz esanahi bereziak dituzte, metafora, hiperbole eta bestelako baliabide estilistikoen antzera: *it's raining cats and dogs* / goian behean euria ari du.

Argi bereizi behar ditugu esamolde eta atsotitz horien esparrua eta kalko eta esamolde berriak. Batez ere, kultur zama handia daukaten esamoldeez ari gara, baliokide errazik ez daukatenak.

Kalkoak elementu berritzaileak dira hizkuntzaren bilakaeran; esamoldeak eta atsotitzak, berriz, elementu finkatzaile bihurtu dira denboraren poderioz. Izan ere, kultura bakoitzak eremu bereziak aukeratzen ditu bere mundu ikuskera adierazteko, eta hortik sortzen dira hainbat konparaketa, esapide eta esamolde. Horrenbestez, esamoldeek metaforaren antzeko funtzioa daukate, nahikoa adierazgarria, eta sarri askotan hitzez hitzeko itzulpenetik urrundua: *it's a piece of cake* / oso erraza da.

Honetan itzultzaileak lan handia egin behar du XHko baliabideak ondo ezagutzeko. Hiztegiak, zerrendak eta era guztietako tresnak erabili behar ditu, XHko sistema ahulduko ez bada SHko esamolde artotzek

14. Xabier Mendigurenen oharrak.

15. Urte amaieran etxeari goitik beherako garbitu bat emateko usadioa dago, hartara urte zaharrarekikoak egin eta Urteberriari abegi ona behar bezala egin ahal izateko (*Arratsaldeko aroiuntzia*).

higatua. Beraz, usadiozko esamolde eta atso-titzak aurkituz gero, hizkuntzaren altxorrera jo beharko dugu antzeko esamoldeen bila.

Bestalde, kontuan hartu behar da esamoldeak etengabe berriztatzen direla, berriak sortu eta zaharrak finkatu (edo desagertu) ahala. Esamolde berri asko klitxe hutsak dira, eta ez dira usu erabiliak literaturan. Esamolde edo klitxe horiek batez ere kazetaritzan erabiltzen dira, eta funtzio adierazgarria galdu dute.

Newmarkek metafora topiko edo klitxeak deritze. Ikertzaile horren arabera, klitxe horiek ez dute eginkizun estilistikorik, baina konbentzio huts bihurtu dira SHn bertan. Horrenbestez, XHn honelako konbentzioak erabili edo asmatu beharko dira parekotasuna lortzeko. Besterik ezean, zentzuzko itzulpena egin daiteke, SHn ere metaforak indarra galdu duelako: *a politician who had made his mark* / bere aztarna utzi duen politikaria, eragin handiko politikaria, ospe handiko politikaria izan daiteke. Halako zerbait gertatzen da askotan hedabideetan. Literatura itzultzean, berriz, oso garrantzitsua da SH finkatuaren eremua ondo bereiztea, honelako eremua euskaraz ere finkatzeko.

Atzerriko hitzak jatorrizko testuan

Idazleek askotan erabiltzen dituzte atzerriko hitzak literatur lanetan. Helburuak, ustez, estilistikoak dira, eta beti ere efektu bereziren bat lortzeko irakurlearen gogoan. Horra hor, adibidez, kultur maila jasoagoa adieraztea: ingelesek frantsesa erabiltzen dute horretarako. Bestalde, pertsonaiak karakterizatzeke erabiltzen da. Halaber, atzerriko kulturaren lekuko izategatik edota kulturen

arteko hutsuneak eta berezitasunak nabarmentzeko. Nolanahi ere, idazlearen zeregina gehienbat estilistikoakenez, XHko irakurleak nekez antzemango dio itzulpenean, baldin eta itzultzaileak horren baliokiderik aurkitzen ez badu.

Baliokide zehatzaren bila eta bila ibilita, itzultzaileak bi motatako arazoak topatuko ditu aurrean: alde batetik, SHko testuan lortutako efektua aurkitu, neurtu, baloratu, eta deskribatu (zernolako eragina duen, batez ere); bestetik, XHak eskaintzen dizkion baliabideak aztertu, SHkoekin konparatu eta erabaki ea baliokideak diren. Har dezagun *dilettante* italierazko hitza: ingelesak *dilettante* mailegutzat hartu du, frantsesak ere *dilletante*, eta gaztelaniak *diletante*, euskaraz beste horrenbeste egin dezakegu: diletante mailegua hartu.

Hala ere, askotan hitz maileguak bere bidea egiten du, jatorrizko esanahitik alden du arte. Orduan, *false friends*, *faux amis*, edota adiskide aizunak deritzenak sortzen zaizkigu: *sensible* (Ing.) arrazoizkoa edota zentzuzkoa da, eta ez sentibera; *espanto* / *espan-tu*, *retórica* / *erretolika*, *fantasía* / *fantasia*, *acción* / *azio*.

Zientzian kontzeptu berriak izendatzearen (*modem*) erabiltzen dira hitz arrotzak. Hizkuntza arruntean, berriz, baliokidetzarik ez dagoelako. Egia esan, zenbat eta unibertsalago izan hitza, hainbat eta aukera handiagoa izango da baliokidea aurkitzeko: (*cus-cus*, *kefir*, *porridge* / olo-ahia). Talo hitza generiko bihurtu da, dela artirinezkoa zein galirinezkoa... Edozein kasutan, idazleak jatorrizko lanean erabiltzen dituen hitz arrotzak berdin eman genitzake itzulpenean, galera estilistikorik ez sortzekotan.

Local color (*Tokian tokiko hizkera*)

Ikusi dugunez, tokiko hizkera jasotzearen hitz arrotzak erabiltzen dira. Halaber, giro literario eta markatuaren ezaugarriak isladatzeko, jatorrizko elementu linguistikoak gordetzen dira: a) tratamenduak, lanbideak eta tituluak: Mr., Mme., Herr, gendarme, Lord... b) tokien izen generikoa: Oxford Street, Madison Avenue... c) beste hizkuntza batetik datozen pertsona-izenak: Moshé, Sri Thanonchai... d) agurra, kortesia-formulak, zinak: bye, ciao, danke... e) hitz kuttunak (familia, erlijioa): mamusha, mom, ma... f) neurriak: miliak, yardak, librak, oinak; monetak: zentaboa, lira, libra... g) izen berezi eta markatuak: *Abraham Lincoln*, *sincere voice*...

Testu gehienak markaturik daude: garaia, lekua eta kultura jakin bati dagozkio. Ezauzgarri horiek badute zerikusirik estilo eta esanahiarekin. Toki-denborazko markatzaileek bizitasuna eta adierazkortasuna ematen diote kontakizunari (Altxor uhartea), edota esanahiaren osagai funtsezkoak dakartzate testura (*Jivago* doktorearen Errusia). Itzultzean elementu markatzaile horiek hein batean gordeko dira. Beste batzuetan, neutralizatu egiten dira, eta zenbaitetan, egokitu ere bai (antzerkia, haur literatura, publizitatea).

Markatzaileak agertzeko arrazoi nagusia estiloa da. Markatzaileak gutxitu eta egokitzeko arrazoia, berriz, irakurlearen ulermena. Esaterako, yiddishez idatzitako nobela bat ondo ulertuko dute EEBBetako juduek (adina eta jatorria gora-behera). Ingeleszko bertsioa ongi samar ulertuko dute ingelesez mintzatzen diren judu estatubatuarrek, baina beste iparramerikarrek ez hain ondo, jatorrizko erreferentziak beren hartan uzten

badira, behintzat. Era berean, Atxagaren *Obabakoak* ondo ulertuko dute euskaldunek, eta nahikoa ondo gazteleraz edo frantsesaz dakiten euskal herritarrek, baina ez hain ondo gazteleraz eta frantsesaz irakurtzen duten irakurle espainiar edota frantziarrek. Arazoak askoz ere larriagoak lirateke *Garoa* edota *Peru Abarka* itzultzean (baita gaur egungo euskaldun askorentzat ere). Beste adibide bat, Robert Laxalten eleberriena da. *Sweet Promise Land* (*Dominique*, euskarazko itzulpenan) ondo ulertuko dute ingelesez irakurtzen duten EEBBetako euskaldunek, bai gaiagatik, bai hizkuntzagatik. Beste irakurketa maila izango da cuskarara itzulita, euskaldunek jasotzen dutena. Beste maila bat, agian tartean dagoena, ingelesez irakurtzen duten euskaldun estatubatuarrek osatua da. Nola ulertuko dute ingelesez dakitenek eta cuskaraz dakitenek? Zer esanik ez, gaztelerara edo frantsesera itzuliz gero, frantses eta espainiar irakurleek fiabardura franko huts egingo lukete.

Ontorioak

Hasieran aipatu dugunez, kultur hitzen esparruak beste bi multzo ditu bere ondoan: hitz unibertsalak eta idazlearen idiolektoa. Idazlearen idiolektoa espresabide berezia denez, figura literarioz hornitua agertu ohi da. Horrenbestez, kultur hitzak eta hitz unibertsalak bereiztean sortzen dira arazoak. Esanenezake kultur hitzek mundu ikuskeraren arazoa dakarkiotela itzultzaileari, kultura jakin bateko adierazpideak nabarmenarazten dituztelako. Tokian tokiko hizkerak kultur bizitasuna ematen dio itzulpenari. Zenbaterainokoa den neurtzea bestelako kontua da, ordea. Emaitzak oso aldakorak dira, generoak eta erregistroak anitzak direla kontuan

hartzen bada. Horra hor, bestalde, jarrera etnozentrikoa, egokipenaren bidez dena konpontzen duena.

Era berean, gaur egun gero eta arrunta goa da hainbat hitz nazioarteko agertzea hizkuntza guztietan. Kulturen arteko lehia eta elkarbizitza dela medio, kultur hitz asko unibertsal bihurtu dira: faxa, vodka. Noiz aldatzen dira hitzak kategoriatatik batetik bestera? Ibilbide honetan garrantzi handia dute hitzaren erreferenteak eta testuinguruak. Honela, erreferente zehatza duten hitzak (*sandwich*) nola edo hala deskribatu ahal izango dira, egokitu edota maileguaz ordezkatu. Nolabait esateko, erreferentearekin batera sartuko da hitza XHn. Alabaina, hitz abstraktuak edota iritzizkoak (*perestroika*) testuinguruan kokatu beharko dira, edota oharren bidez azaldu, eta nekez txertatuko dira XHn erreferente ukigarriak ez.

Halako bilakaera astirotsuagoa zein lasterragoa izan daiteke, hainbat gorabeheraren arabera. Nolanahi ere, ibilbide horretan sartzen dira bi bitartekari nagusi: mailegua eta kalkoa. Kalkoa eta mailegua elkarren ondoan bizi dira, eta ez dago beti jakiterik zein den egokiena. Gainera, hizkuntza batetik bestera aukerak ere aldatu egiten dira. Esaterako, aizkolariak *woodchoppers* dira ingelesez, baina *aizcolaris* gaztelaniaz. Bestalde, (eskuko) pilotariak *handball players* dira ingelesez eta *pelotaris* gazteleraz. Euskaraz *ihardunbide* hitz elkartua (XIX-XX. mendea) sortu da Iparraldeko *prozedura* (XVIII. mendea) esateko. Era berean, *chemin-de-fer* frantsesetik abiatuta *burdinbide* eratu da, *trenaren* alhoan tirrikittarraka dabilena.

Kalkoak hizkuntzen arteko komunikazioa errazten du, hizkuntzak elkarrengana bul-tzatzen dituelako. Hala ere, prozesu horre-

tan hizkuntza indartsuen nagusitasuna nabarmentzen da, alegia, ingelesa, frantsesa eta, geure kasuan, gazteleraren nagusitasuna. Ikusteko dago euskara higituegi ote dagoen hainbeste kalkoren artean, baina gaur egun ezinbestekoa da kalkoak erabiltzea hizkuntza berezituetan, behintzat: hedabideetan, zinemetan, teknikan, administrazioan. Abstrakzioa egiten duten hizkuntza mota horietan kalkoa da biderik zuzenena hizkuntza batetik bestera itzultzeko. Izan ere, kontuan hartu behar da premiak hizkuntza ekin-tzak egiten direla aipatu hizkuntzetan, inolaz ere akademiaren erabakien zain egoterik ez daukatenak.

Bestelakoa da literatur sorkuntza eta herriko hizkeraren kasua, baita zuzenean egiten diren irratsaioena ere. Agian hor euskarak bere gisako esparrua du, eta horregatik azaltzen du bere mamia, hizkuntzaren mui-netik datorkiona. Horri eutsi egin behar zaio, eta horretarako daude hamaika esamolde eta adierazpide, hitzetik hortzera entzuten ditugunak. Nolanahi ere, gaiak hala behartzen bagaitu, kalkoak eta hitz berriak ekarri beharko ditugu hizpidera, tentuz ekarri ere. Oso zaila da, dena den, orekari eustea, batez ere, eguneroko hizketaldietan interferentziak ezinbestekoak direlako. Hiztuna erregistro batetik bestera igarotzen da, eta batzuetan ustekabean erabiltzen ditu kalkoak eta maileguak behar ez den erregistroan.

Maileguaz baliatzea erabakiz gero, kontuan hartu beharko da zernolako tratamendua ematen zaion hitz arrotzari. Ikusi dugunez, transferentzia soila eginez gero, letra etzanaren arazoa daukagu: noiz eta nola markatu neologismoa edota barbarismoa, nola deklinatu, etab. Bestalde, mailegua transliterazioaren bidez egokitzean, euskara-

ren fonologi legeak gorde behar dira. Era berean, ortografiari buruzko gomendioak Euskaltzaindiak plazaratutako txostenetan ageri dira.

Horrez gainera, horra hor zenbait faktore eragile kanpoko hitzak onartzeko baldintzak erraztu edo zailtzen dituztenak: Euskaltzaindiaren erabakiak, hiztegi arauemaileak, hedabideak, egoera soziolinguistikoa, literatura tradizioa, hizkuntz baliabideak, etab.

Euskarak eguneroko erronkei aurre egingo badie, hainbat alorretan garatu beharko du hiztegia, hitz unibertsalak bereganatuz eta kalkoak sortuz. Besterik ezean, hizkuntzaren baitan dauden baliabideak erabiliz, esamolde berriak sortuko dira hizkuntzaren bizigarri. Kontuak kontu, galdera asko egin litezke horren gainean: zein da euskararen erabilera eremua gaur egun, eta euskal hiztunen esparru nagusia? Nork sortu behar ditu halako esamoldeak: Euskaltzaindiak, batzorde bereziren batek, hedabideetako langileek edota idazle-itzultzaileek? Nondik atera behar dira paralelismoak: kiroletik, baserritik, hiriko mundutik, lan mundutik, bertsolaritzatik edota literatura klasikotik?


Euskaraz baliatzen garenon esparrua nahikoa mugatua denez, hitz batek bere bidea urratuko badu, hobe du inoren autoritatean bermatu munduan zehar ibiltzeko. Euskararen kasuan, besteak beste, hona hemen autoritateak: Euskaltzaindia, hiztegiak, hedabideak, eta, azken baina ez hutsen, idazleak.

Sailkapen horretan ez dira itzultzaileak ageri. Izan ere, leku guztietan sakabanatuta daude. Hedabideetako lan gehiena itzulpena da, hala nola hiztegi eta entziklopediak paratzea, bai eta idaztea bera ere kasurik gehienetan.

Agidanez, euskarak ere baditu hizkuntzaren sortzaileak eta hedabideak hitz edo kalko berriak sortu eta egokitzeko. Gainera, hizkuntz politika hartara egokitu, eta dauden baliabideak (datu-baseak, hiztegi informatizatuak, testu-prozesatzaileak, hedabideak, euskaltegiak, akademiak, bazkunak) zuhur erabiliz gero, hitzen bizitza bermatuta egongo da. Izan ere, hiztegia nora idazleak hara, edo bestela esanda, euskararen inguruko erabakiak nora, idazle-itzultzaile-irakasle-eta abar guztiok hara. Beraz, kanpoko uholde arrotzari muzin egin baino lehen, abian jarri beharko ditugu eskuartean ditugun baliabide guztiak, hizkuntzaren pobretze horretan eroriko ez bagara.

Bukatzeko, hala nola hitz unibertsalak eta kultur hitzak bereizi egin behar baitira, halaber bereizi behar dira hedabideetako euskara eta literatura hizkuntza. Literatura testuetan zilegi dira eguneroko hizkuntzan gertatzen ez diren anbiguetate, arrotzasun eta ñabardurak. Bakerren sailkapenaren ildotik, esan dezagun hizkuntza literarioak indar gehiena hartzen duela esanahi espresibo eta ebokativotik. Hedabideetako hizkuntza, ostera, esanahi proposizionalari atxikiagoa da. Hori dela eta, hizkuntz jolasak askoz ere ausartagoak izango dira literaturan, kazetaritzan baino.

Nolanahi ere, hiztunen ikuspegia eta hizkuntzaren erabilera eremuak zabaldu ahala, argiago geratuko da mailegu eta kalkoen eragina eguneroko hizkuntza landuan. Bitartean, haztamuka ibiliko gara, atek itxiz mesfidantzaz kalko eta maileguei, beharrezkoak badira ere, edota kontrako muturrean, uraga irekiz hitz arrotzen uholdea parrastran sar dadin.



Adibideak

Altxor uhartea

- ...ohol gaineko paseoak(*)... (Itsas-lapurrei ezarri ohi zitzaizen zigorra).
- ...beste arriza bat zabaldu(*)... (Belamenduaren zabalera haunditzeko maniobra).
- ...lugger(*) (Hiru mastako itsasuntzia).
- ...Bizarbeltz.
- Trinketa Muinoa, Eskeletu Uhartea, Katalaxuko Muinoa, Mesana Muinoa, Bolinako Punta.
- ...Aingura Zahar ostatua...
- ...*Admiral Benbow* untzia...
- ...*Royal George* ostatua...
- ...*Katalaxu* ostatua...
- Gila azpitik pasacraztea(*)... (Inor uretan arrastaka eramatea, soka bati lotuta, itsasuntziaren gila azpitik).
- ...Old Bayleko(*) epaile bat... (Londreseko auzitegia).
- ...Bow Streeteko(*) polizia bat... (Londreseko polizia etxe nagusia kale hartan zegoen).
- Bietako bat txistuka ari zen *Lilibullero*(*) izeneko kanta. (Katolikoen kontrako balada bat, XVIIgarren mendearen bukaera aldera kantatzen zena).
- ...biok iola(*) hartu eta lehorra joan... (Untzi txiki eta arina, arraun nahiz bela birtartez mugitzen dena).
- ...Silverrek Jolly Roger(*) altxatuko zian... (Piraten bandera beltza, kalabera eta bi hezur gurutzaturekin).
- ...*porridge*(*) delakoa balitz bezalaxe... (Ur edo esnari, irakiten daudela, zerealen

bat, gehienetan oloa, gaineratuz prestatutako platera).

- ...Davy Jonesen(*) ondora bidaliko zaituztedala. (Itsasoko izpiritu gaiztoa, Ingalaterrako mariñelen artean).

- ...*coracle*(*) bat ikusi gabea nintzen,... (Txalupa txiki, arina, zume edo ihiz egina eta larruz estalia).

- ...goardialdi txikian(*)... Bi ordutako goardia txanda motza, lauretatik seiak arte edota seietatik zortziak arte.

- ...klabua(*) batekin... (Mariñel korapiloa, bi soka bueltarekin egiten dena, halako moldez non sokaburuak gurutzatuta geratzen baitira).

- Miristika(*) berdeekiko arboladiak zeuden... (Intxaur muskada ematen duen zuhaitza).

- ...txanpon inglesak, frantziarrak, espainiarrak, portugaldarrak, jorgeak eta luisak, dobloiak eta ginea bikoitzak eta moidoreak(*) eta zekiak(**),... (*) Portugesezko *moeda d'ouro*-tik datorren hitza, hau da, urrezko txanpona. (**) Urrezko txanpon garai batekoa, hamarren bat pezetaren balioa zuena, eta Europako zenbait Estatutan akuinatzen zena, batez ere Venezian. Afrikako komertzioan ere erabilia, arabiarrek eman zioten izen hori.

Garai latzak

- Gradgrindar gaztetxoetariko inork ez zuen behin ere ulertu lelo tuntun hori, *twinkle, twinkle, little star; how I wonder what you are!*(*) (Herri anglosaxoietako haur kanta: "egin dizdiz, egin, izartxo horrek; benetan jakin nahi nuke zein zaren").

- ...Karlomagoren Gurdia(*) (Hartz Nagusiaren gurdia izendatzeko beste modu bat).

- Atzerriko dantzarietz hitz egin beharko nuke, Londongo West Endez, May Fairrez,*(*) jaun-andereez eta nobleziaz... (West End Londreseko alde dotorea da. May Fair West Endeko alde ospetsua da, aspaldian maiatzeko feria ospatzen zen lekua, gaur egun antzoki eta zinemaretoez bete).

- Erreginaren Batzorde Pribaturik Ohoagarrienean sartzeko - B zerrenda(*) osatzen zuen lagun taldean... (1846 gai zerrenda bat sortu zen Ingalaterrako irakaslegaiak hartu behar zituzten ezagupenez osatua. B zerrenda Erreginaren Kontseiluaren azpibatzerde batek erabaki behar zuen).

- Tira, Doctors' Commonsera(*) joan beharko zenuke kereila jartzera, arazo zibile-tako epaitegira joan beharko zenuke kereila jartzera, Lorden Batzarrera joan beharko zenuke kereila jartzera, eta Parlamentuko dekretu bat lortu beharko zenuke berriz ere ezkondu ahal izateko... (Londreseko Abokatu-en Elkartearen egoitza).

- Goizez etorri naiz Parlamentu-trenaz(*)... (1845ean Parlamentuak onartutako legeaz, tren konpainia bakoitzak egunero miliako penny bat balio zuen tren zerbitzu bat ezarri behar zuen).

- Erregeren beka batekin joan zen Westminster Schoolera(*)... (Westminster abadiari atxekitako eskola, Londresekoa, Henry VIII erregeak eta berriz ere Elizabeth I erreginak birreraiakia).

- ...backgammon partida bat...

- ...alderneytar(*) ederra zen... (Kanaleko Irletako esne behi moeta bat).

- Lancashire erako burruka(*) egiteko...
(Borroka mota honetan aurkariari heltzeko hainbat modu zilegi dira).

Arratsaldeko atoiuntzia

- ...zetazko *yukata*(*) jantzi zuen... (Kotoizko kimono xumea. Batez ere udan erabiltzen da).

- ...etxeke garbiketa gainerako Urte Zahar egunetan baino askoz arinago amaitua zegoela ohartu zen(*). (Urte amaieran etxeari goitik beherako garbitu bat emateko usadioa dago, hartara urte zaharrarekikoak egin eta Urteberriari abegi ona behar bezala egin ahal izateko).


- ...aurpegia *ur gaztetan*(*) igurtzi ondoren... (Hala deitu ohi zaio Urteberri edo Urtats egunez iturritik hartu ohi den urari).

- Bi milioi yeneko libreta eta zigilua(*) eman dizkizu? (Japoniako banketxeetan-eta, sinaduraren ordezkari bere zigilua erabili ohi du).

- ...*Lao Chu*(*) sorta bat dastatu zuen... (Txinako ardo mota bat da, alkohol askoduna. Hotz nahiz bero edan daiteke, baita azukre pittin bat botata ere).

- ...*Pelican* estilografika bat...

- ...Lancôme markako ezpainlapitza bat...



BIBLIOGRAFIA

- ALBA DE DIEGO, Vidal: 1995, "El problema del préstamo y su adaptación", in Rafael Martín-Gaitero (ed.): *V Encuentros Complutenses en torno a la traducción*, Complutense, Madrid, 641-649.
- ASKOREN ARTEAN: *Grand Larousse de la langue française en sept volumes*. Tome quatrième, IND-NY. Paris, Librairie Larousse, 1975.
- BAKER, Mona: 1992. *In Other Words: A Coursebook on Translation*. Routledge, London.
- BOSTAK BAT LANTALDEA: 1996. *Adorez 7: Hiztegia 3000*. Bostak Bat, Bilbo.
- DICKENS, Charles: *Garai latzak*, Ibaizabal, Euba, 1994 (itz. Javi Cillero).
- EGUNKARIA: 1995. *Estilo liburua*. Euskaldunon Egunkaria, Donostia.
- ELHUYAR: 1996. *Elhuyar hiztegia. Euskara-Gaztelania / Castellano-Vasco*. Elhuyar, Usurbil.
- ELHUYAR: 1993. *Hiztegi Entziklopedikoa*. Elhuyar, Usurbil.
- EUSKALTZAINDIA: 1986. *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- MAYORAL, Roberto: 1994, "La explicitación de información en la traducción intercultural", in Amparo Hurtado Albir (ed.): *Estudis sobre la traducció*, Castelló, Publicaciones de la Universitat Jaume I, D.L., 73-96.
- MISHIMA, Yukio: *Arratsaldeko atoiuntzia*, Ibaizabal, Euba, 1994 (itz. Hiromi Yoshida).
- MOUNIN, George: 1971. *Los problemas teóricos de la traducción*. Gredos, Madrid.
- NEWMARK, Peter: 1992. *Manual de traducción*. Cátedra, Madrid.
- NIDA, Eugene A. y Russell, Charles: 1966. *La traducción, teoría y práctica*. Cristiandad, Madrid.
- PALAZIO, Gorka J.: 1994, "Kazeta-hizkera eta neologismoak", in Gorka J. Palazzo (ed.): *Hedabideetako euskara*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbao, 131-141.
- PALAZIO ARKO, Gorka: 1991, "Euskal komunikabideetako euskara". *Uztaro* 1, 105-114.
- POE, Edgar Allan: *Upel bethe amontilado*, Egan, 1963 (4-6), (itzul. Oskillaso) 123-130.
- SANTOYO, Julio Cesar: 1988, "Traducciones, calcos lingüísticos y español actual", in Vicente López Folgado (ed.): *Actas de las Jornadas de Traducción* (28-31 de octubre 1985), Facultad de Letras, Universidad de Castilla-La Mancha, Ciudad Real, 31-43.
- SARASOLA, Ibon: 1984. *Hauta-lanerako euskal hiztegia*. A-Aurten. Gipuzkoako Aurrezkitutxa Probintziala, Donostia, 25-39.
- STEINER, George: 1977. *After Babel. Aspects of Language and Translation*. London, Oxford University Press.
- STEVENSON, Robert Louis: *Atxor uhartea*, Ibaizabal, Euba, 1991 (itz. Maria Garikano).

Hitz eztik mihia zaurtzen ez dik

Zenbait gogoeta kalifikazioaren gainean

KARLOS DEL OLMO

Sarrera

Vidal Lamiquiz-en arabera (1975, 287. or.), ez Greziako gramatikariek, ez Erromakoek ere (hauek aurrekoen zuzeneko oinordeko "zuzenak" izanik), ez zuten adjetibo gramatika-kategoria independente gisa sailkatu. Normalean aditzen sailean barneratzen zuten eta azken hau predikatutzat jotzen zutenez, bertan izen-predikatuak aztertzen ziharduten.

Mediterraneo aldean agertu zen lehenengo eskola-gramatikan, Dioniso Traziakoarenean, alegia, "epiteto" terminoa agertzen da, izen-espezietariko bat gisa, hau da, adjetiboari izen-izaera damaio. Donatok Erdi Aroan eginiko *tractatus*-ean adjetiboaren izen arruntaren azpisailetakoa bat dela dio.

Izena eta adjetiboaren bereizten lehenengoak gramatikari eskolastikoak izan ziren. Bereizketa hedatuz doa eta Tomas de Erfurt-ek, garaiko irizpide "modista" deritzenei eutsita, adjetibo izendapenak, nola edo hala, besteri atxekia esan nahi ei zuela aldarrikatzen du.

Nebriak adjetiboaren balio kualitatiboa nabarmentzen du, baita izenarekiko lotura ere. XVIII. mendean osagai independentezatzat jotzen dira, Espainiako Akademiak gramatikaren 1870. argitalpenean adjetibo-izenaren baitan, adjetibo ere izendatzen duelarik; bi atal bereiziko ditu, kalifikatzaileak eta determinatzaileak, beti ere izenari loturik bitzuak.

Hjelmsleven eta beste teorialari batzuen aburuz, adjetiboaren izen-sintagmaren osagai bigarren mailakoa da, sintagmaren oinarria den izenean nolabaiteko eragina duela.

Esan behar da oso harreman estua dagoela izenaren eta adjetiboaren artean, diskurtsoan elkarrekiko erabateko desberdintasunak dituzten arren. Hizkuntzan dena mugimendua da: hizlariak orokortasuna azaltzeko modu aferente eta itxi bati eusten badio, izena, sustantiboa, erabiliko du, aurreranzko izaera izanik, proposatu egiten duelako. Adibidez, *mina*. Baina beste higadura bati ere lotu ahal izango dio, adjetiboaren erabiliaz, atzeranzko izaeraz, suposatuta egiten duelako. Bi-

garren honetan **mingarri**, **minbera**... erabiliko ditu. Mina berba mina bera denotatzeko baino ezin da erabili, **mingarria**, **minbera** eta enparauak, aldiz, hainbat gauzari lot da-kizkieke, baina beti beharko dute aurretiazko euskarriren bat.

Zergatik, beraz, adjetibazioari buruzko artikulua bat itzulpeneko aldizkari batean? Abiarazlea han hemenka askotan esandako Peio Kaikuren egia horietako bat: "Euskara pobre da oso adjetiboen sailean". Baliteke, adjetibotzat hiztegiek jasotako berbak baino jotzen ez badira, bestelako adjetibazio-mota guztiak alhora uzten direla. Artikulu honek, adibideak erakutsita, topiko tipiko hori hautsi nahi du, euskarak hamaikatxo adjetibakera dituela agirian jarriaz. Finean, hizkuntzak gramatika bat eta hiztegi bat baino ez direlako uste erdi ustela dago jatorrian: Couse-riek maiz esan bezala, ezinezkoa da hizkuntza osotasunean deskribatzea. Gehien-gehienez, bere osagarri batzuen berri eman ahal izango da une jakin edo egoera baterako, diakronian zein sinkronian, hizkuntza etengabe aldatzen ari den sistema izanik. Hiztun guztien berbaldiak jasotzerik ez dagoenetik... Horrela, hiztegiek, maiz, banan-banako zuzeneko baliokidetzen berri baino ez dute ematen eta, litekeena da hiztegian jasotako hitza, maiztasunez, hiztegian jasotzen ez den esamolderen bat baino gutxiago erabilia izatea.

Peter Newmark-ek dioenez (1992, 237. or.), itzultzaileak lanabes oinarrizko gisa hizkuntza bakarrek hiztegiak erabiliko ditu. Elebidunak bigarren maila batean leudeke, askotan lagungarriak izan beharrean, galbidea baitira, hain zuzen ere gehienetan hitzen banan-banako harremanei baino begiratzen ez dietelako. Zergatik adjetiboa beti beste

adjetibo batez eman behar? Eta hori itzultzen ari diren bi hizkuntzen arteko norabide biotan. Esate baterako, erdal "panzudo" hitza euskaraz eman nahi izatekotan, zein hiztegitan aurkitu lapurterazko adibide hau "gizon zorro handia"? Eta alderantziz?

J. M. Agirrerren berbetan, (1991, 628. or.), "Kategorizatze hau (adjetibazioa) ere aski oinarrizkoa eta emankorra da, karakterizazio, kalifikazio edo balorazioak egiteko bideak eskaintzen bait ditu (...). Bestalde, adjetibatzea, propioki, epiteto eta atributo funtzioetan obratzen da (...)"


Adjetiboaz ari garela, Mitxelena (1970, 68. or.) esandakoa hitzez hitz jasotzea ezin argigarriagoa da: "Está claro que, en vasco, adjetivos y sustantivos no están tan claramente diferenciados como en una lengua románica con *moción* (...) o como en inglés mismo (...). Esto hace posible que, en el plano sincrónico, Martinet negara, frente a Lafon, todo fundamento a una distinción *sust. / adj.* en vasco y, sobre todo, que, en el terreno diacrónico en que ahora nos movemos, el paso de una clase de palabras a otra, excepcional en una lengua románica, por ej., en el sentido *sust. → adj.* (cf. *una mujer bandera* o fr. *une cuite maison*), aunque no a la inversa, no encuentre mayor obstáculo entre nosotros". Beraz, kategoriaz aldatze hori halako erraza izanda, ez da harritzekoa euskarak askok uste baino adjetibo gehiago izatea.

Bestalde, ezin ahaztukoa da P. Laffitek esandakoa (1962, 133. or.), alegia: "Un bon dictionnaire basque devrait indiquer pour chaque adjectif: 1° s'il s'emploie comme épithète; 2° quelle forme il agréé comme attribut et apposition; 3° le changement de sens qu'entraîne le changement de forme; 4° comment se construit son complément, quand il

en a". Badirudi ezer gutxi egin dela Laffitek hori esan zuenetik.

Baina, ezin amaitu, hasierako lerrootan esandakoari beste behako bat botatzeko: adjetibazioa ikertzearen arazorik nagusiena adjetiboarena oso kategoria lausoa izatean datza. Ikusi besterik ez dago L. Villasantek zer dioen (1983, 153. or.): "La omisión (de la categoría gramatical de las palabras) se explica, en parte, por la dificultad real que ello entraña muchas veces, ya que en vasco, con más frecuencia que en castellano, una misma palabra puede realizar funciones que corresponden a diversas categorías gramaticales, y a veces se halla uno perplejo a la hora de decidir a cuál categoría pertenecen algunos vocablos. Por de pronto, son muy abundantes en vasco los adjetivos que se adverbializan. También en castellano se conoce este hecho. "Dale duro" - *Eman gogor*. Pero en vasco es mucho más frecuente y común". Zer

sailkapen-motari hel dakioke euskaraz adjetiboaren zeregina betetzen duten elementu edo baliabide (kategoria?) guztien berri emateko? Aurrerago ikusiko denez, artikulua honetan hiru eredu desberdin agertzen dira, hirurak osagabeak, ezin baitezakete adjetibakera guztien berri eman. Agian, irizpide morfologiko edo sintaktikoak baino, funtzionalak erabili behar lirateke, alegia, euskaraz adjetibo-zeregina bete ditzaketen elementu funtzionalen zerrenda eratu eta edozein hitz, sintagma edo dena delako unitate adjetibo izateko gaitzen dituzten mekanismo funtzionalak zedarritu. Zeren, bai Euskaltzaindiak, bai Altzok, harridurazko perpausa bera edo izen beraren errepikapena bezalako hizkuntz elementuak kokatzen baituzte adjetibo-bihurkarien artean. Agian, arinago amaituko litzateke zer ezin den adjetibo izan definituz gero.



1. Euskaltzaindiaren ikuspegia

Euskaltzaindiak (1985, 241. orrialdetik aurrera) adjetiboak bi talde handitan sailkatzten ditu: izenondoak eta izenlagunak. Izenari ezezik, predikatu osoari ere erants daioke. Kokapenari dagokionez, leku bitan ager daiteke: izen sintagma baten barnean izen bati lagunduta, nahiz predikatuaren barruan osagarri predikatiboa osatzeko.

Izenondoa egun izenaren eskuinean joan ohi den arren, ez da lekukotasunik falta ezker kokapenaz den bezanbatean. Ez dira bakanak, bestalde, ezker zein eskuin doazkeenak. Bestalde, hitz-elkarketatik (izen-elkarketatik: euskara + langileria → **euskal langileria**) izenen aurrean doazen adjetibo modukoak ere agertzen dira.

Salbuespenak salbuespen, izenondoa euskaraz izenaren eskubitara azaltzen da. Izenondo bat baino gehiago izatekotan, nongotasuna adierazten duena aurretik doa, gainontzekoak atzetik, normalean, izenondo horiek izenari erasten dioten informaziorik garrantzitsuen izenaren albo-alboan doala baderakegu. “Beraz, badirudi izenondoen ordena sujetiboa dela” (1985, 248. or.); irizpide aipagarria luze-laburrarena litzatekeela: laburrena lehen, luzeagoa gero. Hitz elkartuak ere izenondoak izan daitezke.

Partizipioa, Euskaltzaindiak esan bezala (1985, 250. or.), aditz-adjetibo bat besterik ez da. Zeharo lexikalizaturik dagoenean izenondoaren lekuan agertuko da:

haur ongi ikasiek ez dute horrelakorik esaten

Baina izenlagun gisa ere joan ohi da batez ere partizipiodun osagai hori perpaus oso bat denean:

ongi ikasi haur batzuk

ongi ikasitako haur batzuk

Eta luzeegia denean, aposizioan ere:

haur bat, ongi ikasia, etorri zaigu

Partizipiotik datozen adjetibo horiek predikatuan ere ager daitezke:

pertsona hori nekatua da

gauza hori mila bider esana da

Zenbait adjetibok mugatzailerik gabe agertzeko joera dute: “zorionsu, dohatsu, libre, berdin...”

libre da gizona nahi duena egiteko

Beste batzuk beti osagarri predikatiboe-tan agertzen dira eta inoiz ez izen-sintagma baten barnean: “gai, gauza, aiherr, haizu, zilegi, sori, bide,.. (eta beharbada “komeni, ados, akort...”)). Hala ere, adjetibo soilak diren ala aditz-esapide zalantzan dago:

ezkontzaren haustea lege da, baina ez zilegi

Izen batzuk adjetibo gisa erabiltzen dira, batez ere inoren egoera adierazten duten izen adjetibotuak izanik: “bildur, gose, haserre, ahaltze, lotsa...”. Hauek ere mugatzailerik gabeak dira:

haserre da mutila

Perpaus txertatu bati dagokiola, mugagabe-ean doake adjetibo-sintagma (“on, hobe, zail, gaitz...”):

On da eskolatzea.

Horrelakoetan mugatuak ere zilegi diren arren, mugagabeoi hizkera landuaren kutsua daria, antza.

Adjetibo-segidetan, ez da bitxia mugagabea jotzea, mugatuaren kalterik gabe:

Jauna, zure grazia ez da handi, azkar eta gozo?

Jauna, zure grazia ez da handi, azkar eta gozoa?

Jauna, zure grazia ez da handia, azkarra eta gozoa?

Adjetiboak maila-adberbioren bat duenean, bereziki -ago konparazio-atzizkia, joera handia dago mugatzailea ez jartzeko, nahiz mugatua ere agertzen den; -egi atzikiak ere bietara jokatu ohi da. Superlatiboa, aldiz, beti mugatua:

*horiek guztiak baino ederrago(a) da
etxe hori handiegi(a) da
zu zara ederrena*

Izenlagunez osaturikoetan beharrezkoa da artikulua:

liburu hori plastikozkoa da

Adjetiboak osagarriak har ditzake, perpaus osoak edo bestelako izen sintagmak:

*Ez naiz zuen arazoak konpontzeko gai
Elizari hurbil dago Joxanen etxea*

Adjetiboen sailean kategori aldaketak ere gertatzen dira, direla adjetiboak sorburuak, direla emaitzak:

*sagardoaren gozoa
nekearen handia
adin gara (adin bereko gara)*

Kategori aldaketa horietako batzuetan, nolabaiteko metaforak sortzen dira:

*pertsona oiloa
emazte zilar hori!*

Izenondo baten maila adierazteko euskarak hainbat bide darabiltza:

• marka fonetikoak:

- azentua: **játorra**
- palatalizazioa: ur **hotxa**
- kontsonanteen ezaugarriak aldatzea: **harrroa**

• marka morfologikoak

- atzizkiak: **beransko, harroko, ilunsko, lotsatuxe, handixeago, handitzar, beltzaran-txo, gorrats/gorrail/gorritsu/gorriantz, gaziantz...**

- errepikapena: **polit-polita**

• maila-adberbioak eta zenbatzaile batzuk:

- goi-maila: **oso polita, erabat aspertuak, biziki neska atseгина, alai askoa, ondo galanta...**
- askitasuna: lan zail **samarra, nahikoa neska polita, aski aberatsak...**
- ezeztapena: etxe hau ez da **batere polita**

Adjetibazioaren gainean aritzean, ezin alboratuzkoa da konparazioa, finean oso bide emankorra ez ezik, maiztasun handikoa ere baita hizkuntzaren erregistro desberdinetan:

*sagarrik handiena har ezazu
emaitza hobea lortu beharrean zaude
etxe hori handiago(a) da
etxe hori beste hura baino handiagoa da
zu baino biziki (aise/anitez/askoz erel
dexe...) handiagoa da
gero eta politagoa da nobela hau
gero eta auto politagoak
zenbat (eta) zaharrago, hainbat (eta)
petralago
zaharrago eta txarrago
aldian baino aldian gaiztoagoa
zenbatenaz gosea handiagoa, hanbatenaz
janaria gozoagoa*

*zein baino zein ederragoak
ezinago ederra / ezin ederragoa
polita baino politagoa
hura are handiagoa da
oraindik ere zaharragoa
ni bainoago den bat
zauriak gordintzenago
handiegia da
etxe lar handia
zurea nirea bezain garestia da
honen/horren/hain ederra bada, har ezazu*

Izenlagunei atzera ere heldurik, adjetibo horiek -en edo -ko kasu-markak izan eta izenaren ezker partean paratzen ditugula esan:

*etxeko lanak egin ditut
aitaren etxea*

Atzizki horietako batek (-ko, alegia) izenlagunak osatzea du zeregin. Badirudi erlatibo baten ordaina izan daitekeela adizlagun gehienetan:

*zurekiko harremanak = zurekin + ko harremanak
zurekin ditudan harremanak*

Beste deklinabide-atzizkiek ez bezala, nolabaiteko lotura dagoela baino ez du adierazten. Hala ere, -ko horren aurrean doana ez da beti adizlaguna izaten, baina ez dirudi harritzeko moduko gauza denik, honelakoetan adjetiboan antzeko zerbait dagoela esan baitaiteke, eta gauza jakina da -ko adjetiboai ere erants dakiekena:

bihotz oneko neska

Beste atzizkiak, -ren-ek, gehienetan, -ko-k ez bezalako erlazioa adierazten du:

etxearen jabea # etxeko jabea

Azkenik, esan beharra dago adjetiboaren zereginak aposizioan doan izen batek edo izen-sintagma batek betetzen duela:

Axular, gure idazle handiak, idatzi zuen bezala...


Alberdi anderea

amona Josefina

andre Madalen

On Ramon agurgarria

Honainokoa Euskaltzaindiak "Lehen Urratsak I" izenekoan adjetiboari eskainitako sailaren laburpena, agortzailca izateko asmorik gabe, ikuspegi sistematizatu-eredu bat eskaintzea beste helbururik ez da izan, segituan jasoko denarekin alderatzeko. Bigarrena 1961ean argitaraturiko lan bat hartzen du abiaburu, Diego J. de Alzo-ren "Estudio sobre el euskara hablado" delakoa, Mitxelena-ren laudoriak jaso zituen arren, egun ahaztuxe dagoen oinarrizko lan gogoangarria delakoan.



2. Ahozko erabilkeran ezagunak diren adjetibazio-bideak. Altzo-ren ekarria.

Atal hau osatzeko, esan legez, Altzo-ren "Estudio sobre el euskara hablado" liburuan jasotako sailkapena eta materialak erabili dira batez ere. Liburua 1961ean argitaratu zenez gero, litekeena da egileak emandako sailkapen edo kategoría gramatikal batzuk bat ez etortzea egun korritzen dutenekin, adibidez, aurreko sarreran Euskaltzaindiaren "Lehen Urratsak -I" gramatikatik harturikoeekin. Dena den, gramatika kontzeptuak eta terminoak oso aldakorak dira, lekuko, Euskaltzaindiak berak azken urteotan eginiko terminologi aldaketa batzuk. Finean, lan horren balioa gipuzkeraz eta goi nafarreraz herriak erabilitako hainbat baliabideren berri eskaintzea izan zen, literaturaren bidetik zertxobait urrunduta. Hizkera idatzian eta ahozkoan ia baliabide berberak agertzen dira, baina, antza denez (sakonago ikertu beharra baitago) maiztasunak ez dira berdin-berdinak usadio biotan.

2.1. Aditzetatik eratorriak

Euskaraz, beste hizkuntza askotan legez, adjetibo-aldra garrantzitsu bat aditzetatik dator, zelan edo halan; erlatibozko egiturak ere adjetibotzat jo daitezkeelarik. Beraz, ez da harrizkoa askok uste baino sail handiagoa topatzea euskal adjetiboen artean, adjetibaziorako bide batzuk, ahor kokka, hiztegietan nekez jasotzekoak izateagatik, eremu lauso batean egoten direlarik, nork indar eta abia berria eman zain, ahozko eta ekanduzko usuarioetan izan duten zeregina hizkera landuan ere ikus dadin, beti ere erdal adjetibazio-eremu semantikoen menpean egoteke.

2.1.1. Aposizioak

- Atzizkirik gabeak:

aditu gauzak (AN): cosas oídas

egon ura (G): agua estancada

- -ko atzizkiaz:

adituko gauzak (AN) : cosas que se han oído

Arizkunen egoneko ura (AN): agua que estuvo en Arizkun

- -ta atzizkia gehiturik:

lotuta dantza (AN): baile agarrado

bada han nik eramanda kaliza (G): hay allí un caliz que llevé yo

- -tako atzizkia gehiturik:

atzo etorritako gizona (G): el hombre venido ayer

santa ustetako da (G): de las tenidas por santa

lanak egindako agiria (G): certificado de haber hecho los trabajos

2.1.2. Postposizioak

gizon asko sufritua da (G): hombre que ha sufrido mucho

ez dut gaizki nahirik (G): no he tenido intención de hacer mal

etxean dut ahizpa atakeak emana (AN): la hermana a quien dió el ataque

nahi gaizto egonik ez dut: no tengo ningún deseo consentido

2.1.3. Ezezkoak

izan ditut egite batzuk ez egin beharrak (G): he hecho actos que no debía hacer hecho

egin behar ezak (AN): actos que no debían haberse hecho

etorri gabe bati (G): a uno que no vino ez-urte (B); año estéril

2.1.4. Aditzari -t(z)eko edo behar/beharrrezko gehituta sortutakoak

mahaian jartzeko aulkiak (G): asientos a poner en la mesa

lan egin beharrak baditut (AN): AN): trabajos que debo hacer

2.1.5. Aditzari -la erantsita sorturikoak

hamasei mila pezeta egin zuela behia erosi nuen (AN): compré una vaca que valió dieciseis mil pesetas.

lainoak dira laster pasatzen direla (G): hay nubes que pasan pronto

2.1.6. Aditzari -lako erantsita sorturikoak

Tomas delako hori (G): ese a quien llaman Tomás

adiskide zuelako hura (G): aquel a quien tenía por amigo

dakidalako hutsik ez dut (G): no tengo falta conocida por mí

2.1.7. Aditzari -n erantsita sorturikoak

a) -n agerian dutela

hura jaio zen herria (G): el pueblo en el que nació

harek ekarri duen ogia (G): el pan que ha traído

b) -n elipsian dagoela

• Nahi izan-etikoak

badira aitortu eta jaunartu nahiak (AN): hay quienes quieren confesar y comulgar

• Duen eliptikoa

gizon hanka motz(duen)a (G): hombre paticorto

• Den eliptikoa

lanik ez (den) garaian (G): tiempo desocupado

hau ezin (den) denboran: tiempo en que no se puede esto

• Ahal izan-etikakoak

ahal guztian, ahal guztietan (G): todas las veces que se puede/a

• Bestelakoak

Hori etortzen guztietan (AN): todas las veces que viene

Egin behar(diren)rak egin ditut (G): he hecho todas las cosas

Egin behar ez(diren)ak ez ditut egin (AN): no he hecho las que no tenía que hacer

Baziren egunak batere euririk ez (zela) (G): había días sin ninguna lluvia, en los que no llovía

2.1.8. -kodun adjetiboak, adjetibo-esaldigisa

a) -ko gehi ekintza, grina, lekua, ezetza eta abarrak adierazten dituzten izenak

Behar: egun lan egin beharrekoak dira (L): días de necesidad u obligación de trabajar

lagun beharrekoa da hori (L): persona necesitada de compañía

Nahi: etorri nahikoak badira (AN): los que quieren venir

Kezka: kezka zerik ez dut (AN): no tengo motivo/cosa que me recuerde

Aurre: *aurreko gizona (G): el hombre de delante*

Izugarri: *izugarriko berria (AN): nueva espantosa*

Belaun: *belaunetako lohietan egon (G): meterse en barro (que llega) hasta las rodillas*

Lepo: *lepo beteko uretan sartu (G): meterse en aguas (que llegan) hasta el cuello*

b) -ko gehi deklinabide-atzizkidun izenak

-gana: *Jaungoikoaganako maitetasuna (G): amor de hacia Dios*

-ra: *Otsondorako bidea (AN): camino de a Otsondo*

-raino: *goitik uretarainoko bidea (G): el camino desde arriba hasta el agua*

-kin: *umeezikoa/oihoekikoa egin (G): hacerlo (tocante a) de con los niños, con las gallinas*

-z: *bidezko/ezinezko gauza (G; AN): cosa de justicia, cosa imposible*
oroituzko zera (AN): cosa hecha con advertencia

-tik: *zerutikoa, zerutikakoa (B): el (venido) del cielo*

Orohar, -ko atzizkiak izenak adjetibo bilakatzen ditu, izenak atzizkidunak izan zein izan ez:

aukerako gizonak (G): hombres escogidos
hitz errietakoak (AN): palabras de riña

2.2. Aditzak adjetiboen osagarri

a) Agian -z atzizkia elipsian dagoela
egin errazal/zaila: fácil/difícil de hacer

b) -z edo -tik elipsian daudela
egin berria: hecho recientemente
egin zaharra: hecho antiguamente

c) Agian -ko elipsian dagoela
minbera: delicado

d) Bete-ren hurrenkerarekiko berezitasuna
itsasontzi bete arrain ekarri zuten (G): barco lleno de pescado

e) Beste zenbait berezitasun

e') Postposizio gisa ez doazen adjetiboak
laster-lanak (G): trabajos de prisa
garratz-usaia (G): olor acre

gazte-denbora (G): tiempo de joven (honako hau beharkizuna izan daiteke)

alfer-lana (AN): trabajo inútil
behar-meza (AN): misa de obligación

asko tokitan (AN): en muchos sitios
gehien tokitan (AN): en la mayoría de los sitios

oker-bidea (G): camino torcido
zikin-solasak (AN): conversaciones obscuras

txiki-denbora (G): niñez

e'') -garren elipsian

biloba (bigarren iloba): biznieto
bibelarra (bigarren belarra): segundo corte de la hierba, segunda hierba

2.3 Aditz-izenetikakoak

mutilak jartzeko aulkiak (G): los asientos que hay que poner a los chicos
etxea garbitzeko da (G): la casa está por barrer

2.4 Artikulua adjetiboetan

a) Azkenik agertzen den hitzari lotua

berri onak ekarri

ezin gauzak

hor da gizon bat orain etorria

b) Partizipioekin honela agertzen da:

- Izan iragankorra

lana izan/izanal/izanik det

- Egon, eduki

lana eginaleginik/eginda dago

lana eginaleginik/eginda daukat

- Izan iragangaitza

etorri naiz

iloba joan zaio

iloba joana du

- Geroaldikoak

etorriko naiz

eginen dut

c) Geroaldiko -tzeko

laguna etortzeko/etortzekoa da

laguna etortzeko/etortzekoa dut

2.5. Kalitate-izenak

Berezko edo metaforazko kontzeptu bakarra adierazita, izena, adjetiboa eta adberbioa izan daitezke. Besteak beste, honako hauek agertzen dira: ahal, alfer, agiri, aisa, aldagarri, apal, argi, arin, harro, babes, bakar, behar, berdin, bero, berri, bikain, bizkor, doi, eder, egarri, epel, ergel, eri, eroso, erraz, estu, etsai, ezin, ezti, garesti, gaizo, gaixo, gai, gaizto, garbi, gazte, gizen, gogor, gordin, gose, gorria, herren, hobe, hotz, huts, idor, igar, ilun, isil, itsusi, izugarri, jator, kaltegarri, laiotz, laster, lasa, lasai, latz, lehor, lohi, makur,

maite, mami, min, mozkor, nabarmen, nagi, on, oker, ordain, txar, samin, zabal, zabar, zahar, zakar, zale, zelai, zikin, zintzo, zuzen, xuxen.

Sail honetan "IHESIRIK JOAN" "HANDIKIA", "JARRAIKIA" eta horrelako bakanka batzuk ere barne daude.

Aurreko zerrendari kantitatea adierazten duten batzuk gehitu behar zaizkio: asko, handi, bat, gehiago, gehiegi, gehien, gutxi, guzti, honenbeste, horrenbeste, hainbeste, larri, luze, koskor, oso, txiki.

Batzuetan hain eta horren adjetibo gisa ere erabiltzen dira:

ez nuen hain obedientzian egin (AN): no obré con tanta obediencia

2.6. Joskera berezidun batzuk:

haize-leku gogorra (AN): sitio de fuerte viento

bero-leku handia (G): sitio de gran calor

2.7. Adjetiboek esaldian duten kokapena

- Kalifikatiboak izenaren postposizio gisa *mendia handia*

- Kalifikatiboak aposizioan (salbuespenak)

alfer-bidea (G, AN): viaje inutil

azken tokia (AN): ul último lugar

asko tokitan (AN): en muchos sitios

oker bidea (G): camino torcido

zikin solasak (AN): conversaciones sucias

behar meza (AN): misa de obligación

garratz-usaia (G): olor ocre

txiki-denbora: tiempo de la niñez

- Erakusleak postposizio gisa

neska haulhorilbura

- Erakusleak aposizioan (salbuespenak)
haul/lori/hura beroa!
hau bai dela beroa! (G): ¡esto si que es calor!
- Izenorde genitibo edutezkoa aposizioan
gure maite hori: es/le amada/o nuestro/lo
- Izenorde genitibo edutezkoa postposizioan (salbuespen bakan-bakana)
sasoia joan da gurea (G): ha desaparecido nuestra coyuntura
- Numeralak aposizio gisa (bat eta bi salbuespena)
bi urte ditu
bigarren urtean doa
- -kodun mugatzaileak aposizioan
animen aldeko lanak
mutilei jartzeko mahaiak
urtean behingo jaunartzea (G): la comunión anual
- -kodunak postposizio gisa
kaja bat etxekoa badugu hemen (G): tenemos aquí una caja de casa
jan kalte egitekorik ez hartu (G) no tomar comida que le haga daño
- Erlatiboarena egiten duten partizipioak aposizioan
gure zuzendari izaneko (AN) izandako hura (G): aquel que fue nuestro director
- Partizipioa postposizioan
mahaia mutilei jartzekoa ekarri (G): traiga la mesa que hay que poner a los chicos
bada hemen gizon bat orain etorria (AN): hay aquí un hombre que ha venido ahora

- Metastasia
eskola bat egin dut hutsa (AN): he faltado a una clase
asko dago landarea (G): planta, haber, hay mucha

2.8. Adjetiboan modifikatzaileak

- *Hagitz, arras, arrunt, franko, oso, sano* eta enparauak postposizioan zein aposizioan agertzen dira

- *Hain* aposizioan joan ohi da.
- *Bezain* izena eta adjetiboaren artean edo bi adjetiboren artean.

2.9. Superlatiboa adjetiboetan:

2.9.1. Azentuaz eta bokala luzatzeaz:

- *béehartsua: muy necesitado*
- *póollita: muy bonito*
- *záaaharra (G, AN): viejísimo*

2.9.2. Errepikapenezkoa:

- *besterik da besterik (G): ser verdaderamente diferente*
- *gain-gainekoa da (G): ser persona eminente*
- *burdin txar-txar-txar bat (G): hierro pequeñísimo (?)*

2.9.3. Hitzak gehitzearen bitartezkoa. Hiru gradu lortzen dira:

- 1. gradua: *hagitz, asko, aunitz, ondo, ongi, oso, arras, txit, txoil, honen/horren/hain ...*
- 2. gradua:
- Azentu bidez:
áarras poliki (AN): en muy buen estado
- 1. gradukoak errepikaturik:
oso-oso ona da (G): es buenísimo/o
- Adberbioak eta adjetiboak gehiturik: *halako, ahalena, eder, gaizto, porrokatu*

gaizto ahalena (G): malo más que malo

halako ederra da (G): es hermosísimo

- Harridurazkocz:

buraxe bazen, bai, astotxo! (G): era un grandísimo animal

• 3. gradua:

- Azentu bidez:

óoso ona da

- halako, ahalena, eder, gaizto, porrokatu adjetibo-adberbioei silaba luzatuaz eta azentuatuz lortuak:

langile pórrokatua (AN, G): muy-muy-muy trabajador

Lehenengo graduko adberbioak errepikatuta:

arras-arras-arras pozik (AN): contenta sobremanera

Berealdiko, berebiziko, ikaragarri, ikaragarritzko, ikarazko, izugarri, puska, huts... gehiturik:

on puska da (G): ser un/a buenazola

on hutsa zen (G): era buenísimo

izugarritzko lana (AN): trabajo enorme

• 4. gradua:

Azentu bidez eta bokalak lutzatuaz:


háaaalako handia da: es extraordinariamente grande

Adberbioak errepikaturik:

oso-oso-oso-oso ona da: es extraordinariamente buena

Ezin/ezinda gehi baino gehi -ago egituraz:

ezinda gehiago hobea (G): inmejorable



3. Beste iturri batzuetatikakoak

J. Mokoroaren (1990) lana hartu da oinarriztat atal hau gauzatzeko. Hitz-elkarretako gidoietan kontraesanik aurkituz gero, artikulugileari -gehienbat- zein Mokoroari (beraz, hainbat idazleri) leporatu. Honako testigantza hauetan gaur egungo arau ortografikoak erabili dira, batzuetan adizkiak batuaz ematen direlarik, jatorrizkoan tokian tokikoak agertu arren, aldaketa horrek adjetiboa nola eratu den ikustea galarazten ez duelakoan.

3.1. Superlatibo erlatiboa

Atal gisa agertzen denez gero, aipatu liburuko bigarren alean, bere hartan uztea egokitzen jota, hona hemen laburpentxo bat:

• Adizki jokatu + erlatiboa:

dagozanik onenatarikoak (B): los mejores que hay

dutenik onena (G): lo mejor que tienen

munduan danik luzeena (B): el más largo del mundo

inon ere bildu den uztarik ederrena (G): la más hermosa cosecha recogida en parte alguna

izan danik onena (B): el mejor que ha habido

inon ere den hoberena (G): de la mejor calidad conocida

abal zituen jantzirik apainenekin (G): con los vestidos más elegantes que pudo

daitekeenik atsegingarriena (UG): la más grata

den gutieneko bidegabeba (L): el más mínimo daño

• Adjetiboa errepikatuaz:

onik onena (G): la mejor de todas

nagusien nagusiak (L): los más sobresalientes

nagusietan nagusiena (L): campeón de campeones

txarren-txarreneko grinak (G): la más funesta de las manías

• Hitz edo sintagmaren bat gehituaz:

aspaldikorik gurienak (G): los más lisos vistos

sekulako gizonik ederrena zatoz (B): vie- nes más guapo que nunca

egundokorik itxurarik onenak (G): las mejores perspectivas

inoizko(rik) luzeena (B): más largalo que nunca

behinik gizenena (G): más gordola que nunca

inondiko gozoenak (G): los más exquisitos
nihongo elizarik ederrena (L): la iglesia más hermosa del mundo

behinekorik gehiena (G): más que nunca
sekulan eta gustokoena (G): más a gusto que nunca

sekulakorik ijito gehien (G): más gitanos que nunca

egundainokorik beranduena (G): más re- trasada(o)s que nunca

oraindikako lotsagarriena (G): más des- lucidos que nunca

aspaldikorik ondoen (B): mejor que nun- ca

inongo gehien (B): más que en ninguna parte

ahalbait eta zehatzen (B): lo más exacto posible

orotako aberatsena (L): la más rica de to- das

haietxek eta azkarrena botako ditu (G): los que precisamente derribará antes

denetan bizkorrenak (BG): los más espa- bilados

ezin eta agur gozoena (G): la mejor acogi- da

ahalik eta hobekienik (L): lo más posible

• -en gehi -ik atzizki soila:

horrek du hirina xurienik (AN, L): la ha- rina más blanca

• Izena bera errepikatuaz:

kalte guztien gaineko kaltea (L): el daño mayor de todos

• Aposizioan:

garestieneko olio (G): *aceite del más caro*

3.2. Pertsona- eta herri-ezizen batzuk.

Hauetariko batzuk adjetiboen artean sailkatzea zalantzagarriztat jo liteke, nahiz benetan zeregin hori bete. Ahor zenbait adibide:

Patxi Agure (B): "calvo"

Patxi Buruargi (B): "calvo"

Martin Ilargi (B): "calvo"

Patxi Zatar (G): "sucio, grosero"

Manu Zantar (B): "grosero"

Mari Buruarin (B): *Mokoroak ez dakar itzulpenik*

Krispin Kale (B): *Mokoroak ez dakar itzulpenik*

Mañaña Motz (L): *Mokoroak ez dakar itzulpenik*

Martin Tripandi (L): "tripón"

Zatarrandi (G): *epíteto a una solterona presumida*

Marizabar (G): *epíteto a una solterona presumida*

Txomin Tranpa (B): "tranposo"

Joakin Guzur (B): "mentiroso"

Matxi Ardantza (B): "borrachín"

prantses-behorra (G): *mujer "percherona"*

atze-bikotxa (G): *mujer "percherona"*

gajtajale (G): "comequesos"

zorro beltz (G): "bolsalfunda negra"

Anton Diru (B): *apodo dado a un ávaro*

Anton Zurrut (G): *Antón "Copas"*

Patxi Gaizto: *apodo dado a un gitano*

Kañi Etxekalte: *apodo dado a un gitano*

Pantxika Txistu: *apodo dado a una gitana*

Buruloka (B): "embleque"

Hankandi (B): "pata grande"

Txizati (B): "meón"

Sudurmotz (B): "chato"

labe-itxuskin (G): "estropajo" (*neskez esana*)

On bila, on bila, bonbila, Malen Bonbila (B)

ipurtandi (G): *nalgudola, rollizalo*

lepatsu (B) *jorobadalo*

ipurtoke (G): *contrahechalo, torcidalo de nalgas*

Ez dira ahanzi behar, bestalde, hainbat herritakoek dituzten ezizenak. Besteen antzera, zerrenda honek ere ez du agortzailea izan gura:

Txintzarri (G): *Alegikoak*

Bigunak (G): *Antzuolakoak*

Zerri gorriak (G): *Mutiloakoak*

Kokoak (B): *Zeanurikoak*

Joxemaritarra (G): *donostiarra*

Santa Luzia ezin-utzia (AN): *la indispensable*

ipurdikara koipezto (B, Bermeo): *kanpotarrak, etorkinak*

3.3. Oina besteko zapata (anabasa)

Adjetibo batzuk sail batean baino gehiagotan egon daitezke, iritziak-iritzi. Nolanahi ere den, beste nonbait esan legez, sailkapen "taxonomiko" agortzaile eta erabat zehatza eskaini baino, normalean pobretzat jo izandako euskal adjetibazioaren joritasuna erakutsi nahi izan da.

Ikusiko denez, sailkapena egiteko ez da irizpide bakarra erabili, alegia: morfologikoa, sintaktikoa..., nahasian agertzen dira, azpimarratu nahi den alderdiak hala aginduta.

3.3.1. "-ko"ren bitartez loturiko batzuk

Hona hemen atal jorienetariko bat, ikus daitekeenez, deklinabide-atzizkidun ele ugari eta hainbat kategoria gramatikal ere adjetibo bilakatzen baititu. Altxori emandako sailean *-korekikoak* zehatz eta mehatz sailkatzen direnez, hemen bereizketarik gabe eman dira, horietako batzuk sailkatzen zailak ere badi-relako. Hala ere, bertora ez dira denak jaso, beste zenbait ataletan bereziki nabarmendu nahi izan diren bestetzuk daudelako.

nonahiko jan-ontzaile (NG): buena cocinera

noizean-noizeango burukomina (B): jaqueca crónica

labetik harako ogi (B): pan recién cocido

osterantzeko izkimiri (B): entremés, sainete

bizi nahiekoa (G): persona espabilada, activa

tarteko lan (NG): tarea de casa

berriroko pesta (G): fiesta recomenzada

dena beharrekoak (B): necesidades/os de todo

nahas-mahaskako eskola (L): escuela mixta

sitsak jotzeko arropak (G): expuestos a apollillarse

sitsak jotako arropak (G): atacados por la polilla

batetik besterainoko arratare (B): rasgón de parte a parte

oina-oinako zapata (G): zapato de su medida

txapela larruakikoa (G): boina con correa

inorenekoa (G): casa ajena

atorratzako zerbait (G): algo que haga de camisa

beranduko orduak (G): horas tardías, a deshora

zintzilikako oihal-zapi (G): adorno con colgaduras

upela baino handiagoko mozkorarrekin (G): gran borrachera

bestekoa izan (G): persona convecina

handikoak (B): los/as de la vivienda contigua

etxekoneko (G): el/la del otro piso

ogipeko (B): servidor/a

hanka bizikoa (G): ágil de piernas

guztirakoa (B): apta/o para todo

ezertakoak (B): habilidosas

nahi bezalako jende (G): personas aptas

esateko gaitasun (B): aptitud digna de mención

bestezazko hitzegite (G): conversación mediante terceros

gizajo gelditu beharrekoa (G): un/a pobre hombre/mujer

Jainkoaren eskutikako lanak (L): las obras de la mano de Dios

gizentzekoa izan (B): ser propenso a engordar (cerdo)

3.3.2. Aditza/izena + barik/gabe(ko)a

...urte bete gabeko neska (G): chica menor de ...

bizarra azaldu gabeko ume (G): imberbe
hezur gabeko hankak (B): piernas ágiles,
de goma

ogi jakirik gabea (L): pan "a palo seco",
sin nada

ardo bako (B): abstemia/o

lur zaporegabe (R): tierra dura, ingrata

gozo bagako lur (B): tierra no jugosa

segak jo-gabea (G): sin segar

inoiz esnea batu bako (B): madres nunca
ordeñadas

eguzki bako baserri oskola (B): caserío de
mala muerte

su bako etxe (B): casa deshabitada

zeozertan ikasi bagakoak (B): inexpertos

etenbako langile (B): trabajador/a incan-
sable

arren-bako lan (B): trabajo sin esfuerzo/
oración

baso erdi inork edan-gabeak (G): Moko-
roak itzulezintzat joa

3.3.3.- Adizki jokatu gehi -ko

jan nazazuko dago (B): está que dice "có-
meme"

hordagoko bazkal-afari (B): comida y cena
de primera clase

3.3.4.- "-zko"

Aita Villasantek bere "Estudios de Sintaxis Vasca" liburuan adjetibaziorako oso baliabide emankortzat jo arren, Mokoroak jasotakoen artean ez da hainbestetan ikusten, ezta Altzoren adibideetan ere.

herri jaungoikozko (B): pueblo piadoso

3.3.5. Metaforak, irudiak, konparazioak...

Barruti honetan denetarik agertzen da, alegia, morfologia edo sintaxiaren aldetik beste nonbait ere sailka daitezkeenak. Hala ere, banan-banako baliokidetzen mugak gainditzeko orduan honelakoek duten garrantzia nabarmentzearren, baliabide gisako atal hau eranstea erabaki da. Zer esanik ez, honetan ere -kodunak nagusi.

oina besteko zapata (B): zapato de su medida

mendia adinako gizaseme (AN): tan grande como una montaña, gigantón

txakur jezarri bat baino handiago ez izan (B): de ruin estatura

besoen beteko mutiko izan (L): chicarrón
ikatza lore zenean sortua (AN, L): persona morena

burutik joan arazteko atsekabe (L): dolor capaz de trastornar el juicio

burutik eragiteko besteko estualdi (B): capaz de hacer perder el juicio

goia joko zuen halako gizon (G): gigantón, hombrón

txanpon baten min (AN): dolor de poca monta

ordu jakin (G): la hora de la muerte

lo gozo (G): sueño dulce, agradable = muerte
irabazi-leku (B): cielo cristiano

okotzerainoko betekada (B): gran hartazgo
erregek jaten omen duena (G): bocado de reyes, exquisito

beste-bete adina janari (NG): comida abundante

okotzeraino bete arteko jan-edana (B): gran comilona

ardoaren lagun gorri eta zuri (B): bebidas alcohólicas

mantalpekoa (G): aguardiente clandestino

Pilipa Antoni (G): apelativo jocoso del aguardiente

abarkatxoak egiteko moduko esne lodi (G): leche con mucha nata

atzo goizeko bildotsa ez izan (AN; baz): ser mayor de edad

ipurdia bete-beteko prakak (B): pantalones muy ceñidos

lora zuri jantzita agertu (B): aparecer vestida/o de blanco

jaunen jaunak izan (BN, NL): ser ganadores

hartu ezin halako karga (G): carga superior a las fuerzas

astoa makilara legetxe eginda (B): hechol a al palo

lana inondik ahalean egin (AN): con todo el empeño posible

3.3.6.- “-dun” atzizkiaren bidezkoak

aurpegi tximurdun atso (B): vieja arrugadita

buru zuridun agure/atso (G): ancianola canosola

hilibizikoen arpegidun hau (B): esmirriado, muerto de hambre

agure txotadunak (B): viejos de cachucha
eskoladunena (G): la más pintada

3.3.7.- Hurrenkera bereziak

Lehen esan bezala, irizpide bat baino gehiago ibili da eskuhartzean. Oraingo honetan ohikoak ez diren hurrenkera batzuk jaso dira. Bat baino gehiago -ko atzikiak eratua.

egun gaztetakoak (B): años de juventud

gazte lorekoa (B): joven en la flor de la vida

handi-denbora (AN): edad adulta

prakadun lotsagaldukoa (B): varón desvergonzado

heriotza behingo-bateko (B): muerte repentina

handi-lan (G): tarea fuerte

3.3.8. Partizipioa gehi beste elementuren bat oinarrian

gainetik beherera batean ehoa (L): tejida de una pieza de arriba a abajo

edozeinen aurreko egoki jantziak (AN): vistosamente ataviadas

lastotara ugari (G): pródigo en paja

ebaki-nahitua (AN): maduro para la siega

agure urtearen urtez burua zuritua (G): encanecido por la edad

haragiz jantziagoa izan (G): llenalo, rellenalo

haginak zaharrez zulatuak (B): dientes cariados de viejos

makailu gazia tomatetan zikindua (G): bacalao en tomate

gaztetasuna atxurrean igaroak (G): los que han pasado la juventud en la labranza

3.3.9. Izen-elkarketa bidezkoak

zilegi-lur (G): tierra comunal

eztijario (G): adulador

bi seme aingeru (AN): dos hijos muy pequeños

goiz-gizon (BN): jovenzuelo

katu-bizar (G): bigote escaso

hanka-makila (G): pierna contrahecha

osasun-belar (B): hierba medicinal
zahi-zaku (G): tragón insaciable
eztei-emaile (AN): persona que convida a
 banquete de boda
ordi-poto bat (B): borrachinga
gizon-sagardo (G): sidra seca, no dulce
lan-giro (G): buen tiempo para trabajar
gizon arto-puska izan (L): ser un buen
 hombre
emakume etxemaitea (G): ser mujer de su
 casa, hacendosa

3.3.10. Sintagma bat adjetibo gisa

Ondoko adibideotan adjetibodun izen-sintagma batek adjetiboarena egiten du. *Ipur-tandi* eta horren modukotzat jo daitezke. Hala ere, baliabideak baliabide, sail gisa eman dira.

gizon zorro handi (L): panzudo
kapela goi-handi eta magal-zabal (B):
 sombrero de copa alta y alero ancho
nekezale edan-sarri (B): trabajador borra-
 chin
pertsona jan-zaharra (L, B): persona que
 ha estado largo tiempo sin comer

3.3.11. Modifikatzailedunak

Adjetiboari zerbait eransten dioten osagaiena teoriarari gehienek jorraturiko alorra da. Hona hemen aipagarri irudituriko albatzuk, gutxiagotan aipatuak.

gogotik gizena izan (G): hombre muy gordo
asko moduzko zauri (G): herida grave
lur heze-antza (G): tierra un tanto húmeda
neke-antzeko lur (G): tierra dura de la-
 brar

segaz jotzeko modukoa (G): a punto para
 cortarla

bildu-urren (AN): casi recolectados
nahi ahala josteko (B): toda las costura que
 quiera
ekin ahalako lan (B): trabajo afanoso
gogotik gizena izan (G): hombre muy gordo
txitezko onak (G): muy buenas/os

3.3.12. Enfasi bidezko adjetibazioa

Euskal adjetiboaz ari izan diren pentsalari gehienek aipatu dute sail hau. Mokoroaren lanean honelakoak ediren dira:

Hau bai dagoela neskatxa! (GB): chica
 lucida
Ez duzu belauñ gogorrik! (G): ¡qué ágil
 eres!
Txilibitu hori/horrek! (G): ¡el escualido /
 chupado ese!
Hori sagardotxua dago! (G): ¡Qué sidra
 más deliciosa!
Hau da sagarraren emana! (G, L): ¡Qué
 cosecha tan buena!
Zoritzarreko tren! (B): tren de poco va-
 lor, ¡menudo tren!
Moldakaitz bera naizena! (GN): ¡con lo
 torpe que soy!

3.3.13. Ezezkoak

Hauek ere morfologia aldetik beste sailen batean sailka litezkeen arren, baliabide gisa nabarmentzekoak dirudite.

ezin-janeko (G): incomedible
nahi-eztako hondarrak (G): sobras de co-
 mida
ezin-egina (G): imposibilidad más absoluta

gauzaez (B): persona inútil

moldatu-ezina (G): desmañadalo

guzirako gauz-ezekotzat eduki (G): tener por inútil total

3.3.14. Ikuspegi desberdinak.

Itzulpena hizkuntzen kutsadura semantikorako bide ia oharkabea da, batez ere maiztasun handiko esamoldeetan. Jarraian jasotakoetan, segur aski, gazteleraz "caída fea" esan liteke, edo "herida con mala pinta", baina bertara bildurikoak dira Mokoroak emandako itzulpenak. Finean, Vinay eta Darbelnet-en ihardunbideetariko baten aurrean geundeke, garrantzi handikoa, arrotasunerako bidea izan daitekeelako xede-hizkuntzan zuzen eta artez eman ezean. Jakina, afera hau ez da adjetiboena soilik, aditzekin ere usu izaten baita: "gatza eman" = "echar sal", "hacer ruido" = "zarata aterá". Baina adjetiboa idazgaia izanik, bego atal hau ohar gisa.

erori itsusi (L): mala caída

ikusi txarreko ebaki (G): herida de feo aspecto

3.3.15. Atzizkidunak

lur behar-erraza (B): tierra fácil de labrar

lur erabilerraza (B): tierra fácil de remover

3.3.16. Erlatibodunak

Erlatiboa oso bide ezaguna dela jakinik, berezitat jotako erakusgarri batzuk baino ez.

guztiabaldagiena (B): todopoderosa

besterik ezin deneko erremediua (G): excusa de la impotencia

jatorritik jatorrira dituen ekanduak (B): costumbres tradicionales

ahaldentxo guztian jardun (G): haciendo todo lo que buenamente puede hacer

3.3.17. Nahas-mahasa

Atal honetara beste sailetan ondo egokitzen ez direnak edo esamolde gisa nabarmentzat jotako batzuk bildu dira.

ibil-gona (B): falda de calle

orratzetik hara legez jantzi (B): vestir como recién salido/a de la sastrería

ukondoa goitik erabiltzen zale (B): aficionado/a a empinar del codo

azaletik-laster gogorrak diren lurak (B): tierras de poca superficie laborable

lehorrari eusten gogorra (G): resistente a la sequía


behi ume egin berri (G): vaca que está criando

oihal lobi-hartzailea (B): paño sufrido

alkondara bigun zalea (B): aficionado a camisas finas

eman-ekarria (G): confidente, correveidile

bibote eder expain guztian betea (AN): bigote lucido y bien poblado



3.3.18.- Kategori aldaketak.

Oso atal garrantzitsua litzateke, eta hala aitortzen du Euskaltzaindiak ere, norabide bikoia denez gero, alegia, sorburukoan adjetiboa ez denak xede-hizkuntzan adjetiboa lagun eramatea gerta daiteke eta alderantziz, sorburukoan adjetiboa agertu arren, xede-koan halakoren izpirik egon ez. Ondorioz, horrelakoak nekez aurkitzen dira hiztegi bidez, Vinay eta Darbelnet-ek aipaturiko itzulpen-ihardunbideen alorrera lerratu beharra legokeclarik. Ikus daitekeenez, luze bai luze da saila, eta, zoritxarrez (?), hiztegiari orpozozpo jarraiki itzultzen dutenen kaltean, hiztegi bidez nekez argitzekoa.

gabe (G): *persona inepta*

ernal (NG): *(oveja) preñada*

adinean goratxo egon (B, m): *ser de edad avanzada*

azal bete-betea egon (B): *ser muy gordo/a*
hezur handiak eduki (B): *estar hecho un hombrón*

nere zahar guztian (G, rent): *en mi avanzada edad*

umetxutan (B): *en la primera infancia*

dena zaina du (NL): *ser vigoroso/a*

hezurra eta azala egon (G): *ser esquelético/a*

buruko minen buruko minez (B): *terrible dolor de cabeza*

bestez behar duena (G): *el que no se vale por sí mismo*

huts (B), *oker* (NG): *defecto físico*

lagun argi (G): *lazarillo*

ezin-esana eduki (B): *ser tartamudo/a*

jan arinean ibili (G): *andar a dieta*

jan-edan larretara emana (B): *entregada/o a la gula*

haragitarakoa izan (G): *aficionada a comer carne, res destinada a carne*

gozagarri (G): *cosa apetitosa*

ogiak bihotza eduki (B): *pan mal cocido*

ogia ore da (L): *pan crudo, mal cocido*

eder etorri (B): *buena perspectiva (cosecha)*

ur-aparretan ibili (G): *andar boyante*

3.3.19. Erdaritikako adjetiboak

Ahor beste sail bat hiztegiatan nekezago agertzen dena, hiztegi-gile gehienek nolabait teko beldurra, higuina edo begirunea dietelako halakoei. Horrela, mailegu irentsiak, irensgabeak eta murtxikatzen hasi berrikoak agertzen dira eguneroko hizkeran, horietako batzuek islada izaten dutenak herri-literaturatik hurbil dauden izkribuetan, baina askotan hortik igaro gabe.

edale maju

primerakoa izan

markakoa izan

animoso ibililegon

segurua izan

popuertzakoa izan (B, Fray Bartolome)

enbustetua izan

interesatua izan

justu manamenduak (Zib. Etxeb.)

venial fultak (Zib. Etxeb.)

enganoso munduan (Zib. Etxeb.)

arazo sozialak

garraio publikoak

majo ibili

airosa izan

iguala izan
diferentea izan
klaro egon
santu izan
irentsi-behar tristea (GB)

3.4. Adjetibo-atzizkiak

Adjetiboak sortzen dituzten atzizkiak sail modura ez dira berariaz inon aipatzen. Hori dela-eta, Jesus Mari Agirrerren "Euskal gramatika deskriptiboa" lanera (1991, 1.180. orrialdetik aurrera) jo izan da. Honako meta hau eskaintzen da bertan. Lekukotasunen berri zehatzagoa jaso nahi izanez gero, begira bitez aipaturiko liburuan.

a) Sujetoa:

-gin: "Zurginga zen ogipidez"
 -le: "Negarra bera da nahiko esale"
 -gile: "Ez zan amoregile"
 -tzaile: "Gizon garaikor eta menderatzailea zen Allende"
 -ari: "Katakumak baño olgetariago"
 -sa: "Jainkosa bihurtu nuen oharkabea"
 -zale: "Ikastun, asmozale: alkarregaz ikasi genduan (...) "
 -dun: "Zeren kulpante, zeren errudun sentitzen haiz, bada?"
 -ante: "Antxoak diztiranteak kubiarta gaienari jautzika"
 -ero: "A ze guzurertero-taldea zaretan denok ere!"
 -zain: "(...) urrutitik dakusa farozainak"
 -ide: "Zeren zuk ezpaituzu zure senara bizikidetzat (...) nahi"
 -buru: "Zorion-irritsa da, bai, nere kezka-buru"

b) Ugaritasuna

-tsu: "(...) jardun gogotsuetan egoteko"
 -zu: "Bihotz-errebista kakazu (...) "
 -ti: "Nekati, morroiak baietz egin zion buruarekin"
 -oso: "(...) neurritz gaineko setosoa"

c) Joera

-or: "Noiztanik da gizona pentsakorra?"
 -oi: "Euskalduna hitz gutxikoa duzue, isila, barrenkoia"
 -bera: "Orain irribera dago (...) "
 -ile: "Ai, kakile nauk, aita"

d) Erlatiboa

-ar (-tiar, -liar): "Mutil gaztea, goiztarra, (...) "
 -ko (-zko): "euskal batzarrekerik lotsaizunezkoenean"
 -ante, -al: "zeukan sinu mespreziantea"

f) Baloratiboa

-garri: "Topa, beraz, guztion osasungarri"
 -gaitz: "Napoleon oronahi asekaitezaren soldadu baitabil"
 -ezin: "sendaezina"
 -erraz: "Osasuna oso gauza galduerreza zala (...) "

g) Gabezia:

-gabe: "esakeran tolesgabea"
 -izun: "helburuak lorkizun dituztela (...) "

3.5.- Adjetiboak konposakeran

Zuzenean zein zeharka agertu diren arren, adjetibazio-bide garrantzitsu honi aipu egiteko, hona hemen, atzera ere, "Euskal gramatika deskriptiboa" (1991, 1.226. orrialdetik aurrera).

3.5.1. Adjetibo-bikoteak

a) Erlaziorik gabeko adjetiboak:

"Zer eta otso haundi-beldurgarri bat (...)"

b) Adjetibo kontrajariak:

"Hiregana eta hiregatik hurbil-urrunka dabilen arraunlari (...)"

c) Berrespen-bikoteak:

"(...) bere buruan erabilen estu-larria"

3.5.2.- Izena eta adjetiboa

a) Adjetibo arrunt gisa

"txakame, txotxapaindu, buztanikara, diruzale, (...)"

b) Izate edo jarrerazko balorazioa

"odol-bero"

"odol-gaizto"

c) Portaerazko kalifikazioa

"giza mordo fedebeto"

d) Lokarri sintaktikoz jokatua

"(...) ziñoan atso gerrilodi, gonamotz, eskuzikindun batek"

e) Izena eta partizipioa

"(...) etsia eta gogo-urritua"

f) Izena eta adjetibo eratorria

"Eta, hik, Fullini, tunel-egile etsi erraz ohore-gose horrek?"

g) Atzizki bidezkoa

"Denbora guzia begi-betegarri eta gorputz-arimen atsegigarri"

3.5.3.- Adberbioa eta adjetiboa

a) Adberbioa eta adjetibo hutsa

"(...) beti-garbi bat, erdoi-ezin bat"

b) Adberbioa eta partizipioa zein aditz eratorbidezkoa

"kritiko asko-jakinak"

3.5.4.- Aditza eta adjetiboa

Aditzi gaitz, erraz, min, zain baloratiboak eta berri, zahar aspektualak eransten zaizkie.

"Osasuna oso gauza galdu erreza zala irakatsiaz"

3.5.5.- Izena eta izena

a) Izen hutsa gehi izen hutsa

"Inork pentsa zezakeen baino astolapiko handiagoa baitzen"

b) Adjetiboa eta izena

"Basurde horrek txiki-arraio egingo gintuzke"

c) Aditza eta izena

"Konta-katiluren bat (...)"

3.5.6.- Aditza eta izena

"Ate gibelean geratu zen adimin ibiltaria"

3.5.7.- Bestelako egiturak

a) Ezeztapenak

"Baina orain eta hemen behar dudarik zer gutxi eta zer gauzaezak"

b) Bikote kontrajarrikoak

"Catalunya erri nai-ta-ezin bat omen da"

4.- Eremu semantiko bat zedarritu nahian

Mokoroaren "Ortik eta emendik" (1990) horretatik ateratako laginetik (bi ale potoloen zazpiren bat), hona hemen "handi" adjetibo ezaguna zenbat aldiz agertzen den. Irakurlea, gaztelarazko sarrerei erreparatuz

gero, berehala konturatuko da sarreran aipaturiko hiztegi elebidunen segadak zenbaterainokoak izan daitezkeen. Adibidez, ezagun-lagun eskolatuci "poderoso" euskaraz nola esaten den galdetu, ea zenbatek ematen duen "esku handikoa" edo antzeko zerbaite.

- *gizon handi usteko (G): hombres que se creen importantes*
- *osin handian sartu (G): obtener buen empleo*
- *handi-lan (G): tarea fuerte*
- *arazo handietan ibili (AN): andar muy ocupado*
- *toki handia hartu (G): abrir mucho camino*
- *gora handia egin (B): prosperar mucho*
- *asmo handi (B): gran proyecto*
- *aurre bide guztiz handi (B): gran progreso*
- *bide handia(k) egin (B): avanzar, progresar*
- *porru-hazi handirik atera ez (G): no sacar buen provecho*
- *ezer handirik atera ez (G): no sacar gran provecho*
- *aurreraka handi (B): gran avance, adelanto*
- *ibilera handi (G): trayecto largo*
- *gaizkin handi (B): gran delincuente*
- *lan handi (L): gran obra*
- *doktor handi (L): doctor famoso, grande*
- *egiteko handi (G): gran empresa*
- *eginkizun handi xamar (G): responsabilidad de cierta importancia*
- *edur handiak (GB): grandes nieves/nevadas*
- *apeta handi (G): gran afán, afición*
- *gauza handi (G): motivo importante*
- *bide handi (G): motivo, fundamento importante*

- *handi gaizto (G): poderoso malo*
- *berezko indar handi (B): gran influencia natural*
- *lan handi (G): gran aventura*
- *ur handiegiak (G): aguas profundas*
- *adiskide handi (G): grandes amigos*
- *ganora handia ekarri (B): traer buena disposición*
- *antze handiko (L): de gran talento*
- *handia izan zerbaitetarako (AN): ser muy a propósito para algo*
- *mutil handiak izan zeozertan (B): ser duchos, sagaces*
- *erakutsi handi (B): mucha instrucción*
- *erdaldun handi-handi (G): persona que sabe bien el castellano*
- *taju handikoa etorri umea (G): traer disposición para algo*
- *indar handien jabe izan (G): ser poderoso*
- *gai handiko (L): de gran capacidad, de grandes recursos*
- *esku handikoa (G, B): poderoso/a*
- *upela baino handiagoko mozkorarrekin (G): gran borrachera*
- *habe handi (G): soporte o pie grande*
- *kapela goi-handi (B): sombrero de copa alta*
- *izur handi (G): frunce o dobladillo*
- *berriketa handirik gabe jositako prakak (G): pantalones cosidos con sencillez, sin adornos*
- *eraztun begi handiak (G): sortijas de abultado engarce*
- *kapusai handi (G): poncho grande*
- *jan handituta egon behia (B): estar meteorizada*

- *arto-gose handi (G): poca cosecha de maiz*
- *kopuru handi (G): cosecha abundante*
- *harri-eraso handi (G): granizada grande*
- *belmin handi (AN): golpe rudo*
- *burukomin handi (B): gran quebradero de cabeza*
- *Martin-pulu handi (NL): apisonadora*
- *zauri handi (B): gran herida*
- *lur-bazter handi (G): gran extensión de tierra*
- *handirako (G): cubiertos para los platos del principio*
- *egosi handi (B): medio cocido*
- *ongailu handi (L): excelente condimento*
- *ardo handi (G): vino de calidad*
- *barrengo hotz handirik gabea (G): muy bebida/o*
- *ardozale handi (B): gran bebedor*
- *eztei handi (G): cuchipanda grande*
- *bazkari handitxo (G): comida más que que regular*
- *ogi-pusketa handi (G): zoquete de pan*
- *jan handiko (G): de mucho comer*
- *kutizia handiko (G): caprichosalo para comer*
- *jale handi (G): buen comedor, insaciable*
- *sabel handiko (BG): tragón, gargantúa, comilón*
- *gose-aldi handi (G): hambre atrasada*
- *ekin handia egin (G): comer con aplicación*
- *jateko deia handi du (L): tener mucho apetito*
- *hil handi (B): medio muerto*
- *alde handi (G): gran diferencia*
- *gora handi (B): mejoría*
- *hoberantza handi (B): mejoría grande*
- *zauri nahiko handi (G): herida de consideración*
- *min handi (B): mucho daño*
- *zalapartako handi (L): caída grande*
- *gor handi (B): sordera grande*
- *hankarte handia duen emakumea (G): patizamba*
- *erren handi (G): gran cojera*
- *burutik beherako handi (G): gran catarro de cabeza (romadizo)*
- *dardar handi (G): temblor grande*
- *mozkor handi (G): borrachera tremenda*
- *buru handi gelditu (G): atontarse*
- *gaitzak indar eta su handia hartu (B): agravarse enfermedad*
- *sukar handi (L): fiebre grande*
- *atzera-aurrera handirik egin ez (G): estar estacionario*
- *gaixo handi (B): muy enfermo*
- *eri handi eta handi izan (L): enfermalo muy grave*
- *ardura handiko gaixo (B): enfermo de cuidado*
- *makalaldi handi (B): enfermedad grave*
- *begizulo handi (G): ojo hundido*
- *lanbide handi (G): sufrimiento grande*
- *oinaze handi (G, L): gran dolor*
- *min handitxo eduki (G): doler bastante*
- *ezinegon handi (G): desasosiego grande*
- *gaitz handi (G): enfermedad grave*
- *gainbehera handia egin (G): sufrir un gran bajón*

- *handi-gaia da (G): va a crecer mucho, trae mucho cuerpo*
- *gizon bezur handiko (B): fornido*
- *osasan-aldi handia egon (G): reinar la buena salud*
- *jakinduriako bizar handiak (G): grandes barbas de sabio*
- *zuhurtzia handiagoa (L): discreción mayor/ superior a*
- *zahar-gazte handia izan (B): gran diferencia de edad*
- *txakur jezarrri bat baino handiago ez izan (B): de ruin estatura*
- *toki handia eduki praktetan (G): venir grandes los pantalones*
- *mutil handia egin (G): ser mayor (umeeekin erabilia)*
- *lagun handi (B): gran amigo*
- *kankailu handi (G): hombretón*
- *hezur handiak eduki (B): estar hecho un hombrón*
- *handi denborako ibilera txar (AN): mala conducta edad adulta*
- *gizon zorro handia (L): panzudo*
- *gilbor handi (B): barrigón*
- *ama adina handi egin (G): tan alta como la madre*
- *adin handikoak (L): los viejos*
- *adin handi (G): la mucha edad*

5.- Irteera

Amaitzeko, Ludwig Wittgenstein-en berbak erabiliko ditugu, Jose Luis Alvarez Santa Cristinak eman bezala:

“Eguneroko hizkuntzan arrunt sarritan suertatzen da hitz berak modu eta molde desberdinez izendatzea –ikur desberdinei dagokiela, beraz– edo bi hitz, modu eta molde desberdinez izendatzen dutelarik, itxuraz modu desberdinez enpleguak izatea perpausean.

Honela, ‘da’ hitza kopula gisa agertzen da, berdintasun-zeinu gisa eta existentziaren adierazpen gisa; ‘existitu’, aditz iragangaitz gisa, ‘joan’ bezala; ‘identiko’, adjetibo gisa; *zerbaitetaz* hitz egiten dugu; baina baita halaber gertatzen ari den *zerbaitetaz*. ‘Gorri gorri da’ perpausean –non lehenengo hitza pertsona-izena den eta azkena adjetibo bat– hitzok ez dute esanahi desberdina soilik, *ikur desberdinak* baitira baizik.”

(...)

“Hartara, ‘Sokrates identiko da’-k ez du deus esaten, ‘identiko’ hitzari, *adjetibo* gisa, ez diogulako *inolazko* esannahirik eman. Zeren eta berdintasun-zeinu bezala agertzen denean, modu eta molde guztiz bestelakoez sinbolizatzen baitu –izendatze-erlazioa beste baita–; ikurra ere, beraz, guztiz desberdina da bi kasuetan; ikur biek zeinua dute soilik, ustekabean, amankomunean”.

BIBLIOGRAFIA

- LAMIQUIZ, V., *Lingüística española*, Publicaciones de la Universidad de Sevilla, Sevilla, 1975.
- NEWMARK, P., *Manual de traducción*, Catedra, Madril, 1992.
- AGIRRE, J. M., *Euskal gramatika deskriptiboa*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1991.
- LAFITTE, P., *Grammaire basque*, Baiona, 1962.
- MITXELENA, K., "Nombre y verbo en la etimología vasca" in *Fontes Linguae Vasconum*, 1970.
- VILLASANTE, L., *Estudios de sintaxis vasca*, Editorial Franciscana, Aranzazu, Oñati, 1983.
- EUSKALTZAINDIA, *Euskal gramatika. Lehen urratsak*, Euskaltzaindia & Nafarroako Autonomi Elkartea, Nafarroa, 1985.
- DE ALTZO, D., *Estudio sobre el euskara hablado*, Donostia, 1961.
- MOKOROA, Justo M., *Ortik eta emendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca*. Labayru, Eusko Jaurlaritza, Etor. Bilbao, 1990.
- WITTGENSTEIN, L., *Tractatus logico-philosophicus*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao, 1990.

Hura, bera eta abarren adar gehiago

JUAN GARZIA GARMENDIA

Aurriritzi merke bezain zabaldu baten arabera, hizkuntz kontuetan —eta areago literatura tartean denean— teorizazioa —eta errigorea bera— praktika jatorraren etsai da. Kontrakoa ere ez da egia erabatekoa izango beti, baina oraingoan behintzat ondo gezurataturik geratu da aitzinuste eroso-interesatu hori.

Izan ere, SENEZerako artikuluko bikain baten egileak berak (*Hura eta bera/Haren, beraren eta bere*) are itzulpen bikainago bat plazaratu digu (*Gure garaiko heroia*) denbora gutxi dela, bietan ere zenbaitek elkarren ukatzailetzat jotzen dituen bi alderdiok elkarren elikatzaile izan daitezkeela garbi utziz. *Quod natura non dat Salmantica non prestat*, noski, baina Salamancatik ez pasatu izanak ere (edo bertatik pasatu eta damutu, edota estudiante tunante huts ibiliak...) ez du naturaren dohain joriagorik bermatzen, inondik ere. Hala nahi luke, hala ere, askok. Ez jakin izan eta inoren jakintzak alferresteak bera jatorrago bilakatuko balu bezala. Edonork baitaki jeinua naturakume jator eskola

beharririk gabea dela... baina zerbait itxurantzekoa egiteko gaitasun eta kemena frogatzen duenean (halakoei ahanzten zaienez).

Lan bikain bion egileak, berriz, eginak egin, "filologi ikasketarik ez dut, ez naiz hizkuntzalari" dio, terminologiaren balizko zehaztasun-faltarengatik aurretiazko barkamena eskatuz, egiten duena ondo egiten saiatzen denaren besteekiko apaltasun jatorrez. Ikastea luke, haatik, hainbat filologok (ez da gremio-higuintza: neu ere sail horretakoa naiz ikasketaz) curriculumak potolotzeko fiskeria astunok (edo debeku-arau zorrotz antzuok) baino gauza praktikoagoen premia badela eta berak jasaten dituen gizarte honek gustura hartuko lituzkeela *beraien* (*beren, haien, e(u)ren*) ekarri xumeak ere; ez dutela beldur izan behar, inork ez dituela horregatik gutxiagoetsiko (zientifikotasuna soilik *kreditu* akademikotan neurtzen dena delakoan)... Baina natorren ni ere harira.

Jose Moralesen barka-eske horren zioa ez da, hala ere, aidanean, zehaztasun falta, filologi lanetan ardurako dabilen nahasitasun

lauso berarenean argitasun zorrotza izatea baizik. Bere lana taxuz betetzeko nahiak berak Euskaltzaindi ofizialaren eta ingurumingurularien *literatura* egosgaitz guztia iren-tsarazi dio, nonbait, eta *Stokholmeko* sindromearen ahaideren batek jota dago gaixoa. (Lasai, motel, beren arauak betetzeko gauza ere ez dituk-eta idazten dituzten lau lerroetan, eta beste lau bizialdi —eta hamalau Salamanca— behar litzizketek hire orrialde batean —teoria zein praxis— dagoenaren laurdenari ere urrutitik usaina hartzen hasteko!)

Nik ere, baina, ahalegintxo bat egin, eta ekin diezaiodan neureari. Eta nirea, oraingo honetan, ez da, ez *fillollogoen* kontra perurenkeriatan jardutea, ez eta berez bikainari bikaintasun-koiperik ematea ere. Horrexegatik, sarrerakeriak bertan utzi, eta J. M. en artikulua mamiarekin elkarrizketa ahalik eta dialektikoenean hasiko naiz zuzenean (zintzotasuna beste gupidarik gabe), ea bion —artikulugilearen eta nire— arteko iritzitrukaketatik —*haren, beste horren, gure*— denon probetxurako atarramenturik batere ateratzen den.

Nire honek osagarri izan nahi duen aldetik, ahal den neurrian artikulua hariari helduko diot, eta azken ondorioetan nola baiteko sintesirako saioa egingo.

Hasieran, asmoen agerpena eta segituan, aipamen llabur bat egiten da artikuluan “inguruko hizkuntzena”. Gero, ordea, konparaketa horrek garapen luzea du; zenbateraino, eta atal horren (“*Hura eta bera*”) nagusi egiteraino. Mereziko du, beraz, iruzkintxo bat.

Aldez edo moldez gure erreferentzia nagusi diren hiru hizkuntzen artean, artikuluko aipamentxo horretan dirudien baino aise desberdinagoa da izenordainon aukera eta

egoera (areago, sujetu hutsetik apartekoa kontuan harturik: akusatiboak, datiboak...). Hasteko, frantsesez —eta ingelesez— derri-gorrezkoa da sujetuaren agerpena, espainieraz —eta euskaraz— ez bezala. Anbiguitate erlatibo hori konpentsatzeko, gero eta gehiago jotzen du espainierak berez ez dagokion esplizitazio soberatura (*viene, han actuado* eta *ella viene, ellos han actuado* gauza bera balira bezala gaztelera arruntean). Madrid aldeko *laismoa* ere sasoi oneko dabil azken orduko literaturan, antzeko arrazoiz (*la dije*).

Gurean, bistan da, genero bereizkuntzarako funtzionala ez izateak bazterrarazten du halakoen kalkoa (ETBn izan ezik, baina hori euskara mundiala da). Horregatik ere (beste arrazoiak zeharka emanik daude artikuluan), kexutat hartzen dut, eta ez proposamentzat, Maria Garikanorena, alegia Axularri-eta nola ez zitzaien bururatu hori ere konpontzea (erreparatu, bestetik, haien konpon-uste askori nolako jaramona egiten diogun, “zeren” batzuk gora-behera).

Oraingoz, bada, hobe genuke ahalik eta zehatzen eta zentzuzkoen erabiltzea geure **hura** eta **bera** eta abarrak, etorkizuneko izenordain balizkoaren xerka setatzea baino. Lehen ere osatuxeak gaude *geurean* (teoriakeriari men egitearren darabilt forma hori, senak *gurean* soila eskatzen zidan, horra) asmakeriaz, eta itzulpencan, berriz, hori “konponduko” bagenu ere, hurrengo balio-kide-etzari ekin beharko genioke berehala amorru berberaz, ongi baitakigu gabiltzanok itzultzen *automatikoa* ez dela teorian bakarrik ezinezko. Ni neu (artikulugilearen iritziarekin bat), konbentzio hutsezko diren kontu formalagoak erabakita baleude konformatuko nintzateke, Euskaltzaindiari nahiz zaindirik gabeko hiztunei halako miraririk eskatu gabe.

Pobrearen etxean ohi denez, abantaila genukeenean ere, arazoak sortzen zaizkigu. Espainierazko *su* guztiz anbigua gure sistematik gutxienez numeroz bereizten badu ere (haren/haien...), zalantzan geratzen gara gero haren ala bere behar ote duen... eta susmoa ere badugu —eta ez guztiz egiatik desbideratua— ez bata eta ez bestea ez ipintzea ez ote genukeen hobe, halako zalantzetan gertatzen denez (eta arau teorikoak ez baitigu gauza handirik konpontzen)... Baina hori beste atalari dagokio, eta ez dezagun nahas kontua berez den baino nahasiago, eta itzul gaitezen hasitako ildora.

Maskulino/femenino bereizkuntzaren aurretik ere bada beste bat, gurean marka berezirik ez duena: neutroa. Horrek areagotu egiten du gure sistemaren zehaztasun-falta. Izan ere, inguruko hizkuntzok, gutxi-asko, badute modurik ez-pertsona bereiziki markatzeko: *it / ça , celà / ello , esto , eso , aquello...* Gurean, berriz, artikulugileak ongi seinaltzen duen erakusle/pertsonal forma-berdintasuna ere tarteko, “hura”, adibidez, espainierazko ordainean *ello , él , ella , aquello , aquél , aquélla* izan daiteke (baita *éste , ésta , esto* ere, praktikan), eta horrela sistema guztian. Gauzak horrela, zerbait behintzat garbi edukiko ahal dugu: ezin dela, alegia, erreferentzien anbiguitate izugarri batean erori nahi ez bada, beti **hura** erabili (edo **bera**, edo beste zeinahi, horretarako berdin dio) beraren (*bere? haren?*: “hura” horren) baliokide teoriko guztien ordain automatikotzat. Horretaz gainera —eta gero itzuli egin beharko dugu oraingoz horretan utzi dugun hizkuntz erkaketa horretara—, zentzu ez-pertsonalaren markarik ez horrek, itzulpenetatik kanpo ere hamaika anbiguitate sortzen du, espero izatekoa denez, “ekarri duen hura”, “ekarri due-

na” bezain perpaus txiki-oinarrizkoetan ere. Arazotxo hori buruhauste latz bihur daiteke, noski, albo-erdaretako abstrakzio-hizkera itzultzeko orduan: *lo bello / le Beau...*

Abstrakziorako azken pausook euskarak gramatikalki ez eman izanak eragiten du, hain zuzen, erakuslea bera izenordain pertsonal soiltzat erabiltzen duguneko desegokitasun-sentsazio erlatiboa (erdarokiko konparatiboa, hain zuzen). Hori *konpontzeko* ahalegina suma daiteke izenordain pertsonaltzat “bera” bereizteko joeran (zenbait gramatika zahar-txotan eta gure arteko hainbat erabileratan). Kontrako bidetik, idatzizkoan “berau” erakoak bereizitu nahi izan ditu hainbatek zentzu neutrorako... Izan ere, jende guztiak ez dauka Jose Moralesek bezain garbi, asmatu ahalak asmatu, “ditugun oinetakoekin ibili behar dugula”. Oinetakook zein diren egoki azalduzik dator artikuluan, eta asistematikotasunez-edo erreperitorio zehaztetik kanpo geratu direnei buruz ere erabat ados nago ni: “Azken batean, senak esango digu kasu bakoitzean zein den irtenbiderik egokiena.”


Kasu, baina: azterketa teoriko-praktiko baten ondoren dator “azken batean” hori, eta “sena” aipatzean ere ez da ari, noski, euskaldun jatorren paradisutik zuzenean datorren Adan-Aitor halako batez. Izan ere, sena ere landu egin daiteke, bistan denez, eta sen desberdinak kontrastatu ere bai.

Horrenbestez, **hura** eta **bera** dontsuon erabilera egokiari buruzko tesira hurbiltzen ari gara, baina derrigorrez —eta gogoz beste— zehaztapen terminologiko batzuk egin behar ditugu aurretik. Iturri askotako terminologia-urak nahasten dira halabeharrez izenordainon izendapenean: EGLU, Azkue, Villasante, Altube... Gainera, batzuetan ez da garbi geratzen euskaratzean gertatu ote

den dibergentzia, ala berez ere, kontzeptualki, desberdinak diren terminoak: indartua, bihurkaria, *anafórico*, *intensival reflexiva*, *reproductivo*... Nik neuk, ez dut sekula garbi ikusi zer arraio indartzen duen ber-horrek (-xe atzizkiaren bidez eratuek mereziago dukete noski izen horixe). Artikulugileak ematen duen definiziotik ere *erreferentzia-errepikapenezko* edo deitzeko zio gehiago eta garbiago aterako litzateke, ustez, baina tira: lagungarri bezainbateko morrontza ere bada askotan terminologia, eta saihts dezagun oraingoz auzi hori ere (amaieran doa nire proposamena).

Ongi seinalatuturik dator erabilera desberdinak ageri direla, oro har, *ekialdean* eta *mendebalean*: *mendebaleko* usadio modernoan badirudi aurrez nola edo hala erreferentziatzat hartu izana aski dela ber-erakoak erabiltzeko. Erabilera arauz haragoko horrek (bistan daude ondorioak) ia beti erabiltzeko bidea uzten du irekita, eta lehenago aipatu dugun joera batekin batzen da, gainera: pertsona-adieran “hura” *erakusleegia* baztertzea, alegia.

Beste modu ulergarriago —eta akaso zuzenago— batean esateko: gazteleraren sistemari dagozkion bereizkuntzak euskararen sistemari jaramon handirik egiteke kalkatu ditugu: *aquél/aquella*: *hura*, *él/ella*: *bera* (gero ikusiko dugunez, kalko okerra ez da horretan geratzen). Horiek horrela, zentzuzkoa da, oso, gehiegikeria horri ahalbait frenua jartzea, eta izpiritu horrekin ematen digu artikulu-



gileak “nagusiki forma arruntak erabiltzeko” aholku zuhur bezain funtsezkoa. Horrek, hala ere (eta ez dakit hain garbi geratzen den hori artikuluan) *ekialdeko* erabilera hobestea esan nahi du, zintzo zurrean (*ekialdeko*tzat jotzen den halako asko euskara guztia-

rena izan bide da oraintsu arte, nahiz berrikerien zabalkunde azkarrak hori mozorrotu). Kasurako, Axularrek ez darabil ez “bertan”rik ez “hauxe”rik ez “berbera”rik ez “halako eta bere”rik... **Beraren** solteren bat bai noski, baina normalean aski du **haren** (korreferentia ber-bertan duen kasuan ere, askotan seinalatu den *ekialdeko* bide berezitik):

... bertzeren gezurrak indar gehiago duela, beraren egiak baino

erran zuen semeak, ioan zen aztore hura zela, haren (semearen) aitak arima-kari utzi zuena. Ez zuen erran berarentzat (semearentzat) utzi zuena zela.

Eta horretaz ari garenez, euskalkiekiko hain sentiberak garen honetan, euskalki guztiak izan beharko genituzke gogoan. Horregatik, faltan bota dut, oinarrizkoetan, Zuberora eta Baxenabarreko erabileraren aipamena (besterik ez bada, Miranderen bitartez), zeinean **bera** beste euskalkietako “bera bakarrik”, “bere gisa/kasa” baita (**nihaur/neuror** seriekoa, alegia: “nerau —(ni) neu— bakarrik”):

“Atharratzeko zeñiak berak arrapikatzen”
“Bera dago”

“Nihaur gauerdiz nintzen barda”).

Horra beste arrazoi bat abusua gaitzesteko.

Bada kasu bat, hala ere, literatur hizkera bete-betean harrapatzen duena, zeinean **bera** erakoak nahitaez erabili behar diren, guztiz oker ez banago (ekialderik ekialdeeneko estiloan ere). *Zehar-estilo libre* delakoaz ari naiz. Hain zuzen ere, ikusten ari garenez erreferentzia-errepikatua izanik alde edo moldez beraren erabileraren funtsa, testu batek pertsonaia baten ikuspuntua segitzen badu, ikuspuntu horrekiko erreferentzia markatu beharrak eskatzen du, beste hirugarren pertsona batez ari garela ulertuko ez bada, *bera* formaz baliatzea, nahiz erreferentzia implizito hutsa izan.

Gramatika-legeak salbatu nahi dituenak beti esan dezake *konpletiboa gobernatzen duen aditz baten sujetua dela erreferentzia, delako perpaus nagusi hori azaleko egituran ezabaturik ageri bada ere*. Lasai: adibide simple batek argi dezake horrela esanda hain korapilotsu dirudiena: eman dezagun pertsonaiak une batean zera pentsatu duela: “Niri ez didate halako ziririk sartuko”. Estilo zuzenetik zehar-estilora aldatu, honelatsu emango genuke esaldia: “Pentsatu zuen berari ez ziotela halako ziririk sartuko”. Eta zehar-estilo librean, berriz, esaldi nagusia ezabatuko genuke: “Berari ez zioten halako ziririk sartuko”. Horrenbestez, garbi dago, ustez, azken bi esaldiotan “hari” jarriz gero hori pentsatzen ari dena ez den beste pertsona bat hartzen dela ziriaren hartzaile balizkotzat. Horretaz aparte, ez genuke ulertuko pertsonaia bere baitan pentsatzen ari dela hori, “berari” horixe baita zehar-estiloaren marka bakarra hor (beste batzuetan bestelako markak ager daitezke, noski —“ez horixe!”, esaterako, gure esalditxoan bertan—, edo testuingurua aski izan).

Antzera esplika daiteke —hizkera arruntari dagokionez— **neu, geu** formen ugalkuntza arauz gaindikoa. Hiztunak bere pertsona beti darabil nola edo hala erreferentziatzen, eta “nik diot” implizito horrekiko erreferentzia-errepikapena litzateke *neu* hori, lehen esaldian agertzen denean ere: “Neuretzat ondo dago (nik deritzot)”. Bestean, berriz, “gu” tribal nahiz gremial bat dabilke bazterrean utzi ezineko erreferentzia: “Geureari cutsi diote (*diogu nik, diot guk, gutarrek egin d(ig)utela*)” (ikus, genitiboan sailera pasaturik, “Geurea da” enfatiko ospetsua, zeinean —bere okerrean— zuzenago litzatekeen *indartu* terminologia, baina baita *murriztaile* edo *esklusibista* ere: “gurea, ez beste inorenna”). Hain zuzen ere, lehen pertsona modu enfatiko horretan azpimarratu ezean, “gu” horretatik kanpo geratzen dela sentitzen edo du hiztunak, edo harekiko hotz: alde horretatik, beraz, oker gramatikala derrigorrezko zaio hor zentzu subjektiboari (“herri” eta “euskara” hitzak letra larriz idaztera daraman paranoiatxo berberaz).

Bigarren pertsonakoetan antzeko zerbait dugula pentsa liteke (ikuspuntuaren erreferentzia jarraitu implizitua nagusitu dela, alegia), edo aurrekoen analogia formalez gertatu dela, besterik gabe: “**Zeurean** bizi da?”. (Berez euskalki-aldaerak baino ez badira ere, *-eu-* osagairik gabeko formek (egungo estandarrean ia presentziarik gabeak, *-eu-* formon nagusitasun eginkizun-oro-hartzaileak azpiraturik) bete lezakete funtzio (?) hori (beraren analogiaz, hain zuzen) ustezko gramatika-araua hausteke (genitiboetan bederen legetzat hartzen dena, alegia): “**Zerorrean** bizi da”, “**Gerona** da”, “**Nerontzat** ekarri du”...

Hala, genitibo *bihurkariak* (1) eta *ez-bihurkari/enfatikoak* (2) bereiz genitzake sistematikoki, nahiz hirugarren pertsonako pluralak gero eztabaidatuko dugun forma bate-ra ginderamatzakeen:

(1) *neure, heure, bere, geure, zeure, zeuen, beren*

(2) *neronen, herorren, beraren, geron, zerorren, zeron, *beraien*

(Nihaur(r)en erakoak (2) horren euskalki-aldaerak liriateke (berez (1) eta (2) ere hala dira, izatez, antza), baina, egia esan, galdegai posizio horretan forma arrunta agertzea da normalena euskara zabalean, nahikoa enfasi baitu posizioak berak. Ni baino ausartago batek Ataun aldean inoiz erabili omen diren *nixe*, *zuxe* formak ere berpizteko eskatuko luke, *bera/huraxe* oposaketari paradigma guztian eustearren: “*Nixe* joan nintzen, eta (*nerau*) irten nintzen garaile”. Izan ere, zuzenerakoan ez, baina okerrerakoan gara gu ausart, *-xe* atzizkitxo —*indartzaile?*— horren abusuan bertan, esaterako: “*Aurkezle bezalaxe* (sic!) *diotsuet...*”)

Bereizkuntza ez da komunikaziorako hain kritikoa lehen eta bigarren pertsona gramatikaletan: *nire/neure*, *zure/zeure...* (ikus Azkue: “*neure* kasa”, “*gure* kasa”; edo Agirre Asteasukoaren praktika, adibidez: “lotsa gaitetzen *gure* zabarqueriaz”). Erreferentea garbi dagoelako da hori posible (enfasia da alde bakarra, Agirrerren segida-segidako biotan bezala: “Eta cergatic era onetan alcha cera, Cristaua, cere Aita onaren contra?” / Utzi dezu *zure* Ongille andia aurqueri, edo atseguin lotsagarri bategatik?”), baina hirugarren pertsona ez-pertsona da, definizioz, izenordain huts bat, erreferente batek edo bestek bete dezakeena, eta hortik buruhaustek eta

zehaztu beharrak. Halaz guztiz, beste bi pertsonetan ere, erabilera zuzen abusu gabeak abantailak ditu, alde horretatik *ere*. Pentsa dezagun, adibidez, aditz jokatu gabeko esaldietan:

Nire etxean gertatzea ere! / Neure etxean gertatzea ere!

Erabilera arauaren araberkoa bada, lehenbizikoan “*gertatu da*” edo ulertuko genuke, eta bigarrenean, berriz, “*gertatu zait*”.

Beste zenbait arazotxo geratzen dira jorrazteko, aski funtsezkoak, eta kasu honetan artikulugilearekiko nire desadostasun batzuk agertuko dira. Errazenetik hasteko, nik sekula halako tentaziorik ez nukeen esaldiren batean *bera* ez erabiltzeko gomendio-legea ematean parentesian erreferentea jartzen duenean, nik neuk ez dut inondik inora ere ikusten hura denik (teoriakeriaren baten itsumenena sumatu uste diot hor). Garbiena bakarrik aipatuko dut hemen:

Ikasleetako batek zuzendariarengana jo zuen azterketa berriro zuzentzeko eskatzerara. Hura (ikaslea) urduri jarri zen bulegoko atea itxi orduko.

Hasteko, semantikoki (eta hori eskertzekoa da, asmoak asmo), esaldiak bi aukerak ahalbidetzen ditu, berez; alegia, ikaslea zein zuzendaria jartzea urduri. *Neure* esperientzia pertsonalak, behintzat, aise idarokitzen dit zuzendaria (eta/edo irakaslea) jar daitekeela urduri halako egoeran. Ez da hori, hala ere, kontua: niretzat esaldi horrek gramatikarik sakonen eta zorrotzenaz adierazten du *huraxe* dela (zuzendaria) urduri jarri dena, eta ez inolaz ere ikaslea, parentesiak boluntarismo hutsez adierazi nahi digunez. Prest nago aitortzeko erabateko anbiguitateak gertatzen

dirrela zenbait esalditan, baina hor ez, *nire* sisteman. Eta hortxe dago kokka: zerekin oposatzen da esaldiko *hura* hori, artikulugilearen sisteman? *Berarekin*, akaso? Hala liru-dike artikulua testuinguruan. Anbiguitate berbera ez al legoke, baina, *bera* erabilirik ere, sujetuak sujetu eta teoriak teoria? Zer, orduan?

Bada, ageri ez den zerbait dela hor *hura*rekin ustezko oposizioan dagoena, artikulugileak ahaztu edo —nahasbide gehiago ez sortzarren— aipatu ez duena. Non bilatu, beraz? Jose Moralesen idazkeran bertan, aindanean. Izan ere (adibide guztiak ez lirateke kabituko hemen), *beraren* sisteman, hor “zuzendaria” urduritzen dela uler dadin, *hau* litzateke anaforikoa, guztiz oker ez banago (halako adibideak jorratzean ez dago aipamenik ere, baina gero, bere errezeten abecedarioan, e) atalean gogorarazten digu “bestelako anaforikoak ere badirela: beronen, berorren, honen, horren...”)

Lanak aurreratu alde, *mendebalean* anbiguo gertatzen dela aipatzen den beste kasu batean gauza bertsua dugu, ustez, genitiboen sailean:

Koldok Miren bere etxera eraman du.

Hor ere, anbiguitate errendigaitz hori nola edo hala gainditu nahi duenak areago jo ohi du, erdararen kalko nabarmenez, *bereren* ordez *honen* edo jartzera, Moralesek aipatzen duen *haren* teoriko (baina kontraesantsu) horretara baino. Parentesiko kontraesanetarikoa behinena zera da, hain zuzen: anbiguitate bat saihestu nahirik, beste batean erortzen garela raust, zeren *haren* horren erreferentea ez Koldo eta ez Miren ez den hirugarren pertsona bat da berez (eman nahi zaion hori baino lehen, behintzat).

Bide hibridoak ere izan ditu bere modaboladak: *beronen*. Horrenbestez —garbi dagoke honezkero—, aipamentxook baino jorraketa luzeagoa eskatzen du erakusleen erabilera anaforikoak, hor (*bertan*, *hor berean*) baitatza erabilera desberdinen gakoetako bat.

Erakusle-sistemak, gaur egun eta aspaldi historiko luzetik, hiru gradu ditu euskaraz, espainieraz bezala (frantsesez, ingelesez, italiaraz, bi gradu dira, salbuespentxoren bat gora-behera): 1) *hau*, 2) *hori*, 3) *hura*. Oinarrizko oposaketa hitzunaren kokalekutiko hurbil-urruntasunari dagokio, eta korrelazio aski estuan dago, beraz, pertsona gramatikalekin (nahiz hirurak egokitu daitezkeen, jakina, hirugarren pertsonekin): ni>*hau*, hi>*hori*, hura>*hura*. Denboran, berriz, lehen gradua (*hau*) presenteari dagokio eta hirugarrena (*hura*) iragan nahiz etorkizunari (bigarren graduak (*hori*) eginkizun gutxiago du oinarrizko kokapen horretan). Seinalatzeko funtzio hori (atzamarraren laguntzaz, adibidez: hatz *erakusleaz*) betetzen duen elementuari *deiktiko* deritza (deixia = seinalatzeko ekintza). (Bada normalean atzamar beharrik ez duenik, situazioan aski garbi dagoelako: “*Hau* izugarria da!”, “*Hemen* (idazten ari naizen *honetan*”, “*Mundu honetan*”...)

Zorionez edo zoritxarrez, testuek (eta batez ere testuez ari gara denbora guztian) ez dute atzamarrik, eta, alde horretatik, ez litzateke espero izatekoa halako elementu deiktikoek presentzia handia izatea paperean. Zer gertatzen da, orduan (denok baitakigu erruz agertzen direla)? Bada, hasteko, testura baino lehen ere, diskurtsoan (hitz egitean) beste funtzio bat ere badutela erakusle horiek berek, atzamarren laguntzarik gabe zerbait seinalatzeko. Esate baterako, diskurtso horretan erabili den erreferente bat errepika-

tzen dela adierazteko (hura osorik ez errepikatzeke, alegia, hura *ordexteko*): funtzio horri deritza *anafora*, eta erakusleek diskurtsoan duten funtzio guztiz garrantzizkoa da anaforikoa.

Ondorio bat berez dator, ordea: diskurtsoan —eta atzamarrik gabe— zertara datoz hiru graduak? *Ia* ezertarako ez, egia esan. Izan ere, J. M.en artikulua ere horrexegatik (izenburuari fidel) ez du praktikan hirugarren gradua baino aipatzen *ia*. Aski ote dira, beraz, *hura* eta *bera* anafora guztietarako? Galdera, bistan da, erretorikoa da, baita niretzat ere (kontuan hartu nik ez ditudala neure egin orain arteko *hau*, *honen*, *beronen* anaforiko horiek). Testu hauxe gainbegiratu besterik ez dago.

Suspensezko artikulua bat egiten ari ez naizenez, argi dezadan bertatik kontua. Gure hizkuntzak sofistikatu samarrak dira, guztiak ere, eta *kanpoko* erreferenteen anafora baliatzeaz gainera, *diskurtsoa bera* (edo are *testua*) ere erabiltzen dute erreferentziatzat, eta erakusle berberetzat ordezten diskurtsoaren *barneko* erreferenteak, diskurtso zatiok —atzamarrik gabe, baina— seinalatuz (diskurtsoaren barne-anaforatza ere jo daiteke). Laburbilduz: hiru funtzio bederen elkargainkatzen dira erakusleetan: deixi arrunta, (kanpoko) anafora, eta diskurtso (edo testu) barneko deixia (anafora diskurtzibo-testuala). Adibide bana:

Eraman hori. (deixi arrunta)

Mikeli esan zioten, eta hark... (anafora)

Konforme nago, baina horrek ez du esan nahi... (diskurtso barneko deixizko anafora: aurreko perpausatxo hori (“Konforme nago”) ordezten du)

Ikastaldia amaitzeko, esan dezagun badela oraindik ere erakusleen beste funtzio diskurtzibo-testual bat, *kataforiko* deritzana eta —izen horrek okerrena pentsarazten badu ere— errazena dena, konbentzioa guztiz garbi baitago hor: bi puntuen (:) aurreko lehen graduak betetzen du eginkizun hori:

Hau ikusi dut: ...

Honela esan zidan: ...

(Parentesi askoren artean inork ez ikusteko moduan aipatu beharko nuke J. M.en azken literatur itzulpen zoragarri horri horixe aurkitu diodala aitzakia ia bakarra, sen guztien kontra —hiperzuzenketaz (!)— nire azken horren tankerakoen ordez bestelako molde bitxi hau baitarabil (hori, bai, zuzen nahiz oker, sistematikoki):

Hala esan zidan: ...

“Hala” hori zuzena da izatez, noski, baina aurretik azaldutakoari dagokio, eta ez bi puntuen ondokoari. Bestetik, errusierazko jatorrizkoak hala (horrela) egin badeza ere, hori ez da aski arrazoi bere horretan emateko: erakusleak ez dira dauden-daudenean *itzuli* behar, testu-antolatzaile gisa *funtzionarazi* baizik. Ildo berean, ez zait egokia iruditzen J. M.ek sistematikoki hain ordez dabilen *horren* forma, ez bigarren pertsona gramatikalarekin zerikusirik duen eta ez testu-anafora ez den kasuetan:

... hor behean Baidarak horren ur nahasia dakar, non ezin izango baitugu zeharkatu.

Ustez bistakoa da (nahiz ez den hori funtsezkoena), *hain* formak, deiktikotasuna abstraitzeaz bat forma ere *haren* arruntetik bereizi denez, nahasbide gutxiago sortzen


duela (testuinguruak testuinguru, genitibo arrunta ote den **horren** hori, eta beste erreferentziaren bati ez ote dagokion...). Horrez gainera, “hor behean” horrek ez du, teoriakeriaz baino, bigarren graduaren erabilera hori behartzen.

Puntu horretan, errebindikazio positibo baten gehiegikeriazko alde negatiboa somatu uste dut. Alegia, sistema hirukoitza dela gogorarazi nahi edo bat (**honen**, **horren**, **hain**). Kontuz ibili behar dugu, baina, halakoetan hiperzuzenketa okerrago baita arrunkeria bera baino. Izan ere, egungo gure sistema erdarazkoen molde gradu bakarrera etorria dago ia, eta *Ni hain alferra naizenez* perpausa euskara normalizat jo beharko dugu honezkero, *Honen alferra naizenez* jatorragoaren aldean. Okerrago da, nik uste, esan bezala, kontrakora behartzea: *Artista horren harroa delako*. Azken horretan, onenean ere (okerrena “artista hori”+ -EN ulertzea da noski), bigarren pertsonako solaskidearekin zuzenean ari garela ulertuko genūke, artista titulua hirugarren pertsona erretorikoan erabiliz (“zu zaren artista agertzen den bezain harro”, edo, alderantziz, bertan ez dagoen artistaren bat “zu(e)k diozu(e)n bezain” edo “aipatu berri den bezain” harroa dela: deiktikoezia, alegia, beti ere).

Hainbat arrazoiz nola edo halako graduaukeren murrizketa gertatu zaienen zerren-

da bat egin daiteke. Erabilienetako bat **horregatik** izango da. Lehen gradukoa —*nire* sisteman— kataforiko hutsa da, esan bezala (*honegatik*:...), eta hirugarren gradukoa, berriz (**hargatik**), oso gutxi erabiltzen da, kanpo-anafora arruntaren lekua bigarren graduaren bitartezko diskurtso-anaforak hartu baitu ia erabat (ez alferrik da estilo diskurtsiboaren oinarrietako bat **horregatik** hori). Hemen jorratzen ari garen zalantzabideak atzo goizekoak ez direla crakutsi alde, aipa dezagun gure aurreko autore aski desberdinek (Iztuetak, Txirritak (!)...) bestelako formekin nahasian, **beragatik** forma ere erabili izan dutela, gaztelerazko “por eso” / “por ello” bikoiztasuna euskararatuz, inondik ere.

“Beraz”, “hau da”, “hortaz”... (azken kasuan **horretaz** paradigmatikotik berezirik) zein bere graduari —zuzen zein oker, ez dio dagoeneko axola— lexikalizaturik daude aspaldian: fosil zurrinak dira. Hala ere, gradu oposaketa sentitzen da *beraz* eta *hortaz*en artean, adibidez, bigarrena (bigarren gradukoa) bigarren pertsonarekin loturik baitoa eskuarki: *Hortaz (esan duzunaren arabera), azkenean ez dugu ezkontzarik?* Lehenak, derragun bidenabar, **hartaz** formari berez dagokion *beraz normalari* lekua kendu eta *berataz* forma paradigmaz bestekoa sortarazi du, analogia bidez, *gipuzkeraz* (!)



Arrazoi berdintsuz, (besteak beste) espainierazko *así*—eta frantsesezko *ainsi* berdin—forma bakar gradurik gabea denez (*asá* eta *asao* ez dut uste direnik, behintzat, beste graduak), jende askoren hizkeran zein idazkeran forma bakarra dago ia dagoeneko euskaraz, bigarren gradukoa (**horrela**), edo lehenbigarren graduko forma kolokial laburtuaz lagundua (**hola**). Sena hainbestearino (horrenbestearino?) galdu den —honenbestearino galdu dugun— honetan, gogorarazi behar da, akaso, **hala** dela forma ez-markatua, eta bera dela anafora arrunterako molde klasiko bezain funtzionala: *Hala esan zidan*. **Horrela** erabiltzean, diskurtsoa nahiz testua bihurtzen (bihurritzen?) dugu erreferentziagune, edo bigarren pertsonari dagokion beste erreferentziaren bat idarokitzen (goragoko adibidean azaltzen saiatu naizenez).

Gauza bitxiagorik ere gertatzen da, deklinabide-kasu bakoitzak gradu batera zein bestera egin balute bezala, nolabaiteko sinonimo diren kasuan ere: *Hala esan zidan*, baina *Hori esan zidan*; *Horregatik*, *isilik geratu zen*, baina *Hala*, *isilik geratu zen*. (Nik neuk, zalantza teorikoen gainetik ere, bi ikuspuntuak ohikoaren kontra konbinatzen dituenen bat erabili dut Shakespeareren sonetoen itzulpenean: *Horiek hala*,... Ez da oso bestelakoa, ustez, “hara hemen” ezaguna.)

Adibideotatik atera daitekeenez, *nire* erabilera (ez ahal da nirea bakarrik izango!) funtzio anaforiko-kataforikoetan ere badute beren espezializazioa erakusleen hiru graduek: lehen gradua (**hau**), kataforetarako (bi puntuen ondoko azalpena aurrez ordeztzen duena); bigarrena (**hori**), diskurtsoan aurreko zati bat seinalatu eta ordezteko (diskurtso barneko anafora), eta hirugarrena, berriz (**hura**), diskurtsoak adierazten duen munduko erre-

ferente baten ordezkapenerako (kanpoko anafora, arrunta).

Ez da txiripa hutsa azken horretarako hirugarren gradua erabiltzea, hura (hirugarren gradu horixe) baita deiktikotasun gutxienekoa (gogoratu erakusle ezezik, izenordain pertsonala ere badela, forma berberaz). Adjetibo funtzioan, hain zuzen, deiktikotasunaren abstrakzioarako hurrengo pausoa erakuslea artikulu soil bihurtzea da, latinetik hizkuntza erromantzeetara gertatu zenez (ikus euskaraz ere: “etxe hari”/“etxeari”... eta bizkaieraz, antzina beste euskalkietan ere egiten bide zenez, are beste graduetan: -a/(h)a, “gizonau”, “gizonok”...).

Lehen adostasunak, beraz, horren inguruan behar luke: ez erabili beharrik gabe (beren eginkizun zehatzetarako baino) beste bi gradu markatuagoak. Hain zuzen ere, bereziki lehen graduaren abusuak jartzen du hankaz gora funtzio-banaketa hori (eta horrenbestez komunikazioaren zehaztasuna lausotzen). (Latinaren eta erromantzearen eragin zuzenez gainera, euskaraz antzina, itxura denez, bi gradu baino ez izateak baduke zerikusirik nahasteokin, espainieraz *éste* erakoen latin erroa bigarren gradukoa izateak ere badukeen moduan.)

Eman dezagun, adibidez, jende askok bezala, lehen gradua (**hau**) erabiltzen dugula bigarrenaren ordezkari (**hori**) aipatu berri den zerbaiten erreferentzia markatzeko. Akaso gero testuinguruak argituko du, baina interpretazioa ez bide hauetako batera etor daiteke berez:

- Bi puntuetara doan katafora baten aurrean gaudela pentsaraztea (“*Hau* > *esan zidan*...: ...”), eta ez aurrez aipatua den zerbaiten laburpen anaforikoa dela (“<: *Hau esan zidan*...”)

• Zentzu deiktiko arruntean interpreta-
ratzea —atzamar eta guzti seinalatzen ari
bagina bezala—, lehen graduak bigarrenak
baino arrisku gehiago baitu horretarako
("Honek (aldamenean dagoen norbaitek) *esan
nahi du...*).

Bat baino gehiago pentsatzen ariko da
honezkero nik inoiz "hautista" zat bataiatu
(eta bataiatu) dudan joera horren kontrako
gurutzada-sukar halako batek naramala azken
adibide horren kasuan bezain adar punta
meharretatik heltzera auziari, baina ez da
horrela. Higuinak higuin eta senak sena, fun-
tzionaltasun jator bat bilatzea izan beharko
genuke denok ere xede, eta horretarako ez
dirudi halako anbiguitate sarriak eragiten
dizkigun desistema hori denik eredu-garri-
na. Adibide errealogorik eta argigarri-gorik
aipatu nezake, hain zuzen, erakusle izenordai-
nen esparrutik adjetiboenera lerratuz gero:

... Otto Pette... Liburu **honek**... (*Ler-
txundirena ulertarazi nahirik, eta ez tes-
tua idatzirik dagoeneko liburua*)

*Lurrikadak gertatu dira Txilen. Herrialde
honetan...*

(ETBn horrelakoak barra-barra entzuna
naiz, eta, ez dakit zuek, baina nik ezin dut
deskodetu "Herrialde honetan" hori modu
guztiz deiktiko-arrunt seinalatu beharrik ere
gabean baino: ETB ari den herrialdea da hori
ezinbestean niretzat.)

Oso luze joko luke euskal idazleek ha-
lakoan aurrean hartu dituzten joeren azter-
keta xehe luze-zabal batek, baina sinetsida-
zue (aspaldi da radar horrekin irakurtzen
ditudala) *fidagarrienei* ere aurkitzen zaiela
kontraesanik eta are nahasbiderik (*Beraz,
desmadrea lege!* aldarrikatuko du horrenbes-

tez norbaitek). Adibide kuttun bat baino ez
dut hemen aipatuko:

Agirre Asteasukoak (nire *hautista* fabo-
ritoak: esaldi biz behin darabil "au" edo fa-
miliakoren bat) lehen gradurako joera siste-
matikoa du testu-anaforetan, elkarrizketa
erretorikoetatik aparte ("orregatik", "ala" eta
"ara/orra" salbuespen direla): "<Au da gauza
bat", "<Onela", "<Oec", "<Emendic"...).
Syntaxian ere erdal moldetik gu gaur ausar-
tuko ginatkeen baino hurbilago dabil, bis-
tan da, eta erakusleen funtzio-banaketa ere
—oharkabea, aidanez, baina ohartzeko
moduan— hor nonbait. Testu-erabileretan,
jakina, ezen ahozko diskurtsoa islatzen den
pasarteetan (elkarrizketak eta abar) bestela jo-
katzen du (espainierak, hiru gradu izaki eta
gradu-marka izenordainarekin bat eginik da-
goenez (frantsesez, *-ci, -la...* bereiz doaz),
frantsesak baino gehiago enplegatzen ditu,
idatziz batez ere, erakusleak funtzio berezi-
bihurri horretan, eta gure diglosiak ez dira
atzo goizekoak).

Dakikezuenez, *Erakusaldiak* "sakramen-
tuen gaiñean" dira. Atal bakoitzean, beraz,
honelatsu doaz aipamenak "(X)ren sakra-
mentua", "sakramentu hau"...

(Halakoetan gertatzen denez, berchala
atal honetan aipagai duguna edo da hau ho-
rren interpretazioa, diskurtso- nahiz testu-
barneko erreferentzia zehazki kokatu gabez.
Prozeduraren errepikapen mekanikoa baldar-
txo eta astuna sentitzen da, ordea, aukeran,
eta sinonimia-joko egoki batek edo bestek
konpon lezake hobeto kontua.)

Halako batean, haatik (ez da kasu baka-
rra, baina bai politena), ezkontzaren sakra-
mentuaren atalean aurrera, "bizimodu au"
(aipatu berri dena, alegia, ezkonduarena)
espero izatekoa denean, bere joera haustera

behartzen da Agirre, garbi baitauka, hizkuntzak berak inposatzen baitio, berak "bizimodu au" esatean "beraren (bere?, haren?: Agirrerren) *bizimodua*" ulertu behar dela, hots, apaizarena, eta ez ezkonduarena, eta *nire* sistemara itzultzen da, ordu onean itzuli ere: "bizimodu ori" (egia osoa esateko, gazte ezkongabe batekin ari da elkarrizketa erretrikoan pasarte horretan, eta "zuk diozun bizimodu ori" postula liteke horrenbestez, *nire* azalpenaren kontra).

Joerak joera, bigarren gradua testuan bigarren pertsona gramatikalezko erreferentzia deiktikoren batekin nahasteko, solaskide ezplizitoren bat behar litzateke, eta horregatik erabil daiteke lasaiago eginkizun anaforikorako (Agirrek justu kontrakoa egin zuen, eta akaso zerikusia izango du horrekin Erakusaldiak jende aurrean irakurtzekoak izateak, bigarren graduaren erabilerak entzuleak ziren bigarren pertsonarekin nahastea saihestu behar baitzuen).

Erabateko adostasunik lortuko ez bage-nu, hala ere gutxieneko bat onartuko ahal zait, eta gehiegikeriatzat joko honelakoak behintzat (erakuslea leku-aditzondoaz mozturirik):

Hamazazpi urterekin Seminariora sartu zen. Hemen (Seminarioan!) bost urte pasatu, eta...

Esaldi hori primeran letorke, noski, Seminariotik idazten ari bagara testua...

Hor goian (parrafo mordoxka bat gorago) zintzilik utzi dugun esaldira itzulirik, orain agian hobeto ulertuko da nolako autorreferentziak seinala dezakeen azken aipatutako erreferentegaia lehen graduko erakusleak (nik *onartzen* ez dudana erabileraren batean):

Ikasleetako batek zuzendariarengana jo zuen azterketa berriro zuzentzeko eskatzerara. Hau (zuzendaria) urduri jarri zen bulegoko atea ixki orduko.

Halakoen zaleci bereziki gustatu ohi zaie bi erreferenteren arteko joko testual hori osorik esplizitatzea:

Zamari desberdinak dira astoa eta mandoa. Hau hura baino maneia korragoa da.

Errepara bedi, bestetik, prozedura hori testu-prozedura bihurri-sofistikatu bat baino ez dela (ez dela *hizkera arrunta*, alegia), eta horretara ezkerro badela bestelakorik aukeran (beti geratuko zaigu Parisko estiloa):

Bigarrena lehenbizikoa baino

edota, biak konbinatuz:

Bigarren hau lehenbiziko hura baino

Eta, hala ere, erreferente-lehian daudenak bi baino gehiago badira?... Nik neuk, naturalen ezezik dotoreentzat ere errepikapen peto-petoa jotzen dut, jatorrago baita erreferenteak garbi adieraztea, (erdal) eskolaren batetik pasatuak garela erakustea baino (edo ikastola batetik, jakina):

Zamari desberdinak dira astoa eta mandoa. Mandoa astoa baino maneia korragoa da.

Aurrekoetan ere, nahasteren bat sortzeko arriskua ikusiz gero, ingelesek-eta flema osoz ohi duten moduan aitortuko nuke hizkuntzaren eskasia, eta bertan (parentesi batez) konpondu:

Koldok Miren bere (Koldoren) etxera eraman du.

Koldok Miren bere (Mirenen) etxera eraman du.

(Teorizazio hau baino lehenago ere behartua sentitu naiz ni halakoak erabiltzera. Hona adibide bat:

“Lizardiren soneto ustez bakarra gaztelaniazko bere (Lizardiren) jatorrizkotik itzulia da.”

Hor “bere” ren beste erreferente posiblea (gramatika-arau zorrotzaren arabera bakarra) “sonetoaren” zen. Haren nahiz beraren nituen aukeran, baina, mendebaleko joeraren pisuaz gainera, halako testuinguruetan biek ere aurreko hitzarekin lihoakeen erakusle baten itxura har zezaketen (“gaztelaniazko hura (bera)”, genitiboa). Ez da noski hori nahikoa arrazoi bere noiznahi erabiltzeko, baina bada beste arrazoitxo bat beste askoren artean bereren alderako joera esplik dezakeena.)

Normalean testuinguruak argitzen du kontua, are —honako Agirre Asteasukoaren adibide honetan bezala— bi baino gehiago izan daitezkeenean korreferente-gai teorikoak:

“Orregatic dio Jesu-Cristoc, barcatu ciozcala Jaunac becatari oni bere becatuac”

Hasieratik adibide nagusizat hartu dugun horretan, berriz, soluzioa errazagoa da. Argi utziko ahal nuen gorago artikuluan datorren moduan nik “zuzendaria” hartzen dudala *huraren* erreferentetzat:

Ikasleetako batek zuzendariarengana jo zuen azterketa berriro zuzentzeko eskatzerara. Hura (zuzendaria) urduri jarri zen bulegoko atea itxi orduko.

Nola emango nuke nik, bada, esaldi hori, urduri jartzen dena “ikaslea” dela adierazteko? Koxka (gero saiaturiko naiz azaltzen zer-

gatik izan daitekeen), hain zuzen ere izenordain erakuslerik ez aipatzean datza kasu horretan:

Ikasleetako batek zuzendariarengana jo zuen, azterketa berriro zuzentzeko eskatzerara. Atea itxi orduko (,) urduri jarri zen (ikaslea).

Ordenamendu-aldaketak ez du zerikusi zuzenik aztertzen ari garenekin, eta ez ditu, ustez, gauzak aldatzen (goiko “Koldok” eta “Miren” horiekin saiatu: *Miren bere etxera eramán du Koldok*). “Ikaslea” eta “zuzendaria” agertzen diren ordenuak ere ez du funtsezkorik erabakitzen, itxura denez. Kasu honetan sujetu diren (baina beharbada *foku nagusi* edo *aktante* izatea aski luketen) erreferentzien arteko jokoaren arabera ebazten delakoan nago auzia: “sujetu” (edo *aktante nagusi*, edo dena delakoa) aldatzen delako seinalea da, hain zuzen, hirugarren graduko erakusle anaforiko horren agerpena, bestela, *defektuz*, lehengoak segitzen baitu izaten foku, aktante, sujetu (hala baita kasu honetan).

Horrexegatik ez dago lehen gradukoetara jo beharrik:

Pasea Etxeberriari eman dio (Alkizak), baina honek (Etxeberriak) ez du asmatu.

Aski baita forma arrunta, “hautismo” rik gabeko anaforaz ongi adierazteko nork ez duen asmatu:

Pasea Etxeberriari eman dio (Alkizak), baina hark (Etxeberriak) ez du asmatu.

Pasea Etxeberriari eman dio (Alkizak), baina ez du asmatu (Alkizak)

Jakina, okerreanean, erreferentea bera ordezkapenik gabe berriro aipatzea da segurue-

na: *baina Etxeberriak ez du asmatu* (beste aukeran —horra *nire* sistemaren aldeko beste frogar bat— komunikazioa hautsi den kasuan baino ez genuke aipatuko berriro Alkiza, hartaz ari ginela garbi dagoenez).

Hautismoari buruz, beste ohar bat egin beharra dago. Fenomenoa adierazgarria da, oso, zeren erdarazko forma-funtzioen kalko peto-petotik hasirik, erdarak berak baino harago baitaramagu azkenean joera:

Oso informazio garrantzitsua hartu zuten espainiar poliziarengandik, hauek (sic) salatariak zituztelako... (ETB, 96-09-10)

Izan ere, honako testuinguru hauetan ere sortzen zaigu tentazio *hautista* (garrantzi txiki-ekotik handienekora ordenatu ditut, ustez):

- Zenbait ilatibo erdaraz ez markatutako hirugarren edo bigarren gradu normalagoen ordez lehen graduan setatzean: “Así...”/“Honela...” (Halaren ordez), “Por tanto...”/“Hononbestez” (Horrenbestez ordez)...

- Erdarazko “el mencionado artículo”, “dicha ley”, “por el mismo”, eta antzeko anaforiko berezien ordainetan. Euskarazko errepertorioa (“aipatu legea”, “delakoa”...) murriztagoa bide da, eta horregatik betetzen bide da *hutsunea* hauz.

- Erdarazko izenordain atonoak itzultzean: “comerlo”, “para verlas”... (su(yo)ren eta kasuan bezala, hurbileneko baliokidea “aquél” erakoa dugu, “él” berezirik ez dugunez, eta bide bihurri horretatik iristen da hainbat “él” horren ordez erdarazko testuetan aukerakoa den “éste” itzultzerak, nahiz itzulgaian ez agertu, ez zaigulako, nonbait, “éste” “aquél” en aldean (!) hain *erakusle* iruditzen: “hau jatea”, “hauek ikusteko”...)

- Erdarazko *erlatibo esplikatibo* direlakoan ordez euskaraz koordinaziora jotzen dugunean (gehienetan, beraz). Izan ere, izenordain erlatiboaren anafora-funtzioa erakusleak hartu behar du, eta aurreko atalekoen mekanismo berdintsuz lehen gradura jotzen du sistematikoki hainbatek: “Pidió dinero a Miren, que se lo negó” > “Dirua eskatu zion Mireni, eta (baina) **honek** ukatu egin zion”. Egia esan, behin hasiz gero, zergatik ez “**honek** hau ukatu (egin) zion”? Edo, graduak *fifty-fifty* eta testua atzamar ozarrez beterik “**honek hura**”, edota “**honek hori hari**”? Nik uste —garbi geratuko ahal zen—, aski da hirugarren gradu arruntarekin: “eta **hark** ukatu egin zion”. (Horrenbestez, forma *indartuei* buruz —nik *berretu* esango nieke, mamia ezezik forma ere isla dezan hitzak— aipatu dugun aholku hain zentzuzko hura graduei ere aplikatuko genieke: ez erabili hirugarren gradu soilak adieraz dezakeena adierazteko beste gradu markatuagorik.)

Gaiak badu nondik luzatua (adjetibo funtzioan doazen erakusleez deus gutxi aipatu dugu, adibidez, artikulutik ez urruntzearen), baina honaino segitu nauek bere kabuz aterako ahal ditu ondorioak, eta egoki deritzen proiektzioak egingo.

Gorago *hemenen* aipamena egin dugula eta, serie bereko hirugarren gradukoekin gertatzen denak eman diezaguke pistaren bat gauzak nondik nora joan diren. Izatez, aski litzateke *han* soila funtzio horretarako, kasu horretan nekez gerta baitaiteke adberbio hori aditzak markatzen dituenekiko korreferentziala izatea. Halatsu gertatzen da *ekialdeko* usadioan, zeinean *mendebalean* hain zabalduz dagoen *bertan* formak denborazko adiera baino ez baitu eskuarki (ikus Lande eta abar): “(bet)-betan” edo “berehala” ditu

sinonimo. Erreferentzia errepikatuaren marka esplizittoa, berriz (erredundantziatzko enfasis edo, **berak berbera** ematen duen intentsio bertsuaz, beraz), aposizioan doa —komarik gabe baina berriro deklinaturik— (“han berean”). Singularrean deklinatua, hots, *han* horren azpian (leku-) izen bat suposatuko balitz bezala (“lekuan berean”). *Mendebaleko* erabilerak, aldiz, *mugagabe* itxurakoa aukeratu du (“lekuan bertan”), eta gero *bertan* forma hori soilik geratu da normalean anaforarako. Ikus dezagun, adibide batean, nolatsuko dibergentziak sortu diren horrenbestez:

(Ek.) *Diru horrekin etxe bat erosi zuten. Han bizi izan ziren luzaroan, eta han (berean, -txe) jaio ziren haurrak.*

(Mend.) *Diru horrekin etxe bat erosi zuten. Bertan (han?) bizi izan ziren luzaroan, eta bertan (hantxe) jaio ziren haurrak.*

Hantxe horiek, hor sartu baditut ere, esaldian guztiz ondo baitatoz, ez dute zerikusi zuzenik gure kontuarekin, ez baitira —terminologiak terminologia— anaforiko-errepikapenezkoak, enfatiko hutsak baizik (bi funtzioak aski nahasirik badaude ere). Lehendabiziko *bertan* hori ez da erabilera bakarra, baina bai zabalduena, aho batez aitortzen dugun *mendebaleko* joera nagusiaren bidetik.

(Bi joeron arteko hibridorik ere bada, hala nola Hondarribiako hizketa arruntean barra-barra entzuten den “herri bertan” moldea. Ez dakit ziur “herrian bertan/berean” bakarrik adierazten duen, ala —joera zabalago baten lerradan— “herri berean” ere bai.)

Hor agertzen ez den —baina testu zaharretan detekta daitekeen— zerbaitek argi dezake, bestetik, bai hor izan bide den *kate-*

begi galdua zein zen, eta bai beste nonbait aipatu dugun *beraren* erako forma batzuen iraupena ere (forma hori normalean *bere* arruntak ordezkatu ohi duen hizkeretan ere). Izan ere (hiztegietan jasorik datoz), badira forma arkaiko-edo batzuk —ohi denez *bazterreko* euskalkietakoak— *ber-* + [erakusle] osaketakoak, lekuzko kasuetan ere:

“*zeren berartan baitu hontarzun guzia*” (Oihenart)

“*atan beratan*” (Uriarte).

“*beratan dago zure betiko zorion edo zorigaizto guztia*” (B., Retana)

(Beste nonbait aipatu dudana *berataz* modernoide horren birraitona ere topatu dut hiztegiko Erronkarin: “*berartaz* ebaki”.)

Izatez, *harrigarriena* besteona da; “honetan beronetan” eta “horretan berorretan” erabili erabiltzen dituenaren kasuan batez ere, “hartan berartan”, berez bezala bailetorke segidan. Hiztunak ez du, haatik, nonbait, bereizkuntza beharrik gehiago sentitu *berartan* forma *erakuslezkoaren* eta *bertan/berean* abstraituagoen artean (baina, aldi berean, “haren bere” gisakorik ez dio onartu senak edo belarriak, eta “haren beraren” egiten du, eta “harentzat berarentzat”, eta abar; *erakuslea presente dagoen kasuan* bederen, zeren bestela ez dakit denok bereizten ote dugun sistematikoki *berarentzat* eta *beretzat*, *berarekin* eta *berekin* (zoritxarrez pluralarekiko ambigua) —eta are gutxiago *beraren* eta *bere*—, nahiz funtzionala den noski.

Batzuetan, esaldi luze bihurri samarretan batez ere (baina ez bakarrik) ez da erraza irizpidea aplikatzen, ez hizketan ari denarentzat, noski, ez eta gero esaldi hori aztertzen duenarentzat ere. Aproba egin, bestela, *Libera-*


len *dotriña pekatu da* itzulpen jatorretik asko miatu gabe aukeraturiko honekin, ea bere horri teorikoki zer tokatuko litzaiokeen (itzultzaileak badarabil bestetan beraren):

San Atanasioren bere egunetan mundu gucia irabiatua cerabillen, Arrio-ren dotriña galdu galgarriaren contra irtetea persecucio latzac, erbestetzeac, igues eguin bearrac, hiltzeco desapioak, eliz-batzar palsoen es-cumcacioac costa citzaizquion.

Lehen begiratuan, itsutu gaitezke pentsatuz beherago aditzak gogorarazten digun *San Atanasioren* horrek justifikatzen duela forma "bihurkaria", baina bere horrekin doan sintagma erlatibozko perpaus txertatuarekin doa noski, eta *cerabillen* aditzak *Arrio-ren dotriña* eta *mundu guztia* ditu erreferente aktibo eta pasibo, eta ez inondik ere San Atanasiorik. Horrek **beraren** (edo **haren**) eskatuko luke teoria zorrotzez (ez, behintzat, **bere**). Hala ere, hiztunak *San Atanasioren* erreferentea hain du bertan (?!), "Halako eta bere zerak" egiturakoetan bezala, ezen ez baita geratzen, den txintxoena ere, gramatikak zer aginduko dion, aditzaren zain. Hala, hurrengo esaldirako, erreferentea berriro aipatzen ez bada ere, koherentziak eskatzen dio hurrengo ere berdin egiteko, datorrena datorela:

Eta bere guizaldian zabalduak zebiltzan dotriña gaizto gucien contra biotz añ andiaz irten zan maisu andi Agustin ¿bear bada bildur izan citzaizen Pelagioren dotriña galgarriac zabaldu cituen mataza nastu eta iguergaitzai?

Ez dut uste perpausen gramatika-analisi hutsetik ebatz daitekeenik beti kontua, hartarako trebeena izanik ere. Hor teoriarezalearen tentazioa zera litzateke, perpaus bakoitzetik esaldi osoraino zabaltzea korreferentziaren araua, baina behin hasiz gero, zergatik ez inguruko esaldietara... edo diskurtso osora?: horixe egin bide du hiztun askok, teoria beharrik gabe. Kontrako bidea zuhurrago litzateke, apika; alegia, genitibo bakoitzean, izenlagun den aldetik, inplizitoki dagoen esaldi erlatibozkoa topatzen saiatzea. Horren arabera, *Zeure kalterako da* eta antzekoak (erreparatu bereziki da erako aditzekin geratzen dela arau-haustea, eta ez kasualitatez), *Zeure kalterako duzu* eginez konpondu gabe ere, *zeuk hartzen duzun kaltea* ulertuko litzateke, eta horren arabera aplikatuko *transformazioa: zeuk>zeure*. Izan ere, nago ez ote den fenomeno hori (perpaus inplizitoaren eragina) genitiboaren auzia beste kasuen aldean *adarragotzen* duena. Horrek esplikatu litzuzke *Nekane eta bere lagunak* (*berak dituen*



lagunak) *ikusi ditut* erakoak, bai eta *Bere ahizpa da* oker-arruntak ere, *gramatikaren* barrutik (testuinguru-situazioa eta diskurtoaren osotasuna kontutan hartzen ez duen gramatika perpaus-mugatu baten kasuz ari naiz noski). Chomskyzalerik gertatzen bada, baduke bazka ederrik hori formalizatzen. Erreparatu, bide batez, horixe konpontzera letorkeela *bere* (bihurkaria) eta *beraren* (errepikapen hutsezkoa: *bera* + -EN) formen bereizkuntza.

Hala ere, *dena argitu* bitartean: zergatik ez ditugu serio hartzen lehenago euskara benetan batuarekikoak, alde batetik euskalkiak zazpi aitzakiaz urrundu (*taifatu* idaztera nindoan) eta bestetik arau-uste zahar-berri halamoduzkoak ezarri beharrean? Eta, batez ere, egindako bidea astean-astean okertzin zuzen- bidez desegin eta desdesegiten jardun beharrean. Zertaz ari naizen? Honen segidan duzue adibide bat.

Adberbioa singularretik gertuago dagoelako ez dut aipatu orain arte pluralik, baina berriro ere egoera ez da guztiz berdina haieran. Izan ere, aurreko nire esalditxo horren bukaerako *haietan* hori bera ere, haren erreferentzia neuk erabili dudana anaforaz ongi ulertzen bada (“pluralik” horretan esan gabe dauden “pluralak” baitira, derradan badaezpada ere), beste zenbait modutara ere eman daiteke. Bat, hasteko, *han* naiz *bertan* litzateke, adberbio soilez, baina orduan are zailago dirudi erreferentzia identifikatzea.

Anaforan atzera jo ezean, errepikapenera, alegia (“aipatu pluralok”, “plural horiek”), izenordainaren moldaera baino ez litzaiguke geratuko, eta —horra misterioa— gutako inorentzat existitzen ez den *berartan* horren plurala agertzen zaigu denoi, auskalo nondik: *beraietan*, noski, errealzaleci, eta

eurretan, jakina, athleticzaleci. Hizkuntza kontuan ez bata eta ez bestea ez garenoi, berriz, hasteko, ez litzaiguke bururatuko premiarik ez denean *ber-* dontsu horretaz abusatzerik, eta premia handiagoa denean, paradigma batu ohitik hornitzen gara nostalgikook (bere burua oraindik ere Jugoslaviarizat jotzen duenaren pareko): “*beretan*”.

Kasu honetan —esan dezagun bide batez— ez dirudi inondik inora funtzionala J. M.ek ustez proposatzen duen bereizkuntza, NON kasuarekiko aditzaren korreferentzia —lehen ere aipatu dugunez— ez baita espero izatekoa. *Hirugarren bidez*, berriz, hots, *beraurretan* edo egin nahi lukeenaz, aski garbi utzi dudalakoa nago “ez naizela partidario”, eta are arrazoi handiagoz pluraletan, zeinetan forma *errealak* ez diren teoriko horiek, baizik (plural hurbilaren ildotik) *berok*, *beroi*, *beron*, *berotan*... (edo, Bizkaiko eta Gipuzkoako Goierriko aldaurretan, *e(u)rok*, *e(u)roi*, *e(u)ron*, *e(u)rotan*...). Aukera aprobetxatuz, esan dezadan dudarik gabe beste euskalkietako “hauek berak” esapidea aukeratu zatartxo dela belarri bizkaitar huts barentzat, baina “hauek berauek” areago da asmazio badaezpada, “onek eurok” jatorraren *forma batua* baino. Kontrakotik, *bertan/beron* bereizkuntza bere horretan hartzeko egoki dirudi, beste euskalkien *hobekuntza* gisa (*neba* berbaren kasuan eta gertatzen den moduan.)

Genitiboen kasura pasatu aurretik, hala ere, artikuluan agertzen ez den kontu hori jorratu behar dut, are harrigarriagoa baita aurreko hutsunea (beste graduatiko erakusleena) baino. Izan ere, non daude pluralak artikuluan?

Pentsatzekoa da singularren arabera moldatzekoak direla (tradizioan, ordea, Sebastian

Mendiburuk, esaterako —eta ez da bakarra—, lehen gradua darabil diskurtso-anaforetarako singularrean, eta pluralean, berriz, bigarrena: *hau* baina *horiek*), eta hala (sistematikotasun simetrikoz, ez Mendiburuk bezala) agertzen dira J. M.en *praktikan* (ezen, bestela, aipamenik ere ez dago artikuluan):

... eta han aldegin du bere lagunengana, eta hauek, lotsaturik, beste gela batera eraman dute segituan.

Kasu horretan, ia areago sentitzen dut nik *haiek* arruntetik ez irteteko beharra, esaldi hori elkarrizketa baten barnean egonik aise pasa bailiteke burutik *hauek* horiek hizketan ari denarekin dauden norbaitzuk ote diren (seinalatzeko keinua besterik ez da falta).

Lehen eta bigarren gradukoei buruz, hala ere, beste gauzatxo bat bederen esan beharra daukat: kasu horretan, biak biltzen dituen alternatiba *deiktikotasun motelduko* bat bada izenordain soil ez direnetarako, erreferentzia aipatu berrien anaforarako guztiz aproposa, bidenabar: *plural hurbila* deritzana: *kontuok, kezka larriok*... Lehen pertsonaren (*euskaldunok*) edo bigarrenaren (*irakurleok*) interferentziarik ez dagoenean bederen, baliagarri zaizkit niri behintzat, eta harrigarri ere bazait nik baino bizkaiera gertuagotik bizi duen batek ez jotzea halakoetara, *berton, aspaldion, asteon, goizeon, politorrek* eta abar bezain *batu* (!) ez direlakoan akaso (?).

Hirugarren graduan, ordea, erakusleen pluraleko forma batuak zein diren ere ez dakigu, itxura guztiak direnez. *Hurarena* bai (*haiek*), baina *berarena*? Oraintsu arte, paradigmak ustez garbixago geneuzkan bitartean, nik ez nuen inolako zalantzarik *berak* zela esateko. Baten batek esan izan dit (txintxatzeko, seguru asko) NORK singularrekin

nahasten dela forma hori, eta horregatik ez dela egokia, baina logika horrek berak *haurrak* formaren anbiguitatea ere *konpontzera* eramango gintuzke... Aipatu nahi ez dudan lan filologiko bikain bezain kaltegarri baten ondorioz, ordea, aurkitu uste dugu forma batua ez dela, inondik ere, forma bat, gutxienez bi baizik: *eurak* (baren itzala hor dabilkigu oraino) eta *beraiek*. Horrenbestez, oraintsu arteko ustezko forma batu zuzenak klandestinitate latzera pasatu behar izan du, eta giputz-bizkaitar huts ez diren euskaldunek (ba ote halakorik?) berenak utzi (*berak, beurek* ... direnak direla) eta Atleticen eta Realaren arteko auzien maila beretsuko izanala-ez-izan horretara makurtu, *batu* adar-bikoitz horren izenean. Nik (hain gutxi gara, ezen nahikoa da singularra) *neureari* eusten diot, baina (horretan eta bestetan) tiroak beste alde batetik doaz noski, eta aurki Etxeberri Sarakoaren harako hura ere *batuetara* itzuli beharko da uler dadin: *Eskualdun eskuararen arbuizatzaileak berak dira arbuia-gariak*.

Jose Moralesen azken literatur itzulpen bikainean, haatik, *eurak* erako bat eta *beraiek* erako beste bat baino ez dut topatu. Gutxitxo dira, noski, ondorio garbirik ateratzeko —areago artikuluko horri buruzko isiltasun erabatekoa kontuan harturik—, baina ausartu egingo naiz, hala ere (urritasun harrigarri hori, alde batetik, artikulugilearen aholkuekin bat dator —alegia, ahal den gutxiena erabiltzeko forma ez-arruntak—, baina ez dakit hori ote den arrazoi guztia, *hautismoa* ere tartean baitago, aipatu dugunez). Badi-rudi *beraiek, euraken gipuzkerazko* sinonimo *modernoa* izatetik (*berauek, beroriek* serie berri bazterreko samar batekoa, inondik ere) erakuslezko erreferente-errepikapenerako

espezialdu nahi ote den (gogoratu berataz bitxi hori: **ber-** + **hartaz?**), beste **eurak** soilik izenordain pertsonal litzatekeen batetik bereiziz. Garbien bertan ikusten denez, jo dezagun genitiboetara. J. M.en sisteman, bera eta **beraren** bereizten diren bezalaxe bereizten dira, guztiz oker ez banago, **euren** (eta **euron?**) eta **beraien**. Hala, **eurak** seriekoak (*nire* paradigmatako **ber-** pluralak) aditzarekiko korreferentzialak direneterako gordetzen dirateke (*reflexivo*/bihurkariak). **Beraiek** saillekoek, berriz, erreferente baten errepikapena markatzen bide dute soilik. Irtenbide ederra, alafede, anbiguitatea murrizteko, *praktikan hala erabiliko balitu inork formok* (eta bereizkuntza deklinabide kasu guztiei balegokie: gehienetan bata ala bestea aukeatzea gustu kontua litzateke, bihurkaritasuna genitiboarekin loturik baitago, eta gehitxo dirudi kasu batean zehaztasun apur bat irabazteagatik paradigma osoa bikoiztea... edo hirukoiztea, ni behintzat ez bainago prest *neure* **berak** hori saltzeko).

Bestetik, ez da guztiz egia *gipuzkeraz* (?) **beraren** formarik ez dela erabiltzen (ez eta, nire uste eta esperientziaz, *bizkaieraz* (??) hain garbi bereizten direnik **bere** eta **bera(re)n**). Adjetibo-funtzioan ordezkagaitza izateaz aparte, "Jainkoaren beraren", "haren beraren" eta halakoetan, itxurak itxura, izenordaina baita aposiziokoa (euskara guztietan). Horrek ez dio noski argudiorik indargabetzen artikulugileari, baina pluralera pasatzean paradoxak jota geratuko ginateke, bizkaierak singularrean eskatzen ei duen bereizkuntza baten izenean bizkaieraz guztiz exotikoa den forma (**beraiek**) eta oposaketa (**beraiek/eurak**) ezarriko bagenu, euskalkizko halako *gatzoz-pindu* bat eginez, non *sabeldarra*orik gaitzenak ere nekez irentsi ahal izanen lukeen.

Bere/beren bereizkuntza morfologikoa bera ere ez dago guztiz finkatua. Adibidetxo soil bat —baina ustez, bestela ere, J.M.i zer pentsatu ugari emango diona— (Haraneder, Retana):

"Bera beraren etsai den erresuma iraulia izanen da, eta berak bere etsai diren hiriek eta etxeek ezin iraun dezakete"

Hor pentsa liteke "bere(n) burua(k)" erabiltzea ez ote den egokia (hori da *bihurkari* benetakoa, ustez), baina, testuaren joera errespetatzera, ez genuke topatuko espero duguna, baizik, **beraren/bere** sing./pl. bereizkuntza *bitxi* hori errepikaturik, adjetibo funtzioan oraingoan:

Bera beraren buruaren... berak bere buru(ar)en

Izan ere, zein litzateke *gure* moldea? Nire, ustez:

(Bera) bere buruaren... (berak) beren buru(ar)en...

J.M.ena, berriz, ustezago:

(Bera) bere (ez, noski, **beraren**) *buruaren...* (*eurak [beraiek?!]*) *euren* (ez, noskiago, **beraien**) *buru(ar)en...*

Besteak beste, hara nondik den begiratu batera zirudien baino arazotsuago **beraren** horren lekua. Izan ere, beste graduetako **neronen**, **herorren** eta abarren paradigma berekoa izaki, haiek bezain *baztergarri* dirudi printzipioz (erakusletasuna esplizitua edo enfatikoa ez den kasuetan bederen), funtzionaltasun sistematiko benetan baliagarriren bat (plural eta guzti) aurkitu ezean. Bestelako, zeharkako, argibide bat eman diezaguke goraxegagotik darabilgun esaldi bihurri hori

berori (edo antzeko bat) lehen (edo bigarren) pertsona gramatikalera pasatzeak:

Neu (ni, ni neu?) neure buruaren etsai banaiz...

Hori edo litzateke, J. M.en, nire eta askoren bertsio gutxi gora-beherakoa. Nik neuk, hala ere, abiapuntuokan bezala "buru" hori kentzea zilegi bazait, kasu horretan areago egingo nuke honelatsuko zerbait:

Ni neu (nerau?) neronen etsai banaiz...

Tamalez, euskaldun askok bere sisteman berarenik doi-doi daukaten moduan, beste askok apenas duten neronenik (edo neronen bai, baina orduan neurik ez), edo (ezertarako aintzat hartu behar badira) beste forma (hala ere antzeko) batzuk dauzkate horien orde:

Ni (nibaur) nibaur(r)en etsai banaiz...

Azken horiek, berriz, ez daukate guretzat hain begibistako den neurik. Moldatu dira, horratio, beste horiek, euskaraz idazteko ere (eta nola!), eta errespetu pittin bat zor diegu, horregatik besterik ez bada, haiei ere.

(Maniak, den-denok ditugu, baina ea, umore pixka bat tarteko, ahalbait gainditzeko saioa egiten dugun. Ondo dator kontura Azkueren oximoron eredugarri hura, zeinean *lindo pleonasma* deitzen baitio "(hur)axe bera" esapideari: alegia, *lindo* baina *pleonasma*. Azkuerenak ere hankasartze historikoak frogatu dira batzuk, baina esker ona diogu, noski, bere *hankasartze politongatik* ere. Horixe berori dateke, ausaz, bat, hots, ber-eta -xe berdintzeko afan hori ("sufijo intensivo de palabras demostrativas; significa "mismo"). Oraingoan guztiz oker dagoena neu ez banaiz, -xe hori diminutibo da jatorriz —hori bazekien noski Azkuek ere— (*txikixeago=txikitxoago, baztertuxe...*), eta

espainieraz zenbait lekutan gertatu den modu berean hartu du esanahi hori, *mismo* hitzak bere funtzioen artean dituenetako baterako; enfasirako, alegia: *ahorita, aquí mismo...* Askotan gertatzen denez, euskarazko zalantzetatik ihesi, erdarazko hitz horren erreferentzia ("mismo") aski zehatza iruditu zaio, nonbait, Azkueri, bere nahasian. Halaxe gertatzen gara gero zenbait adibideren erdal itzulpenarekin: "el mismo hijo", adibidez, berdín izan baitaiteke *seme bera* zein *semea bera*: behingoz, gurca zehatzagoa da, izan, nahiz dagoeneko gutxik erabili bereizkuntza kasu guztietan zintzo: Gasteizkoa bertakoa >Gasteiz bertakoa, Patxiri berari >Patxi berari, haurrarentatik berarentatik >haurra berarentatik...)

Bada testuinguru bat, bere arruntean dextenteko buruhausteak ematen dizkiguna oraindik ere: *Nekane eta bere* —*haren, beraren, honen, beronen, berorren*— *lagunak ikusi ditut*. Horrela (bere) esaten dugula esango nuke gehienok, bai eta idatzi ere, nahiz, perpausa hirugarren pertsonan doanean behinik behin, argiago litzatekeen *Nekane eta beraren* (*Nekanereren*) *lagunak ikusi ditu* (*Patxik*) eta *Nekane eta bere* (*Patxiren*) *lagunak ikusi ditu* (*Patxik*). Bestetik, nik sinetsi egin nahi diet artikulugileari eta bere iturriari (are gehiago Laphitz neure guztizkoari eta *iparraldeko* idazle fin guztici, hala baitarabilte), baina ez dakit nola eragotz daitekeen bestelako interpretazioa hor *haren* erabiliz gero: *Nekane eta haren* (*beste norbaiten*) *lagunak ikusi ditu* (*Patxik*).

Pluralean ere, halamoduz:

Lagunak eta beren (*Nekanereren eta Patxiren*, teorikoki, baina anbiguitatez erabilia praktikan) *seme-alabak ikusi dituzte* (*Nekane eta Patxik*).

J. M.en erabilera-proposamenean, berriz:

*Lagunak eta euren (Nekaneren eta Patxi-
ren) seme-alabak ikusi dituzte (Nekane eta
Patxi)*

*Lagunak eta beraien (lagunen) seme-ala-
bak ikusi dituzte (Nekane eta Patxi)*

Azken horretan, ekialdeko haien teo-
rikoaren beste muturrean, "hautismo"ra joko
luke hainbatek:

*Lagunak eta hauen/berauen (lagunen)
seme-alabak ikusi dituzte (Nekane eta Pa-
txi).*

Izan ere, hasieratik adierazi dugunez, bere
eta beraren formen arteko bereizkuntza bera
da pluraleko hori, baina kasu horretan para-
digma-nahasketak lausoago eta bihurriago
bilakatzen du kontua. Eta singularrekoa pro-
posamentzat agertzen bazaigu, eta ez erabi-
lera zabal-finkatuztat, zer esan honelakoak,
formak forma, bereiziko dituen euskal-hiz-
tun osatu teorikoaz?: *Eurekin (haiek) berekin
eraman zuten | Beraiekin (lehen aipatu beste
haiekin) eraman zuten...* J. M.ek itzuli berri
duen eleberriko *heroiak* egoki dioen moduan:
"Eztia ez ditek guretzat astoontzat asmatu!"

Ezti bila jarraituko dugu, horratio, hu-
rrengoetan ere, etsi-etsian. Harik eta eleberr
berek pasarte honetan solasgai diren osetiar
gurtzain alfer vodkazaleak solaskideekiko zein
urrun-hurbil dauden garbi ikusten ez dugun
bitartean, behintzat:

— *Baina onartu behar duzu.—esan nion—
okerrago ibiliko ginatkeela haiek gabe.*
("haiek", ordea, bertan daude, eta haictako
bat seinalatu berri du solaskideak)

— *Hala da, bai, hala da —murduskatu
zuen—, gogaituta naukate gidari hauek!* (hona

berriro bertan gidariok, baina berehala urrun-
tzeko:) *Haiek gabe bidea aurkitzeko gauza ez
garela-eta...*

edo beste honako hau zein teoriaren alde-
kontra ote doan ebazten ez dugun bitartean:

— ... *Gainera, Grigori Aleksandrovitxek
opariak egiten zizkion egunero: aurreneko egu-
netan, harro-harro, isilik baztertzen zituen
opariak; hauek ostalariaren eskuetara joaten
ziren eta haren hitz-etorria suspertzen zuten.*

Aztertzekoan zerrendan geratzen dira,
orobat, oraingoz, (esan dugu izenordainez
jardungo genuela bereziki) nominalizazioe-
kin doazen adjetibo-erakusleetan zenbaterai-
no sumatzen den, *haren/berel/beraren* bereiz-
kuntzari dagokionez, izenaren sakonean da-
goen aditza ("berak erabaki du">"bere era-
bakia da"), eta erdaretako *indargarri* berezi-
tuak (*propio/proprietario*), baliokide xuxen-
xuxenik ez duenez (non eta kalkoa onartzen
ez dugun: anatema!), eragiten dizkigun na-
hasteak, eta...

Azken horren adibideren bat jar dezadan.
Euskaraz *Neure osasunak kezkatzen nau* eta
Zure osasunak kezkatzen nau nahitaez horre-
la eman behar badira, gramatikaren agindu
zorrotzez, nola eman, adibidez *Me preocupa
mi salud (no otra cosa)* eta *Me preocupa mi
propia salud (no la de otro)?* Lehenbiziko ka-
suan badirudi ez legokeela —arima salbu—
mailegua beste erremediorik (erdarazkoen
parentesietakoa euskarazkoan esplizitatu
ezan): *Neure osasun propioak kezkatzen nau.*
Bigarrenean, berriz, gauza bera egitea litza-
teke zuhurrena, baina beldur naiz ez ote
dugun horretarako ere erabiltzen, arauak
arau, forma *indartua: Zeure osasunak kezka-
tzen nau (ez besterenak).* Gauzak horrela, esan
beharrik ez dago nolako nahastea gertatuko

den, lehenaz gainera, *galdegaia* markatzeko erdarak ohi duen erlatibo *faltsu*zako moldeaz baliatzen bagara (prozedura horretatik datozkigu gero zalantza asko): *Zeure osasuna da kezkatzen nauena* ezezik *Neure osasuna da kezkatzen nauena* baitugu aukeran, hala maileru lexikoa (*propio*) erdarakada sintaktiko batez *dotore* ordezkatur. Sistemak, bistan da, bere sistematikasuna oporretara bidaltzen du horrenbestez (*exonormatibo* bihurtuxe dugu euskara; alegia gure *gramatika* ez da neurri handi batean guztiz geron baitakoa). Hirugarren pertsonan, zer esanik ez, are larriagoa da kontua, erreferenteak berak ere ez baitaude berez garbi: *Bere osasunak kezkatzen du* eta *Haren osasunak kezkatzen du* garbi daude (erabilera zuhurrean), baina *Bere osasuna da kezkatzen duena*, espero izatekoa zenez, arauz kontrakoa ezezik (*da* aditzaren erreferente bakarra "osasuna" baita) nahasgarri ere bada (aurrez aipaturiko beste norbaitena izan daiteke); bestea, berriz, ustez, ongi ulertzen da (baina *haren (ez besteren)* enfasia zer?; jostera *faltsu* horren baitan?): *Haren osasuna da kezkatzen duena*. Horretarako ote dauzkagu beste sailekoak?: *Harexen osasuna da kezkatzen duena*, edo, hobeto noski: *Harexen osasunak kezkatzen du*. Bestean, ordea, bateraezintasuna dago (*berexe), eta, ostera mailegu lexikora itzuli nahi ez badugu, ez da ikusten modurik *su salud* eta *su propia salud* bereizteko...

Geure osasunak eskatzen digu, kasu honetan, horrenbestean etsitzea, ezin denik ezin baita, ezin denez. Kontsolagarri, kontura gaitetzen erdaraz *su* horren anbiguitatea gure gehienak baino handiagoa dela: moldatzen

dira, hala ere. Hona erabat anbigua litzatekeen bat, aipatzen diren hiru izenetatik edozein izan baitaiteke erreferentea:

Ambos pensaban en Ana. Luis comentó a Pedro que lo mejor sería dejar su teléfono.

Egia esan, beste laugarren posibilitate bat ere badago hor, gutxienez: Luis eta Pedroren telefonoa (edo hirurena?!) bat bera izatea.

Beste bitxikeria bat: plural baten barnean ulertu behar den singularra korreferentea ote da gramatikalki plural horrekiko, eta ikusten ari garen prozedurez bereiz ote daiteke batzuetan kasu inklusibo hori (adibideetan parentesikoa) eksklusibo arruntetik?:

Bihar argituko dizut gurea (geurea?: zu(re) eta biona).

Zuk ez (al) duzu halakorik ikusten zuen (zeuen/zeuon?) herrian? (Hor batera zein bestera inklusiboa ulertu behar da)

Hark haien (beren?: bere eta bere asmokideen) asmoa bete baino ez zuen egin.

Hasierako asmoa hura/bera eta haren/beraren/bere bereiz aztertzea zen, baina arian-arian —artikulugilearen bide beretsutik, ustez— funtsean kontu bat bera direla frogatu edo da, eta honezkero ez dut bigarren atalerrako zer esan berezirik. Honaino, beraz, iruzkin adartsu honen azken burua. Nahasiak barka, kontra -egin zein -esanak ez kontrara har, eta probetxukorik idoro baduzue, on degizuela. Ez ahal nizuen bederen eragotziko, halako gramatika-matraka luzeaz, nik irakurri dudana plazer beraz irakurtzea Lermontov euskaratu berri eder hori.

ESKEMA LAGUNGARRI BAT'ZUK

SEINALATZE ARRUNTA

hura hura'
han
urrun

hori hi
hor
hurbil

hau ni
hemen
hurbil

SEINALATZE ZEHAZKI KOKATU GABEA

(harako,
noizbaiteko)
hura

(denok dakigun,
lortu behar den)
hori

Diskurtsoan
(aipatzen ari garen,
darabilgun)

Testuan
(gauden pasarteko
gai den)

hau

DISKURTSOKO (ETA TESTUKO*) SEINALATZE ANAFORIKO-KATAFORIKOAK

Ordezkapen
soila
hura

Errepikapen-
identifikazioa
(hura) **bera**

“Aurreko zera”
<hori

“Ondoko zera”
hau>:

* Diskurtsoko erreferentzia eta testukoa (seinalatze zehazki kokatu gabearen kasuan **hau** bezalatsu) gehienetan bat samar datoz (“aipatu **hori**” / “testuan atzerago, goragoko **hori**”, baina batzuetan zehaztu egiten da testu idatzia dela erreferentea: “parentesian eta azpimarraturik eman dudan **hori**”).

Oinarrizko eskema honekiko desbideraketa arruntak batez ere lehen graduko erakuslea (**hau**) beste eginkizunetarako ere baliatzen datoz (hala interpretazio-kodea lausotuz): kasurik okerrenetan, bereizkuntza egiten ez duenaren desisteman, "**Hau** izan da amorragarri guretzat" perpausa, adibidez, askotara uler liteke (lehen biak dira desbideraketak):

- 1) azken aipatu den pertsona, animalia, objektua (ordezkapen soila, *hautismoz*, **huraren** ordezt)
- 2) azken aipatu den gertakari, egoera, baieztapena... ("aurreko zera", *hautismoz*, **horiren** ordezt)
- 3) "ondoko zer **hau**" (gero, bi puntuen ondoren edo, azalduko dugun zerbait —edo norbait—)
- 4) perpausa datorren testuinguruko gaia den zerbait: erakusleen erabilera oker jakin **hau**, adibidez, beste *hain nabarmen ez diren* batzuekin implizituki oposaturik (seinalatze zehatz kokatu gabea, pasartearen autorreferentzia moduko bat)
- 5) begien bistako erreferente orokor bat: mundu, egoera, herri, modu... **hau** (seinalatze arrunta)

Sistema errespetatzen bada, berriz, aski da 4) erabilerekin kontu pixka batekin ibiltzea, ezen 3) aski garbi adierazia ohi dator segidako bi puntuen laguntzaz (bestela, nahasbidea saihesteko "honako", "hona zer", "zera" erakoak dira egokiak). Lehen gradua,

beraz, bere oinarrizko erabilerarako soil-soilik utziko genuke ia, hots, lehen pertsona gramatikalarekin lotura duenaren sinalatze arrunterako (testuak atzamarrik ez duenez orokor eta identifika-eraz samarrak izan behar dute erreferenteek idatzian, edo hitzez zehaztuak, jakina).

Beste desbideraketa nagusia, berriz, beraren abusutik dator. Batez ere, baina ez bakarrik, genitiboetan. Hiztunak berak garbi daukanez nortaz ari den (ez hainbeste **zertaz** en kasuan: erakusleak izenordain pertsonaltzat erabiltzen denean gertatzen da normalean), errepikapen modukoa bihurtzen da hasieratik, eta zehazki kokatu beharrik ere ez du:

Berak (beraiek, eurak) dira errudun.

Seinalatu dugun joera horrekin batera, baduke zerikusia horrekin perpaus berri baten hasieratik aurrekiko lotura formal bat markatu nahi izateak (kontutan hartu gurean aurreko perpausarekiko lotura-markak perpausaren amaiera aldean egon ohi direla). Horregatik jotzen bide du jende askok gero zer botako duen pentsatu baino lehenago ere bere, bertan edo estiloko bat jatzera, errepikapenezko formak erabiliz, mekanikoki, lotura egiteko (lehen graduaren erabilera batzuk ere zaku berean sar daitezke, testuan bertan eginez —seinalatuz— lotura). Forma berretuen inflazio horretara daraman bizioari *berberismo* izena legokiokoe zuzen onez, nahiz berez aski litzatekeen, izenean ere moderaturik, *berismo* deitzea.

Errepikapen-identifikaziozko formen (ustezko) paradigma batua

Singularreko forma bikoitza dutenak:

Adizlagunak:

beretzat / berarentzat
 berekin / berarekin
 beregan / bera(ren)gan
 beregandik / bera(ren)gandik
 beregana / bera(ren)gana

Izenlagunak:

bere / beraren

Aski garbi ageri da formalki oinarrian **bere** forma dutenak direla denak (**berekin** berdina da, bestetik, pluralean, eta horregatik baztertzen bide du hainbatek bere erabileratik singularrean ere). Morfologikoki gauzak horrela badira ere, sintaktikoki gauza jakina da Izenlaguna kategoria bihurriagoa dela, txertatuagoa (beste nonbait adierazten saiatu garenez, barne-perpauis erlatibozko bat suposatzen du sakonean). Horrek esplikatu dezake zergatik egiten den hobeto (errazago, jende gehiagok) bereizkuntza lehen kasuotan (lehen aukera joz korreferentzial segurutzat):

*beretzat ekarri du/berarentzat ekarri du
 berekin darama/berarekin darama*

nahiz kontua ez dagoen hain garbi -gan erakoetan, bihurkaritasunak kasu horretan areago eskatuko bailiguke **bere burua** erakoren bat (kasu horretan, forma bakarra aski da besterako):

beregan (=bere burua(ren)gan?) du uste osoa / bera(ren)gan du uste osoa

Bere eta beraren izenlagunen kasuan, berriz, aditzetik mailaz urrundua eta perpauis implizitoen interferentziapean egonik,

zailago gertatzen da korreferentziaren arau teoriko ospetsuari eustea, luze aztertu dugunez. (Morfologiaz ari garenez, jakin beza irakurle gazteak **bere/beren** bereizkuntza ere euskara batuaren lorpena dela (zela?) hein batean, Axularrek-eta (gorago ere aipatu dugu hori, adibide eta guzti) **bere** baitzerabilten singular nahiz pluralerako: eta moldatzen ziren, hala ere moldatu!).

Horrenbestez, eman dezagun orain pluralerako paradigma:

berak
 berek
 berei
 beretan
 beretatik
 beretara
 beretako
 berentzat
 berekin
 beren

Bistan denez, ez dago hor korreferentzia/ez-korreferentzia bikoiztasunik: *Berentzat ekarri dute*, *Beren etxean geratu ziren* anbiguo gerta daitezke, beraz, testuinguru batzuetan. Ikusi dugu, hala ere, singularrean ere ez duela praktikan erabateko funtzionaltasunik (*Beretzat ekarri du* eta, batez ere, *Bere etxean geratu zen* arauz kanpokoak barra-barra erabiltzen baitira), eta pluralaren maiztasuna, bestetik, txikiagoa da. Gauzak horrela, paradigma horren gainean euskalki-formak edo berrikuntzak ezarri nahi direnean hasten dira nahasteak. Singularrean bereizten ez direnak ere *bereizko* genituzke (ni intsumiso natzaie):

eurak (bizkaiera)/beraiek (giputz-berri)

(A. Irigoien —1978an!: pentsa zer aurre-ratu dugun—, erakusleei buruz Euskaltzain-diari aukeztu zion txostenean, ohartu bide zen noski *eurak* erakoek ez dituztela betetzen funtzio guztiak (**gizon eurak*...), eta (J. M. en antzera, baina *antzera* bakarrik) *berak* sailekoekin batera erabiltzearen aldeko agertu zen (*beraiek* erakoak baztertuz, jakina). Morale-sen proposamen ustezkoa eklektikoagoa da, eta borondaterik onenaz nahi luke ordenu apur bat jarri dabilen desarau nahasian, bai-na beldur naiz horrek ez ote lukeen dabilen kaos probintzia-arteak aregotuko, eta, bide batez, forma batua (Jugoslavia hil zen, gora Jugoslavia!) batera errurik gabe, leku faltaz, beste bien tirabiran, *garbitu*, halako kasuetan gertatzen denez (horretaraxe goazela dirudi).

Halako sistema eklektiko ondo erabili batek hiztun-idazleari zer eskatuko liokeen ilustratzen duen esaldi bat antolatu dut; hona:

*Gizon batzuk ikusi zituen urrutitik begi-
ra. Gizon beren aurretik pasatu zen gero
bi aldiz. Eurak ez ziren konturatu, baina
Teok amorrua sentitu zuen beraien-
gana(ko).*

Zailtxo dirudi erabilera nahasien errudun garenxeok halako trebezia finez onbideratzea orain denak sistema zehatz indartsu batera. Hasteko, hirugarrenaren —eta akaso (bestetako zehar-estiloa gora-behera) bigarrenaren— ordez *ber-* gabeko formak daude hor aukeran (lehenbizikoa ezin da aldatu identifikazio-enfasia galdu gabe). Gero, bestetik, *eurak/beraiek* (eta *hauek, hautisten* kasuan) beren arteko lehiari daude, *ez distribuzio komplementarioz*... Ikus, adibidez, Auden-en poesiaz J. Olasagarrek egindako bertsiotikako pasarte hau:

Eta *beraiek* antzeztutakoak
Gaurkoak irudi arren jada atzokoak.
Kupido, jainkoa, ados dago,
Baita zuek ere, ziur nago,
Guztiak egia esan dutena.
Hots, hauxe da morala, *eurek* esana:
Jo ta ke, jo ta ke, jo ta ke, hil arte.

(Akaso komeniko da hemen ere Agirre Asteasukoaren aipamena; besteak beste, *beraren* eta *bere* zintzo bereizten dituenetakoa baita. Pluralcan ere bi forma erabiltzen ditu —neu ere harritu naiz—: *beren* eta *eren*. Sakonera filologiko handitan sartzeke ere, garbi dago *euren* bizkaierazkoaren giputzahaidea *eren* hori dela, baina *beren* eta *eren* aldaera baliokide soil dira, oso oker ez banago (ezin izan ditut den-denak konprobatu, baina bai mordo ederra), Agirreren idazkeran. Ubillosek, adibidez, gipuzkeraz noski, (h)*eren* baino ez darabil.)

Gauzak horrela, kasu guztietan *berak-bereren* paradigma erregular soilari eustearen aldeko naiz ni euskara batu estandarerako.


(Batzuentzako penitentzia bakarra *berak* nominatibo *nahasgarri* horretara ohitzea litzateke, baina malgutasun handia frogatu dute dagoeneko *eurak/eurek* bereizkuntza inexistentea ere berenganaturik... Kontutan har bedi, bestetik, akaso ondo etor litekeela *berak* erako formekiko higuin halako hori, abusurako joeraren kontra forma soil egokietara itzultzeko bidean. Alegia, orain barra-barra *eurak* zein *beraiek* darabilena, *berak* gogortxo begitandu, eta *haiek* arruntera bihur dadin, hura aski baita askotan. Hala ere, aitor dezadan, errazago dirudi horrek *bereren* genitiboan, *berak, berek, berei* kasu zuzen-tan baino. Alternatiba euskara baturik eza da, hala ere)

Nire sisteman, beraz, **berarekin, berarentzat** (eta —testuinguru batzuetan **bere** ez-bihurkari bat *onartu* beharko bada ere— **beraren**) lirateke praktikan paradigma erregularretik aparte beren lekutxo eduki lezaketanak). Puntu ahula sozietiboan legoke, non ez litzatekeen bereiziko *bihurkari* singularra plural edozertarikotik (**berekin**). Hala ere, *bihurkaritasuna* aditzarekiko korreferentzia garbian oinarritzen denez, ez dirudi hainbestetan bilatu beharko litzatekeenik anbiguitate hori ebazteko modu zehatzagoren bat.

Amaitzeko, hona iruzkin hau ia amaituta neukanean A. Irigoieni duela ia hogei urteko bere txostenaren errematean berrirakurri diodan eta erabat neure egiten dudan hau (ea beste hogei urte joan baino lehen egiten hasten garen aspaldi egina behar genuena):

“Edozein modutan ere proposatzen ditudan bideok ene ustez eztabaidatzekoak dira, geroago, posible baldin balitz (sic), bide berera guztiok etor gaitezen, geure hizkuntzari behar duen estimua, maila eta indarra emanik.”

Ez dakit egileak berak zer pentsatuko duen orain orduan idatzi zuenaz. Nik neuk, haren (egilearen) aldeko komaren bat gorabehera, ukitutxo bat baino ez nioke emango (beraren) aipu horri, aditzen denbora-moduen konkordantzia zuzen-jatorrago bat lortzeaz bat itxaropenari ere lehiatila bat irekitzearren: “posible baldin bada”.



Jorratu dugun gaiaren inguruko material eta iruzkin interesgarriak aurki ditzake irakurleak OEHan, batez ere bere sarreran. N̄abarduraren bat (**beraiek** zuberocraz ere erabili izan dela, adibidez) eta hutsuneren bat (**berok** jatorrari **berauek** eta **beroriek** analogikoez jan diote, antza, lekua) gora-behera, ez dut ikusi nire iritzion kontra doanik, EGLUri egiten dizkion zuzentze-oharrak barne. Gure honek —batzutan hala ez badirudike ere— praktika baitu helburu, txikikerietan gehiago sartu gabe, hona adibidezko laburpen bat, artikuluan aztertzen den erakusleen higadura prozesuarena eta proposatzen den erabilerarena.

Aurrena, forma berretuen (eta lehen graduen) erabilerak nondik nora abusuraino ugaldu diren ilustratu nahi duen adibide bat:

Bestelakoa da baserrialdekoa;

- *haren kezka nagusia bere lana egitea da.*
- *beraren kezka nagusia bere (beraren?) lana egitea da.*
- *bere kezka nagusia bere lana egitea da.*
- *honen kezka nagusia bere lana egitea da.*
- *beronen kezka nagusia bere lana egitea da.*
- *honen (haren) kezka nagusia bere (beraren)lana da. / honen (haren) kezka nagusia lana da (interpretazio desberdina izan dezake).*
- *bere (beraren) lana da haren (beraren, bere, honen?) kezka nagusia.*

(Errepara bedi nolako alde txikia dagoen esanahiaren aldetik “bere lana egitea da” eta “bere lana da” esapideen artean, bigarreanean “lan” hitzak nominalizazio gisa funtzionatzen

baitu. Bidean, ordea, korreferentziatik (“**hark** egitea **bere** lana”) ez-korreferentziara pasatu gara (“kezka nagusia **haren** lana”). Hiztunarentzat, ordea, erreferentearen errepikapenak (“**haren** kezka nagusia **bere** lana”) edo/eta perpaus implizituak (“**haren** kezka nagusia (**berak**) **bere** lana (egitea)”) bere eskatzen du bigarren kasuan ere.)

Irtenbide sintaktiko bat bada noski:

(bere) lana (egitea) du (hark) kezka nagusi.

(Hor esaldia laburtzea den moduan, luzatzea ere izan liteke irtenbidea bestetan, honako Ubillosen honetan bezala (1785):

“Guizona(.) egiteko lenago moldatu zuan lurrez gorputz bat, eta gorputzari emancion(.) bere aneco eguin zuan(.) anima bat.”

Ustez garbi ikusten da hor “eguin zuan” tartean sartu ez balu “**bere**” horren erreferentzia gutxienez *Jainkoa* zein *gizona* izan daitezkeela, “emancion” bailitzateke korreferentziak markatuko lituzkeena. *Gutxienez* diot, zeren —semantika arruntaren kontrako surrealismo apur batez— “anima” ere izan liteke (“arima arimaren beraren antzeko”). Anbiguitate teoriko hori ez da noski haintzat hartzekoa (“eguin zuan” horrek ere ez luke bestela konponduko). Inori bururatu bazaio beste posibilitatea, alegia “gorputza” izatea erreferentzia, esan dezagun kasu horretan Ubillosek ere **beraren** erabiliko zuela noski, eta ez **bere**:

“Guizonari ceritzan Adàn: onen saiets-ezur batez eguin zuan Jaincoac(.) beraren la-gun izán behar zuan(.) emacumea”

Hau ere *hautista* suertatu zait, horra (itzulpena dugu testua), baina bestela oso eredu-garri deritzat bere inflaziorik ezean:

“Horduan Jaincoac madaricatu zuan su-guea, ta adirazi zuan emacumeagandic etorriko zalá(,) aren burua ausico zuana; edo emacumeagandic jaioco zala demonioa garaitu, ta aren esku(,) ta eguin-al guziac galduco cituan(,) Munduarén zucentzalle(,) ta salvatzallea.”

Halako sintaxietara (erlatibo bihurrik gabeko eta nominalizazio gutxiko joskerara, alegia) jo ezean, nekez salba liteke arau teorikoa, zeren, haren zein beraren, biak ere erakusleegi (deiktikoegi) sentitzen baitira, eta, besteak beste, horregatik ere jotzen baitu hiztunak bere gradugabe (abstraktoago) horretara. (Zenbait situaziotan, gainera, larriagoa da sentimendu hori (erakusle petoaren “urrunegi” ulertze hain aipatua tarteko). Adibidez, herri bati buruzko herri horretako bertako aldizkari batean, herri horrixe buruz ari gara, nekez erabiliko genuke “haren populazioa”; “beraren populazioa” ere halatsuko urrun sentitzen da, eta azkenean, noraezean, berera jotzen dugu noski (kasu horretan, askotan bezala, “populazio” hitzaren ez-jatoritasuna eztabadaidatu gabe ere, bere horretan, genitikoa besterik gabe kentzea dirudi dela irtenbide zuhurra). Beste komunikazio-egoera berezi batzuetan, *situazio birtuala* edo gainezartzen zaio ohikoari, hala nola telebistan kirol saio bat *zuzenean eta bizitan* ematen zaigunean, edo gero laburbildurik, zeren, esatari zein ikusle, pantaila den erreferentzia berritik ari baikara nagusiki, eta deiktiko-anaforikoen sistema —bestela ere harekin ditugun arazoez gainera— ez baitzen asmatu komunikazio-situazio konplexu horiek kontutan harturik. Bereziki egokitu beharreko kontua da, beraz, testuetarako landu behar izan den moduan.) Kontuak kontu, *mendebaleko* oraingo joskera arruntetan bederen, normalena araua haustea da:

*bere kezka nagusia da
bere lana da
bere anaia da
bere ondoan eseri zen*

Errepara bedi, bestetik, esaldiotan ez da goela anbiguitaterik praktikan, zentzu *bihurkaria* semantikoki espero izatekoa ez delako (inor *bere buruaren* anaia izatea, edo *bere buruaren* ondoan esertzea, adibidez). Idazle zahar-finetan halakorik apenas aurki daitekeen noski, aukeran adizkiak markatzen baitu erlazioa (eta hala genitiboa aukerako bihurtzen kasu batzuetan):

*(bere) kezka nagusi(a) du
bere lana du
anaia du
(bere) ondoan eseri zitzaion*

Funtsean, beraz, arazo sintaktiko orokor-rago baten isla baino ez da bere arauz kontrako horren erabilera (“Berak esan du” *jatorraren* ordezkari “Bera da esan duena” esanarazten digun fenomeno bertsua, azken finen). Hala, erdal kalko sistematikoen bitartez “su” dontsuaren ordain automatiko batez ere behartu gara, eta gero datoz kontuak euskal arau zaharrak erdal-euskal pastitxeari egokitzeko orduan. Inork ez dezala hala ere pentsa honezkero halako joskerarik gabe molda gaitzkeenik erabat. Ahal den neurrian, haatik, abusuari frenua jarri beharko genioke, baina sintaxiaren errotik, ez hitz bat jarri-kenduz.

Errezeta bat, forma berretuen erabilera:

Ez haren eta ez bere gabe ematerik bada-go, hainbat hobe.

Haren zein bere, bietara berdin ulertzen bada, hobe haren.

Bere behar duela garbi badago eta anbiguitateren bat badago praktikan, bestela formulatzen saiatu (genitiboen ugalketa bihurria sintaxi desegokiaren sintomatza hartu).


Beraren erabili nahi duenak, ez dezala **bere** zuzena hartaz ordezka. Besteek, zain ditzatela anbiguitateak, hirugarren pertsonako erreferente posible bat baino gehiago dagoenean behintzat.

Ez ahaztu erabilera anaforiko horietan beste zerbaiten ordezko direla erakusleak: erreferentea bera errepika daiteke okerrean, edo sinonimoren bat bilatu.

Askorentzat **bere** perpausa aurrekoarekin lehenbailehen (halamoduz) lotzeko mekanismo erosokeriazko bat baino ez da (gainerako halako erakusle-anaforak bezala perpausaren hasiera bilatzen du:

<Honek..., Bertan..., *Guzti hori/Hori guztia...*) Zintzoa izatera, **bere** hori justifikatuko duen joskera bat bilatu beharko luke gero hala darabilenak, baina gehiegi eskatzea litzateke. Kontrako bideak zuhurrago dirudi, beraz, aukeran: automatismo zabarro baztertuz, perpaus bakoitza **bere** gisa taxuz antolatu, eta aparteko lotura espliziturik behar badu, egoki denen bat bilatu.

Azken orduan erdarazko "su" horiek "bere" automatikoki egiteak dakartzan arriskuak ederki islatzen duen beste adibide bat aurkitu dut, gorago ere aipatu dudana J. Olasagarreren itzulpen lanaren atarikoan, Rikardo Arregi Diaz de Herediak hartarako eginitako aitzin-solas ederrean, hain zuzen. Letra lodiz doaz aurrekari posibleak (5!):



"Nahiz eta *miresgarri honetan (sic) datza Audenen poesiara heltzeko bide posible bat. Izarrik gabe edertasuna bere (sic) ausentzian kausituko genuke zalantzarik gabe. Bitartean izarmin nimitño bat, besterik ez. Ironia.*"

Kasu honetan, —ez dakit lapsusez ala deliberamenduz— ageri den "bere" horren ordez "beren" agertuko balitz, aise konturatuko ginatke, ustez, *izarrik* direla erreferente (*izarren ausentzian*, alegia).

Dagoenean, berriz, korreferentziaren legearen arabera (esan dugu ez dela ongi betetzen, eta gutxiago "ausentzia" den moduko nominalizazio-izenak tartean daudenean), *berez*, *edertasuna edertasunaren ausentzian kausitu* ulertu beharko genuke, eta ez besterik, eta, Auden-enetik gorago, poesia metafisikoaren gailurra

izan baliteke ere, ez dirudi hori denik aitzin-solasgilearen asmoa. Gauzak horrela, pluralen *de facto* nahasbiderik ez badago ere hor, hobe litzateke aukeran, forma berretua baino, arrunta:

Izarrik gabe edertasuna haien ausentzian kausituko genuke zalantzarik gabe.

Edo, "izarrik" partitibotik pluralaren erreferentea *berrosatzeari* zaila baderitzogu, maiz esan dugun moduan joka dezakegu, seguruenetik, alegia (eta ez hala ere antipoetikoenetik). Hona nola geratuko litzatekeen, neure gustuetara ekartzeko beste ukitu batzuk ere emanik:

Izarrik gabe, izarren ausentzian kausituko genuke, zalantzarik gabe, edertasuna.

Hurrengo adibidean, horretara garez gero, pluraletan bi euskalki boteretsuenetako gutxi gora-beherako egoera azaldu nahi da, eta hirugarrenean *batu bateraturako* proposamena:

Beste modu batekoak dira basarri aldekoak;

{ *areen ardura nagusia euren bearra (egitea) da.*
euren ardura nagusia euren bearra (egitea) da.
oneen ardura nagusia euren bearra (egitea) da.

{ *aien kezka nagusia beraien (beren, eren) lana (egitea) da.*

{ *be(r)aien kezka nagusia beraien lana egitea da.*
auen kezka nagusia beraien lana egitea da.

{ *haien kezka nagusia beren lana (egitea) da.*
(beren) lana (egitea) dute (haiek) kezka nagusi.

“Beren lana da” singularreko “bere (beraren) lana da” esapidearen araberakoa da; singularrean (“haien lana” soilarekin batera, jakina) “bere lana da” bakarrik *onartzea* da noski aukerarik sinplifikatzaileena, hala bietan (sing. nahiz pl.ean) erabilera bietarako (korreferentea nahiz ez) forma bakarrak baikenituzke (bere/beren).

(Singularraren eta pluralaren simetria-beharra ez da argudio erabatekoa, inondik inora. Singularraren maiztasunak aise justifikatuko luke pluralean paralelorik ez lukeen beraren forma hori. Xelebreagoa dugu, esaterako, onartu berrixe diren hikako formen paradigma, zeinean *ditinat* eta *dizkinat*, adibidez, garbi bereizten baitira pluralean, baina forma bera baitute noski singularrean: *dinat*... A, non ote daude garai bateko *d(er)aunat* eta *d(er)auzkinat /dinat* eta *ditinat* huts-gabe haiek!)

Horixe da, bada, nire proposamenaren zalantza *bakarra*: beraren *hori* sisteman sar-

tu ala ez (zalantza *bakar* hori, hala ere, beste hainbat konturekin loturik doa, ikusi denez: anaforiko-berretuen inflazio eta higadura, beste graduen lehia...) Autoritatea argudioetan bilatu beharko genuke noski, baina, badaezpada ere, esan dezadan Mitxelena berak ere (Koldok, ez beste oiartzuar mardulak) bere ohi zerabilela halakoetan, eta ez beraren; ez da bakarra, noski (nik neuk, besteak beste Agirre Asteasukoa berrirakurri ondoren, beraren —Agirrerren eta berarenen, bien— aldeko naizela aitortu behar dut). Bide batez, eta eskumika nazaten beldurra gauditurik, aitor dezadan ez zaidala beti-beti puntu guzti-guztietan ereduagarriena iruditzen errenteriar maisu handia ere; besteak beste, horretaz ari garez, erakusleen zenbait erabileratan (hala ere, txarrerako ere, garbi ageri dateke nire honetan nolako probetxagarri izan zaidan haren eredia). Nahi nuke, haatik, egungo hainbatek —imitatzailak barne— haren badaezpadakoenaren modukorik erdietsiko balu inoiz, harako asto xirulariak behin nola, txiripaz, besterik ez bada.

Beste errezeta bat, graduen banaketaz:

Lehen gradua erabiltzen den bakoitzean, konprobatu bi kasuotako bat dela:

-Esaldiaren bukaera bi puntuen ondoren zehaztuko den zerbait ordezkatzeko dela.

-Situazioan hurbiltzat jotzen den zerbaitekin, lehen pertsonarekin, orainaldiarekin... lotzen den zerbait seinaltatzeko edo dela.

Bestela, beste bi graduez baliatu. Diskurtsoa nahiz testua ez bada markatuki erreferentzia, hirugarrenari cutsi.

(Beste modu batera esanda: probatu aurrena hirugarren gradua, bestela bigarrena,

eta azkenik, eta konturik handienaz, lehen gradua).

Ohartxo bat adjetibo funtzioaz:

Egia da izenarekin batera doanean ez dela hain arriskutsua lehen graduaren erabilera:

Aipa dezagun Aristoteles. Filosofo honek...

Izenak lexiko-semantiko egiten duenez lotura, berdintsu izan daiteke askotan gradu bat zein bestea erabiltzea, baina nolabaiteko loteriaren baitan geratzen gara, zeren, testuaren idazlea ere filosofoa izatea suertatuz gero, esaterako, bestela erabaki beharko genuke, testuingurutik, bere buruaz ez ote den ari (*nire* sisteman, hala ulertu beharko litzateke nahitaez, non eta honelako segida bat ez lukeen: *Filosofo honek aztertu du ondoenik Metafisikaren sortzailearen pentsamendua: Zubirik*). Neure kontra jarri dudana adibide horretan ez dirudi hain beharrezkoa denik halako zorroztasuna, baina aski da izena aldatzea konturatzeko ulerbide okerrak txiteanpitean gerta daitezkeela: “etxe honetan”, “garai hau”, “idazle honi”, “herri honentzat”

Horregatik, hobe dela deritzot, kasu horretan ere, edo bigarren gradura jotzea (edo hirugarrenera, testuaren erreferentziatik urrunduz), edo sinonimia libreago batez baliatzea, edo biak batera: “(Greziako) filosofo (handi) horrek (hark, -ak)”. Buru-azkarren batek ihardets diezadake “filosofo horrek” ere oker uler daitezkeela, alegia irakurlea bailitzan filosofo dena, baina ez da espero izatekoa irakurle guztiak filosofo fortunatzea, eta direnek ere ez ahal dute pentsatuko berei baka-rik eta zuzenean hitz egiten dienik testuak. Gauza bera “etxe horretan”, “garai hori”, “idazle hori”, “herri horrentzat” eta abarrei dagokienez.

Azken ohar bat, literaturari begira:

Esanak esan, garbi dago eskema guztiak gero haietatik desbideratuz bestelako fiabardurak adierazteko ere badirela. Hala ere, nekez lortuko da halakorik nondik edo zertatik desbideratzen garen garbi ez badago, eta, horrenbestez, esanguratsuki desbideratu nahi duen horrixe zaio komenien abiapuntuko eskema hori garbi egotea.

Kasu batzuetan ez dago hain argi non den muga. Gramatikariak, esaterako, berrikitan gogorarazi digute “oraindik (ere)” orainaldiari dagokiola, eta iraganaldiko baliokidea “artean (ere)” dela; hori hala izan edo ez izan, kontua da “orain isilik zegoen”, adibidez, posible ezezik oso erabilia dela, literatur prosaren denbora-joko bihurriak tarteko. Irakurle azkarra konturatu zen ez naizela dirudien beste urrutiratu erakusleen gaitik; izan ere, aski da “orain” horren orde “une honetan” jartzea: esaldiak ez du gauza berbera adierazten, baina ez dabil urruti. Hain zuzen ere, “orain” narratzen ari den *iraganeko* une hartan” edo ulertarazi nahi litzateke “une honetan isilik zegoen” bitxia erabiliz.

Ez da oso besterik (baina alderantzizko prozeduraz: iraganaldiko adizkia orainduz) *presente historiko* delakoa: “Iparragirre Urretxun jaiotzen da...” Halakoei buruzko nire iritzia aspaldiko SENEZ batean eman nuen, eta han esanikoa oraingo gaira egokitu baino ez dut egingo kasu honetan: ez dirudi erdarazko prozedurak beren horretan kalkatzea denik irtenbiderik zentzuzkoena; gutxienez, konprobatu egin beharko genuke noiz zai-gun bakoitza guri egoki, eta ezezkoan, premia benetakoa bada, baliokide funtzional bat bilatu geurerako.

Literaltasunaren arazoa Brohumil Hrabal idazle txekiarrarengan

KARLOS CID ABASOLO

*Garagardoa edanda,
Jainkoarengandik hurbilago*

Bohumil Hrabal

1. Hitzaurrea

Iazko abenduan LIMerako txostentxo bat prestatzea egokitu zitzaidanez gero, zein gai jorratuko eta, Txekiako idazle bat aukeratu nuen: Bohumil Hrabal. Izan ere, duela hiruzpalau urte liburu bana jaso nuen bi lagunengandik: txekierazko bat (*Obsluhoval jsem anglického krále*) eta, halaberrez, *Yo que serví al rey de Inglaterra*, hau da, Jítka Mlejnková egindako espainierazko itzulpena. Bi liburuak aldi berean jaso eta aldi berean jakinminez irakurtzen hasi nintzen. Jarraian txekierazko beste bi liburu irakurri, Milan Kunderarena bata eta Jaroslav Hašekena bestea, eta artikulu bat izkiriartzea otu zitzaidan, txekiera euskaratzean hizkuntz maila guztietan topa daitezkeen zailtasunei buruz¹.

LIMerako txostentxo hau harako artikulu haren jarraipena da, hori bai, Hrabalen liburuaren lehenengo kapitulura mugatua. Oraingoan, ordea, balizko euskal bertsoiak nolakoa izan beharko lukeen proposatu beharrean, espainierazko itzulpenaren gorabeherak aztertzen saiatuko naiz, edozein idazlek literatur arautik desbideratzeko duen askatasuna eta edozein itzultzailek askatasun hori errespetatzeko duen obligazioa aipatuz. Nonbaitetik hasi behar eta, izenburutik: *Obsluhoval jsem anglického krále*, hau da, "Ingalaterrako erregea zerbitzatu nuen", dugu txekierazkoa. *Yo que he servido al rey de Inglaterra*, hau da, "ni"-aren ga-

1. Cid Abasolo, Karlos (1991)

rrantzia azpimarratzeko eta, agian, Erdi Aroko oihartzunen bat ekartzeko² balio duen perpaus erlatibo ez-murrizgarria, espainierazkoa. Nolabait ere, izenburuan bertan topatzen dugun alde hau bi testuen berezkotasunaren zantzu dugu: irakurketak aurrera egin ahala ohartuko garenez, txekierazkoan ekintza da nagusi, edo hobeki esanda, protagonista nagusiaren inguruan eratutako ekin-tzen segida etengabea. Espainierazkoan, ordea, zenbait alor landu dira jatorrizkoan ageri ez direnak, eta izenburutik beretik islatzen da berariazko joera hori: txekierazkoan agertu ere egiten ez den sujetua, espainierazkoan, agertzeaz gain, galdegaia da. Itzultzailea beldur da jatorrizkoa estu errespetatuz gero ez ote duen itzulpenak txarra irudiko, eta horregatik hizkuntz maila guztietan antze-maten zaio testua “txukundu” edo “hobetzeko” borondatea.

Hain hedatua den joera hau Antoine Bermanek aztertu zuen, baita zehatz-mehatz aztertu ere³. Berak aipatzen dituen baliabide deformatzaileetatik bost dira Mlejnkovák bere itzulpenean darabiltzanak:

- 1) Arrazoikuntza: sintaxia eta puntuazioa birmoldatu egiten dira, diskurtso anarkikoa linealitatearen ildotik bideratuz.
- 2) Argikuntza: baliabide honek badu aurrekoarekin zerikusirik. Hrabalek zehaztu baino iradoki nahiago du. Itzulpenean, ordea, alderantzizko joera dago.
- 3) Noblekuntza: Hrabal ez da idazleen urrezko kadiretan esertzeko jaioa. Plazako gizona dugu oso, eta jendearen hizkera ekarri ohi du literaturara. Izan ere, bere idazkera ahozkoatasunari estu-estu loturik dago. Eta hori ez dago itzulpenean behar bezala jasota. Lexiko mailan, esaterako, errepikapenak sinonimoen bidez saihesten dira.
- 4) Erritmoen deseuztapena: Hrabalek, pasarte asindetiko eta polisindetiko luzeen bidez, segida etengabearen efektua sortzen du. Ulermenaren mese-dean koma edo juntagailu kopulatiboa ordezkatzan direnean, erritmoa kamustu egiten da.
- 5) Lokuzioen deseuztapena: lokuzioen ordezkari baliokide ez-markatuak agertzen dira maiz itzulpenean. Baina kontrakoa ere gerta daiteke: lokuzioen bat itzulpenean agertzea, baina ez jatorrizkoan.

2. Hala balitz, zein irizpidetan oinarriturik?

3. (1985)

Baliabide hauek guztiak erabiltzetik aterako den testua literarioa dateke, baina inola ere ez "hrabaldarra"⁴. Hrabaltasun hori ulertzekotan, idazlearen bizitza hartu behar kontuan: lanbide askotan aritua (trenbideetako langile, biltegiko laguntzaile, notario baten pasante, aseguro-agente...) eta garagardozaile amorratua. Arratsero Prakhako Alde Zaharreko "Urrezko tigrea" deritzon tabernan horditu eta lagunaren ahotik han-hemenkako pasadizoak entzuten ditu, gero, behin etxean, bere idazkeraren eta alkoholaren galbahetik iraganarazita, idazmakinaratuko dituenak.



PIVNICE U ZLATĚHO TYGRA

Hitzaurre honetan esandakoak bigarren ataleko adibideen bidez fröगतzen saiatuko naiz. Adibideak hizkuntz maila ezberdinetan daude banaturik, eta batzuetan itzulpenaren berriazko desbideratzea erakusten dute, eta bestetan itzulpenaren akats hutsak. Adibide bakoitza honelaxe dago osaturik:

- a) parentesi artean, eta hurrenez hurren, txekierazko eta espainierazko orrialde-zenbakiak.
- b) txekierazko testua.
- d) euškarazko itzulpena.
- e) Mlejnkováren espainierazko itzulpena.

Bestalde, eta irakurlea beldurtuko ez bada, jakin beza artikulua bukaeran aurkituko dituela erabilitako laburdurak.

2. Adibideak

2.1. Sintaxia

Txekierak eta espainierak, hizkuntza indoeuroparrak direnez, antzekotasun tipologiko nabarmena dute, sintaxi mailan batez ere. Hori dela eta, ez bide dago arazorik itzulpenetan baliokide sintaktiko zehatzak aurkitzeko. Arlo honetan, beraz, desbideratzeak ez dirudi justifikatuegia.

4. "Hrabalen testu baten itzulpena oso borobildua bada, garbia, gramatika-okerrik gabea, eta joskerak konposatuaren legeak goitik behera eta txitean-pitean errespetatzen dituenak, itzulpen kaxkarra izango da oso. Hrabalen gurrpil zoro eta, gehienetan, hordituan sartu beharrean kanpotik begiratzen badugu haren literaturgintza (eta kanpotik itzultze-lanetan ihardun), gureak egin du". CID ABASOLO, 62.

2.1.1. Koordinazioa

Sintaxia hrabaldarraren oinarria polisindetona da (*a*⁵ 'eta' da juntagailurik errepikatuen) eta, maila apalago batean badarik ere, asindetona. Itzulpena, ordea, ahozkotasanaren ezaugarri horri itzurtzen zaio, perpaus menperatuen alde apostu eginez. Itzultzaileak uste du honela jokatzuz gero itzulpenari on egingo diola, eta nire iritziz, kale egiten du, ez baitu errespetatzen Hrabalen idazkera anarkiko, zoro eta ustez antiliterarioa. Gehiegizko esplizitazioa dago espainierazko testuan: txekieraz iradokitzen dena espainieraz zehaztu egiten da.

Idazkera automatikoa gogorazten digun literatura mota hau gertuago dago, hizkuntzaren maila guztietan, ahozko txekieratik idatzizko txekieratik baino, eta hori nola edo hala jaso egin behar itzulpenean. Bestela, akatzen ari gara Hrabalen izpiritu bihurria: leuntzen ari gara kontakizuna, itzulpena zeharo hrabalgabetuz.

- asindetona → erlatibo orazionala

[1] (18-25) tak se mi hnala po ruce a chtěla mi ji políbit, já jsem myslel (*orduan eskura oldartu zitzaidan eta musukatu nahi izan zidan, nik pentsatu nuen*) / se abalanzó sobre mi mano con intención de besarla, lo que me hizo pensar

- asindetona [... IS_i]_p, [ta_i 'hori' ...]_p → [... IS_i]_p, [IE_i ...]_p

[2] (30-32) je církev katolická, ta obchoduje (*Eliza katolikoa da, honek negozioak egiten ditu*) / es la Iglesia católica, que hace negocios

- asindetona → polisindetona

[3] (13-21) bylo to všechno voňavé, když se pak naklonila (*dena usaintsu zegoen, hura gero makurtu zenean*) / todo estaba perfumado, y cuando ella se inclinó

- polisindetona (P + JK + P + JK + P) → P + JK + [al + INF] + P

[4] (23-28) já je položil na stůl a odcházel jsem a měl jsem dojem (*nik mahai gainean jarri eta alde egin nuen, eta irudipena izan nuen*) / yo las dejé sobre la mesa y al irme tenía la sensación

5. Aurrerantzean JK deituko zaio, hots, juntagailu kopulatiboa.

- polisindetona (P + JK + P) → P + para + INF

[5] (24-29) dal jsem si sklenici na oko a díval se, zda je čistá (*edralontzi bakoitza begian jarri eta garbi ote zegoen ikusten nuen*) / me acercaba cada vaso a los ojos para ver si estaba limpio

- polisindetona → adbersatiboa

[6] (14-22) a zeptala se, a už věděla odpověď (*eta galdetu zuen, eta bazekien erantzuna*) / y volvió a preguntar, pero ya sabía la respuesta

- [...IS_i]_p JK [IS_i ...]_p → [...IS_i IE_i ...]_p

[7] (39-39) ten zástupce je pečlivě uložil do sáčku, a ten pytlík zalepil (*ordezkariak arretaz boltsatxo batean ezarri zituen eta zakutxo hori kolatu*) / el representante las guardaba cuidadosamente en un sobre, que a continuación cerraba

Nabari denez, txekierazko testuan korreferentzialak diren bi Izen Sintagmak ez dira hitz berberak, sinonimoak baizik:

sáček: boltsa

pytlík: boltsa, zakutxoa

- polisindetona → *con que* + P

[8] (19-25) A on řekl, že ztratil dvacet halířů, a já jsem počkal (*eta berak esan zuen hogezi zentimo galduak zituela, eta nik itxaron nuen*) / Y el respondió que había perdido veinte céntimos, con que esperé

- polisindetona (P + JK + P) → P_i + [IE_i ...]_p

“Erlatibo orazionalak” deritzen perpaus hauetako izenordeek edozein funtzio gramatikal bete dezakete:

a) denborala


[9] (29-32) a šéf se vrátil (*eta nagusia itzuli zen*) / tras lo que el jefe volvió

b) sujetua

[10] (15-23) a ona se tomu smála (*eta berak horri barre egin zion*) / lo que la hizo reír

- polisindetona (P + JK + P) → P + *de modo que* + P

[11] (34-35) a byly tam a oddychl jsem si (*eta han ziren, eta hasperen egin nuen*) / estaban allí, de modo que suspiré



- P JK P JK P → P⁶

[12] (14-22) seděla tam černovlasá mladá slečna a měla vyčesané vlasy a kouřila (*han andereño gazte ilebeltz bat zegoen eserita, eta orrazturik zeukan ilea, eta erretzen ari zen*) / ahí estaba sentada una señorita joven, morena, con el pelo cardado, que fumaba

- polisindetona → asindetona

[13] (19-25) a vzal jsem hrst drobných a hodil jsem to do vzduchu a honem jsem se chopil uch koše a zabořil jsem se do karafiátů a šel jsem dál (*eta eskukada bat diru xehe hartu eta airera jaurti nuen, eta azkar asko heldu nien saskiaren euskarriei, eta krabelinetan hondoratu nintzen, eta aurrera jo nuen*) / , cogí un puñado de monedas y las tiré al aire, cogí rápidamente la cesta por las asas, me hundí entre los claveles y proseguí mi camino

- ... JK + P → ... P

[14] (29-32) ... A tlusťoch vstal (... *Eta lodikotea altxatu zen*) / ... El gordinflón se levantó

6. Bigarren P izenlagun bihurtuta, eta hirugarrena perpaus erlatibo.

2.1.2. Elipsia

- IS bat bi perpausetan ageri bada, itzultzaileak maiz ezabatu egiten du bigarretetik.

[15] (29-32) a šéf se vrátil(...) tak šéf se rozhodl (*eta nagusia itzuli zen (...)* hortaz nagusiak erabaki zuen) / y el jefe volvió (...) con lo que decidió

- sintagma bat elkarren segidan dauden perpaus ezberdinetan ageri bada, deskuido ez, hauetako perpausen bat itzuli gabe gera daiteke, errepikapena moteltzen edo desagertzen delarik.

[16] (7-17) každej den jsem musel vyčistit plechový košíček na horký párky, protože já jsem roznášel na nádraží horký párky (*egunero garbitu behar izaten nuen saltxitxa beroetarako alambrezko saskitxoak, ze nik trengeltokian saltxitxa beroak banatzen nituen*) / cada día debía limpiar la cestita de alambre, que se usaba para llevar salchichas calientes

[17] (33-34) já jsem byl jednou poslanej, abych přivezl hřebeny, kostěný krásný hřebeny, osm set korun stály ty hřebeny a (*ni behin orrazi bila bidali ninduten, hezurrezko orrazi ederren bila, zortziehun korona kostatzen ziren orrazi haiek, eta*) / a mí me enviaron en una ocasión a que trajese peines, unos hermosos peines de hueso, y

- itzulpenean ageri ez den egitura korrelatibo erredundagarria.

[18] (36-37) kdykoliv přišel, tak pokaždé měl nějakou novinku (*etortzen zen guztietan, aldioro izaten zuen albisteren bat*) / siempre que llegaba traía alguna novedad

2.1.3. Puntuazioa

- txekieran perpaus bakoitzaren hasieran koma jarri behar denez, itzultzaileak batzuetan ez daki noiz bere hartan utzi eta noiz kendu. Bestalde, ondoko adibidean sujetua oker kenduz huts egin du, ez baitator bat aurreko perpausaren sujetuarekin, osagarri zuzenarekin baizik.

[19] (7-17) číšníci mě učili, jak (...), a já jsem čistil popelníky (*zerbitzariak irakasten zidaten nola (...), eta nik hautsontziak garbitzen nituen*) / los camareros me enseñaban cómo (...) y limpiaba los ceniceros

- komak → gidoiak

[20] (11-20) já jsem čistil sklenice pro štangasty, díval jsem se proti světlu, bylo ještě dopoledne, jen polévky a gulášky pár hostům, (*ni ohiko bezeroentzako edalontziak garbitzen ari nintzen, kontrargitan begiratzen, goiza zen oraindik, pare bat bezeroentzako zopak eta gulaxak baino ez*) / yo estaba limpiando los vasos de los habituales, mirando a contraluz -era aún por la mañana, tan sólo unas sopas y algún gulash a un par de clientes-,

- . → ,

[21] (19-26) . Sběhel jsem dolů (. *Behera jaitsi nintzen*) / , bajé la escalera

- ... → .

[22] (19-26) ... A tu noc (... *Eta gau hartan*) / . Y aquella noche

- , → ;

[23] (27-30) , viděl jsem (*ikusi nuen*) / ; pude ver

2.1.4. Perpaus osagarriak itzultzean egindako akatsak

Hizkuntza eslaviar guztietan, perpaus osagarrien aditza...:

- a) orainaldian egoteak aditz nagusiarekiko aldiberekotasuna adierazten du.
- b) lehenaldian egoteak aditz nagusiarekiko lehenagotasuna adierazten du.
- c) geroaldian egoteak aditz nagusiarekiko gerokotasuna adierazten du.

Bestela esanda, hizkuntza eslaviarretan zuzeneko estilotik zeharkakora pasatzen denean, beren horretan uzten dira aditza eta lekuzko eta denborazko elementuak, zeharkako estiloari egokitu gabe. Halakorik ez da gertatzen, ordea, euskarari, ingelesean edota hizkuntza erromanikoetan. Honi guztiari beste zailtasun bat gaineratu behar diogu: txekierazko testuaren zuzeneko estiloan ez da kakotzik agertzen, eta batzuetan zaila egiten zaigu antzematea.

- Aditza itzultzean egindako akatsak

[24] (14-22) A já jsem řekl, že bych chtěl povečeřet (*Eta nik esan nuen afuldu nahi nuela*) / Dije que quería cenar

[25] (41-40) že jsem si umínil, až budu mít číšnické zkoušky (*hauxe erabaki nuen, zerbitzari azterketak gaindituak izan nitzanean*) / que tomé la determinación de que, cuando tenga el diploma de camarero

[26] (44-43) považoval to (...) pivo (...) za pozornost, že město s ním počítá (*garagardo hura (...) hiriak harekin kontatzen zuelako frogatzat zeukan*) / consideraba aquella cerveza (...) como una prueba de que la ciudad le tiene en consideración

[27] (6-17) A tak jsem řekl, že v podniku jsem nic neviděl a nic neslyšel (*eta halatan esan nuen hotel barruan ez nuela ezer ikusia ez entzuna*) / Así que dije que dentro del establecimiento no he visto ni oído nada

- Lekuzko eta denborazko elementuak (*tady* 'hemen', *teđ* 'orain', etab.) itzultzean egindako akatsak⁷:

[28] (14-22) ona řekla, že ráda ústřice, že jsou tady čerstvé (*berak esan zuen ostrak gustatzen zitzaizkiola, han freskoak zeuzkatela*) / ella repuso que le gustaban las ostras, que aquí las tenían frescas

[29] (15-23) a já jsem řekl, že (...) uhlí jsem poprvé viděl až loni (*eta esan nuen (...) ikatza ez nuela lehendabizikoz aurreko urtera arte ikusi*) / contesté que (...) el carbón lo había visto por primera vez recientemente, el año pasado

- Salbuespena: Perpaus osagarriak denborazko koordenada jakinik ez badu, hau da, "betikotasun" ukiturik badu, aditzaren orainalditasuna bere horretan utzi behar da, egokitu gabe, hizkuntza eslaviarretan ezezik, euskaran eta hizkuntza erromanikoetan ere. Beraz, ondoko adibidean zuzena da espainierazko itzulpena.

[30] (19-25) hned jsem věděl, co s lidma hejbá a v co lidé věří a čeho jsou schopni za pár mincí udělat (*berehala ikusi nuen zerk mugiarazten duen jendea, eta zertan sinesten duen jendeak, eta zer egiteko gauza den pare bat txanponen truke*) / en seguida supe qué es lo que mueve a las personas y en qué cree la gente y de qué es capaz por un par de monedas.

- Perpaus osagarria txekieraz estilo zuzenean egonda, itzultzaileak zeharkako estilora pasatzean egindako akatsak.

Hemen bi motatako hanka-sartzeak nabarmentzen dira: alde batetik, ez dago arazoirik estilo zuzenetik zeharkakora pasatzeko (izan ere, bata ala bestea erabil-

7. Elementuok zuzeneko estilotik zeharkakora pasatzean ez dira txekieraz birmoldatzen, baina bai, ordea, euskaraz eta espainieraz:

hemen	-> han
datorren urtean	-> hurrengo urtean
orain	-> orduan

tzeak badu inplikaziorik maila konnotatiboan), eta bestetik, perpaus osagarriak itzultzean egindako akats berbera (bai aditzaren, bai denborazko eta leuzko elementuen egokipenik eza, alegia) hemen ere ageri da.

[31] (22-28) pravil jsem, to bude krásné kdykoliv sem přijdu, tak jak tady bude kvítí, tak ti obložím břicho (*zera adierazi nuen, hona natorren guztietan ederra izango dun, loreak izango ditun, hortaz sabeltxoa estaliko dinat*) / le dije que sería hermoso, que siempre que viniese y hubiera flores a mano, le cubriría la tripita con ellas

[32] (29-32) A ten agent řekl, proč bych nemohl vyhazovat drobný na ulici, když vy, jako majitel tohoto podniku (*Eta bidaianteak esan zuen, zergatik ez ote nuke diru-xeha kalera botatzerik izango, baldin eta zuk, leku honen jabea zaren aldetik*) / Entonces el viajante repuso que no veía por qué no iba a tirar él la calderilla a la calle si usted, como dueño del negocio

Ikusten denez, hemen espainierazko itzulpena zuzeneko eta zeharkako estiloen biderdian dago: alde batetik zuzenekoaren *usted* agertzen da, eta bestetik zeharkakoaren *que* juntagailua. Akats hau, txekierazko testuaren zuzeneko estiloan kakotzik ez agertzeari egotz dakioke.

[33] (14-22) a ona na to, tak vám máme přinést večeri sem nebo do lokálu (*eta neskak arrapostu, beraz afuria hona ekarri behar al dizugu, ala lokalera*) / ella replicó que si prefería que me trajesen la cena aquí o al local

Adibide honetako *prinést* 'ekarri' eta *sem* 'hona' besterik gabe itzuli dira, behar bezala gokitu gabe.

2.1.5. Erlatiboa

- Izenorde erlatiboa → sustantiboa

Aldaketa hau 2. adibidearenaren alderantzizkoa da: perpaus erlatiboa asin-deton bihurtu da.

[34] (36-37) zástupce firmy Primeros, kterej (*Primeros markaren ordezkaria, zeinak*) / representante de la firma Primeros, este hombre

- "Irla" motako erlatiboa

Ahozko txekiera eta espainieraren perpaus erlatiboan oso egitura bitxia aurkitzen dugu: izenorde erlatiboaren ostean perpaus menperatu bat (denborazkoa, baldintzazkoa) tartekatzen da, eta izenorde horrek ez du aditz erlatiboarekiko funtziorik betetzen, perpaus menperatuaren aditzarekiko baizik. Hone-

lako egituretan aldamenekotasunari⁸ ematen zaio lehentasuna, benetako erlazio gramatikalen kaltetan.

[35] (28-31) Nejradši jsem měl tlustého agenta, který když přišel poprvně, tak jsem běžel přímo pro pana šéfa (*Bidaiante lodia nuen maiteena, zeina, lehengo aldiz iritsi zenean, orduan zuzen-zuzen joan bainintzen nagusiaren bila*) / De todos modos, al que más quise fue a un viajante gordo que, cuando llegó por primera vez, corrió directamente en busca del jefe

Oraingo honetan itzultzaileak bete-betean asmatu du, jatorrizkoaren agramatikaltasuna gorde baitu itzulpenean. Halakorik ezin da egin euskaraz⁹, ordea, eta konpentsazioaren bidez lortu behar da efektu bera, erlatiboa kenduz edo (*Bidaiante lodia nuen maiteena, hura lehengo aldiz ailegatu zenean, orduan zuzen-zuzen joan nintzen nagusiaren bila*).

- Komuntzadurarik eza erlatiboan (txekieraz bai, itzulpenean ez)

[36] (18-25) já, který mám (...), a který může mít (...) (*daukadan eta (...)* *eduki dezakeen hau*) / yo, que tengo (...) y que puedo tener

2.1.6. Errepikapena

- Errepikapena eta hitz-ordena

[37] (31-33) řekl, ten hoch se strefil nejbliž a hodil na váhu ten nakrájený salám a váha ukázala sedm deka (*esan zuen, mutiko honek txuria ukitu du hobekien, eta balantzán salami ebakia bota zuen eta balantzak hirurogeita hamar gramo erakutsi zuen*) / diciendo: este chaval es el que más ha atinado, tomó el salami cortado y lo colocó sobre la balanza y la balanza señaló setenta gramos

Txekierazkoan ez bezala, itzulpenean elkarren ondoan azaltzen dira *balanza* eta *balanza*. Hala ere, akats estilistiko hau ez da batere larria.

- Errepikapena txekieraz, baina ez espainieraz

[38] (31-33) vzal z tý naší váhy ten nařezaný uherák a hodil jej na tu váhu, a ta váha ukázala (*gure balantzatik hungariar salami ebakia hartu eta balantzán bota zuen, eta balantzak erakutsi zuen*) / tomó el salami húngaro de nuestra balanza y lo colocó sobre la otra, que marcó

8. Izan ere, izenordea eta perpaus menperatua elkarren ondoan daude.

9. Parentesi arteko itzulpena imajinezina izango litzateke herri mintzairan.

[39] (11-20) táhli za sebou stoly, ty stoly pořád tak před sebe dávali (*narratz eraman zituzten mahaiak, eta mahaiok beren aurrean jartzen zituzten beti*) / arrastraron las mesas, situándolas siempre delante de sí

Bi adibide hauetan hitza errepikatu baino ordezkatu nahiago izan du Mlejnkovák, nominalizatuz (*la otra*) edo pronominalizatuz (*situándolas*).

- Errepikapena espainieraz, baina ez txekieraz

[40] (12-21) všechno musely zaprat a pak vyvařit, já jsem měl vššet ty ubrusy (*dena garbitu behar izaten zuten eta gero lixibatan jarri, nik zamau haiek eseki behar izaten nituen*) / se pusieron a lavarlo todo y luego a hervir los manteles en la caldera, y yo debía tender aquellos manteles

Itzulpenean aldaketa bitxia gertatu da aditzen eta osagarri zuzenen arteko korrespondentzietan, *manteles* hitzaren errepikapena sortaraziz.

txekiera		espainiera	
<i>osagarri zuzena</i>	<i>aditza</i>	<i>osagarri zuzena</i>	<i>aditza</i>
dena	garbitu lixibatan jarri	dena	garbitu
zamauek	eseki	zamauek	lixibatan jarri eseki

2.1.7. Perpaus denboralak

- *co* ('-enetik') → *mientras*

[41] (30-32) *co* svět světem stojí to nikdo nepotkal (*mundua mundu denetik inork ez du aurkitu*) / *mientras* el mundo es mundo, nadie ha podido encontrarlo

2.1.8. Galdegaia

Txekieraz eta espainieraz, euskaraz ez bezala, galdegaia perpaus bukaeran agertu ohi da. Hori errespetatu ezik, desegokitasuna sortzen da. Ondoko bi adibideetan, *anglického krále* 'Ingalaterrako erregea' eta *já* 'nik' dira galdegaia. Hortaz, espainierazko itzulpen egokiak hauexek lirateke: *Yo serví al rey de Inglaterra* eta *al dinero que tenía yo*.

[42] (izenburua) Obsluhoval jsem anglického krále (*Ingalaterrako erregea zerbitzatu nuen*) / *Yo que serví al rey de Inglaterra*

[43] (18-25) těch peněz, které jsem měl já (*nik neuk nuen diruari*) / *al dinero que yo tenía*

2.2. Morfologia

2.2.1. Adjetiboaren morfologia

Adjetiboaren deklinabidea bikoitza da txekieraz: alde batetik ahozko paradigma dugu, eta bestetik idatzizkoa. Adibidez:

	<i>ahozkoa</i>	<i>idatzizkoa</i>
<i>nominatibo singularra</i>	-ý	-ej
<i>genitibo plurala</i>	-ých	-ejch

Hrabalek maiz nahiago izaten ditu ahozko morfemak. Eta zail da hori euskaraz eta espaineraz jasotzen, konpentsazio bidez ez bada. 44. adibidean ikusten den bezala, izenorde erlatiboa adjetiboa bailitzan deklinatzen da.

[44] (7-17) kterej (který) / que

[45] (29-32) hrst drobnějch (drobných) / puñado de calderilla

2.2.2. Sustantiboaren morfologia

Hemen 2.2.1. atalean bezala gertatu da: ahozkotasuna galdu egin da itzulpean. Ahozko txekieran hitz konposatuak bakar batean biltzeko erabili ohi da *-ák* izen morfema. Hurrengo bi adibideetan parentesi artean ageri dira idatzizko txekieraren baliokideak.

[46] (29-32) uherák (uherský salám) / salami

Badago lotura estua hizkuntz maila guztien artean. Esaterako, ahozko hizkerari dagozkion azken bi adibide hauen pasarteko sintaxia polisindetikoa da oso (perpaus batean, hamaika *a* 'eta').

[47] (28-31) cesták (obchodní cestující) / viajante

2.3. Fonologia

Ahozko txekieraren fonologiaren ezaugarri bat hauxe dugu: hitzaren hasieran *o* bokalea ageri bada, aurrean *v* kontsonantea ahoskatzen da. Halakoak maiz aurki ditzakegu Hrabalengan. Hori nolabait jasotzez gero, konpentsaziora jo beharko dugu berriz ere.

[48] (12-21) votevřeme (otevřeme) / abriremos

2.4. Aditza

• Aditzaren aspektua

Hauxe dugu txekieraren korapilo handienetako bat. Aditz bakoitzak bi aspektu ditu, burutua eta burutugabea, baina askotan egokiagoa izaten da aditz burutu bat burutugabe bezala itzultzea, eta burutugabe bat burutu bezala. Hortaz, irizpide finkorik ez dagoenez, jatorrizko testuari estuegi lotuz gero hanka-sartze galantak egingo dira.

Ondoko lau adibideotako aditzak koadro honetan ageri dira:

<i>nola dagoen txekieraz</i>	<i>nola dagoen itzulita</i>	<i>nola egon beharko lukeen</i>
omlouvali se deskenkusatzzen ziren	pedían disculpas	pidieron disculpas
hovořila mintzo zen	habló	hablaba
řekl esan zuen	decía	decía
rostla hazten zen	creció	crecía

[49] (26-30) omlouvali se (*desenkusatzzen ziren*) / pedían disculpas

[50] (27-31) pro mne to bylo otrřesné, že se mnou tak hovořila, že se mne nebála, že o mně věděla víc (*niretzat hauxe izan zen txundigarria, nirekin hala mintza zedila, nire beldur izan ez zedila, nitaz gehiago jakin zezala*) / para mí lo más conmovedor fue la manera en que me habló, que no me temía, que sabía de mí más

[51] (28-31) on pak večerěl vřdycky (...) a pak řekl (*berak beti afaltzen zuen (...) eta gero esaten zuen*) / él siempre cenaba (...) y a continuación decía

[52] (39-39) kařdřmu rostla (..) a ostatní tleskali (*bakoitzari hazten zitzaion ... eta besteek txalo egiten zuten*) / a cada uno de ellos le creció (...) y los demás aplaudían

• Txekieraz lehenaldiko pasarteetan tartekatzen den orainaldiko *pověďet* ('csan', 'kontatu') aditzaren itzulpena

Txekieraz hain ohikoak diren "jauzi" hauek besterik gabe itzuliz gero, trakets samar gelditzen dira euskaraz eta espainieraz. Egokiagoa da *esan* aditza beti lehenaldian jartzea, edo, orainaldian uztekotan, haren "eguneratzea" ahalbideratuko duen partikularen bat aurrean eranstea (*hara non diodan*). Bestalde, jauzi horiek euskaraz ez ohi dira orainaldira egin, lehentxoagora baizik.

[53] (18-25) ten penzista asi špatně viděl, a tak dlaní řápal v prachu, povídám, (*pensionista hark gaizki ikusten bide zuen, eta beraz esku-ahurraz hautsa haztatzen zuen, diot,*) / aquel pensionista debía de tener mala vista, de modo que palpaba con la mano en el polvo, digo:

[54] (25-29) přišel vrchní a povídá (*jantokiburua iritsi zen, eta dio*) / llegó el maître y dijo

[55] (27-31) Ten večer mi pak šéf řekl (...). Povídám, až zítra, ne? (*Arrats hartan nagusiak esan zidan (...). Diot, hobe bihar, ezta?*) / (...) Aquella tarde, el jefe me comentó (...). Digo: pero bastará que sea mañana, ¿no?

[56] (13-22) seděla (...) a povídá (*eserita zegoen (...) eta dio*) / estaba sentada (...) y dijo

Mlejnkovák, irizpide finkorik gabe, batzuetan orainaldian uzten du aditza, baina beste batzuetan nahiago du lehenaldian jartzea, gainontzeko aditzekin bat etor dadin.

- Transitibotasuna eta intransitibotasuna

[57] (26-30) teď byla obletována už včelami (*oraingoan erleak zeuzkan ingurutik h egaka*) / las abejas empezaron inmediatamente a revolotearla

Obletět 'ingurutik hegaldatu' aditz transitiboa da, eta horregatik ager daiteke pasiboan (*obletována* 'ingurutik hegaldatua'), sujetu semantikoa kasu instrumentalean dagoelarik (*včelami* 'erleez'). Itzulpenean, ordea, aktiboan agertzen da *revolotear* aditza, zeinak, intransitiboa izaki, ez duen osagarri zuzenik onartzen. Hortaz, *revolotearla* agramatikala da.

- Erreflesibotasuna

[58] (38-38) abyste se neodřeli / para que no os escozáis

Txekierazko aditz erreflesibo honen sujetua *zuek* bada ere, espainieraz inpersonalean itzuli behar da (*para que no os escueza*).

2.5. Izen sintagma

Sintaxian bezala, hemen ere polisindetona saihesteko joera du itzultzaileak.

- Polinsindetona → asindetona

[59] (25-29) až na poslední květiny ze zahrad a lučin a lesa (*lorategi eta larre eta basoetako azken loreetaraino*) / hasta las últimas flores de los jardines, prados y bosques

- Polisindetona: JK IS JK IS_i JK [Prep+izenordea.] IS → JK IS JK IS+con IS

[60] (20-26) a morový sloup a nebe a na něm mračna (*eta izurrite-zutabea eta zerua eta bertan hodeiak*) / y la columna de la peste y el cielo con las nubes

- Mugatzailea

Bestalde, mugatzailearekin ere sortzen dira arazoak. Alde batetik, ahozko txekieran oso arrunta da funtzio sintaktikorik gabeko hori-horiek adjetibo erakuslea erabiltzea. Itzulpenean halakorik sartuko bagenu, kale egingo genuke.

[61] (8-18) ty bankovky (*diru paper horiek*) / esos billetes

[62] (29-32) z kouta se zvedl ten zřízenec a zvedl ten dečkou přikrytý předmět (*izkinatik ordenantza altxatu zen eta burusiaz estalitako objetua altxatu zuen*) / del rincón se levantó aquel ordenanza y tomó el objeto tapado con una mantita

Adibide honetako lehenengo *ten aquel* itzultzen da, eta bigarrena *el*. Ego-kiagoa izango zatekeen biak *un* itzultzea, dagozkien izenak lehen aldiz aipatuak baitira.

- P + ne 'ez' + Prep S + ale 'baina' + Prep S → no + P + Prep S + sino + Prep S

Txekierazko ezezko *ne* hori Prep S bati dagokio, eta itzulpenekoa perpaus osoari.

[63] (21-27) jako bych se celý den brouzдал ne po parketách a kobercích, ale uhelných prachem (*egun osoa noraezean ibiliko banintz bezala, ez parket eta alfobretatik, ikatzezko hautsetik baizik*) / como si no estuviese todo el día danzando por el parquet y las alfombras, sino sobre el polvo de carbón

- Artikulua

Txekieraz ez dago artikulua mugaturik, eta zail izaten da beti espainierazko itzulpenean noiz jarri eta noiz ez asmatzen.



[64] (37-37) jednou přinesl takzvanou Útěchu vdov (*behin Alarguntsen kontsolagarria delakoa ekarri zuen*) / una vez traje el llamado Consuelo de las Viudas

Hemen zuzenagoa izan liteke *viudas* Izen Sintagmari artikulurik ez eranstea.

2.6. Lexikoa

2.6.1. Hitz-errepikapena kentzea, bigarreanean beste hitz bat hautatuz

Pasarte berean hitz bat behin baino gehiagotan agertzen bada, itzulpenean sinonimoetara jotzen da, errepikapena saihestearren. Gu, ordea, errepikapenak beren horretan uztearen alde gaude, berariazkoak baitira.

[65] (7-17)	vidět / ver	vidět / fijarse
[66] (8-18)	vidět / ver	vidět / enterarse
[67] (8-18)	slyšet / oir	slyšet / escuchar
[68] (10-19)	pošeptat / susurrar	šeptat / replicar en voz baja
[69] (12-21)	uříznuté / seccionados	uříznuté / cortada
[70] (12-21)	kus / pedazo	kus / tajo
[71] (29-32)	zvednout se / levantarse	zvednout / tomar
[72] (29-32)	zase / otra vez	zase / nuevamente
[73] (29-32)	zřízenec / ordenanza	zřízenec / empleado
[74] (31-33)	říct / decir	říct / opinar říct / contestar
[75] (19-26)	co dělat (zer egin) / dělat / simular	ningún trabajo dělat / hacer

2.6.2. Hitzen itzulpen desegokiak

2.6.2.1. Aditzen itzulpenak

- Itzulpena ustez ederragotu nahian

Jatorrizko testuaren aditza oso arrunta denean, itzultzaileak ez du baliokide zehatza erabiltzen, erregistro kultoagoko hitz bat baizik. Honetan ere galtzaile gertatzen da jatorrizkoaren ahozkotatua.

[76] (14-22) říct 'esan' / contestar

[77] (14-22) říct / reponer

[78] (27-31) říct / comentar

[79] (13-22) vidět 'ikusi' / vislumbrar

[80] (8-18) ty bankovky a to bylo moje (*dirupaper haiek eta diru hori nirea zen*) / aquellos billetes que me pertenecían

[81] (39-39) nedovedl jsem si (*ezin izan nuen*) / no alcancé a

- Aditz txekiarren esanahien zehaztasuna (espainieraz ez bezala)

Txekierazko aditzak zehaztapen handikoak izan ohi dira, eta haietan biltzen diren ñabardura lexiko guztiak maiz ezin daitezke aditz soil batekin itzul, perifrasi batekin baizik.

[82] zakutálet se (*arrodeka galdu*) / perderse

- Txekieraren aberastasun morfologikoa

Txekieraren aditz eta izen morfologia hain da aberatsa, non aise bilaka ditzakegun izenak aditz eta aditzak izen. Honelakoetan espainierak perifrasiatarajo behar izaten du.

[83] (12-21) zabarikádovaly a kryli útek (*ihesbidea barrikadatu eta estali zuten*) / cubrían a modo de barricadas la huida

- Keinua adierazten duten aditzak

Buruaz eta eskuez egindako keinuak adierazteko aditz jakin batzuk ditu txekierak. Beren baitan biltzen dituzten gogo egoerak adberbioen edo beste-lako sintagma zirkunstantzialen bidez adierazi behar dira.

[84] (14-22) vrtěla hlavou (*burua higitu zuen*) / movió la cabeza en señal de sorpresa

[85] (39-39) vrtěla se (*higitu zen*) / se movía inquieta

- Zenbait aditz itzultzearen zailtasunak

Přijít aditza zail da itzultzen, testuinguruaren arabera esanahi bat edo beste eduki baitezake.

[86] (36-37) kdykoliv přišel (*iristen-etortzen-joaten zen bakoitzean*) / siempre que llegaba

Gure ustez, *přijít* lehengo pertsonarengandik bigarrenarenganako mugimenduaren adierazle denean, *joan* edo *iritsi* euskaratu behar da, eta bigarrenarengandik lehenengoarenganako adieraziz gero, ordea, *etorri*. Berdintsu gertatzen da *při* aurrizkia duen beste aditz batekin: *přinést* ('ekarri', 'eraman')

- Itzulpen okerrak

[87] (34-35) ohmatat (*haztatu*) / buscar

[88] (38-38) začervenat (*gorritu*) / subírsele los colores

Azken adibide horretan itzultzaileak baliokide zehatza baino esanahi bereko lokuzioa erabili nahiago izan du.

[89] (28-31) pochválit (*laudatu*) / felicitar

2.6.2.2. Sustantiboen itzulpenak

- Espainierazko hitzaren alor semantikoa mugatuagoa izaki

[90] (13-22) nápis (*iragarkia*) / neón

[91] (44-42) zima (*botza*) / tiritona

- txekierazko hitzaren alor semantikoa mugatuagoa izaki

[92] ((31-33) dlaždička (*axuleiuzko zorua*) / suelo

- txekierazko hitza mailegua (m), *slang*-ekoa (s) edota arkaismoa (a) izaki

a) alemanetik hartutako maileguak:

[93] (8-18) štamgast (m, s, a) / cientos habituales, habituales

[94] (32-34) štangle (m, a) / picza¹⁰

[95] kšeft (m, a) / negocio (33-34)

/ tienda (35-36)

[96] (35-36) kšeftovat (m, a) / hacer negocios

[97] (41-40) magacín (m, a) / negocio

Hitz honek arabieran du jatorria, baina alemanaren bidez iritsi da txekierara.

b) frantsesetik hartutako maileguak:

[98] (35-36) tuzér (m, s, a) / propina

[99] (13-22) barák (m, s) / edificio

10. Gaizki itzulita, espainierazko hitza ez baita hain zehatza.

Hitz honek espainieran du jatorria, baina frantsesaren bidez iritsi da txekierara.

d) latinetik hartutako maileguak:

[100] (33-34) bicycl (m, a) / bicicleta

Hitz honek grekoan du oinarria, ordea.

e) grekotik hartutako maileguak:

[101] (8-18) biograf (m, a) / cine

[102] (16-24) ariston (m) / pianola¹¹

- Txekierazko hitza txekiar *realiarena* izaki (janari-izenak, esaterako), baliteke:
 - bere hartan uztea, hori bai, letra etzanetan. Hala gertatzen da, esaterako, Txekian janari nazionaltzat jo daitezkeen irinezko borobiltxo egosiekkin.

[103] (36-37) knedlík / knedlik.

- kultur baliokidea bilatzea. Hala gertatzen da, esaterako, siropez, azukrez eta zuringoz egindako gozokiarekin. Hala ere, osagarrioi begira, ez dirudi Txekiako goxokia eta Espainiakoa oso antzekoak direnik.

[104] (26-39) turecký med 'Turkiako eztiá' / turrón

- Itzulpen okerrak.

[105] (37-37) bažant (*faisaia*) / conejo

[106] (45-43) pan děkan (*Dean jauna*) / el señor Deán

[107] (27-30) malinová grenadýna (*magurdi-granadina*) / refresco de frambuesas

- Azken hau ez dago zuzen itzulita, "granadina" hitza, kapituluaren izenburuan ageri denez, hitz-gakoa baita. Beraz, ezin daiteke ordezka.

2.7. Lokuzioak

Komenigarria izaten da jatorrizkoaren lokuzioak xede-hizkuntzaren lokuzio baliokideen bidez adieraztea. Bestela, itzulpena "lautzeko" arriskuan gaude.

[108] (28-32) něco na zub 'hortzerako zerbait' (zerbait arto puska baino gozoagoa dena) / algo especial

11. Gaizki itzulita, espainieraz "aristón" ere badagoelako.

2.8. Grafia

Txekieraren zeinu diakritikoek balio fonologikoa dutenez, komeni da euskarara egindako itzulpenetan ondoko baliokidetzetara jotzea:

č	→ tx (Txekia)
c	→ ts (Pardubitse)
š	→ x (Xveik)
ř	→ tt (Xttekno)
j	→ i (Xveik)

[109] (39-39) Pardubice (Pardubitse) / Pardubice

Ohar gaitezen nola adibide honetan zeinu bera, *c* alegia, ez den txekieran eta espainieran fonema beraren adierazlea.

2.9. Eta beste

2.9.1. Preposizioak

[110] (7-17) jak se bálí do ubrousku nůž a vidlička (*nola biltzen diren serbiletan aiztoa eta sardexka*) / cómo hay que envolver el cuchillo y el tenedor con la servilleta

2.9.2. Zenbakiak

- Zenbaki ordinalen interpretazio okerra

[111] (33-35) já jsem byl zavalenej tou selkou, a tak mě měla ta selka jako prvního (*emakume nekazari hark azpiratu egin ninduen, eta nekazariak neu eduki ninduen estrainekoa*) / estaba cubierto por aquella campesina, que fue la primera que me tuvo

Adibide hau txit barregarria da, txekierazko testuak eta espainierazkoak kontrako esangura baitute: txekieraz emakume nekazaria da larrutada horretan birjintasuna galtzen duena. Espainieraz, ordea, eleberriaren protagonista.

[112] (33-34) tři věci (*hiru gauza*) / dos cosas


3. Ondorioak

Artikulu hau frogatzen saiatu denez, Mlejnkváren itzulpenaren ezaugarrietako bat hauxe dugu: irakurleari testuaren ulergarritasuna erraztu nahian edo,

Hrabalen idazkeraren korapiloak behin eta berriz askatzeko borondatea. Ulergarritasunaren aldeko joera hori hizkuntz maila guztietan antzematen da, nabarmen-nabarmen gainera, eta hortik datorkigu itzultzaileon ohiko galdera: zilegi al da jatorrizko testutik desbideratze hori? Erantzun posibleak hiru dira: 1/ Ez. 2/ Bai. 3/ Bai, baina neurriz. Seguraski, hirugarren erantzunetik abiatu behar da, printzipio batean oinarriturik (desbideratzeak justifikatuta egon behar du), eta baliabideen ugaritasuna ezagutuz (konpentsazioa, kultur balioki-deak, etab.). Lehenengo erantzunetik abiatuz gero, itzulpen estuegia aterako zaigu, eta bigarrenetik abiatzera, ordea, libreegia.

LABURDURAK

- IE - izenorde erlatiboa
- INF - infinitiboa
- IS - Izen Sintagma
- JK - juntagailu kopulatiboa
- P - perpausa
- Prep - preposizioa
- PREP S - Preposizio Sintagma



BIBLIOGRAFIA

- HRABAL, Bohumil. (1982) *Obsluhoval jsem anglického krále*, Jazzová sekce, Praha.
- HRABAL, Bohumil. *Yo que he servido al rey de Inglaterra*, Círculo de Lectores.
- BERMAN, A. et al. (1985) *Les tours de Babel*, Mauvezin, Editions Trans-Europ-Repress.
- CID ABASOLO, Karlos. (1991) *Txekieratik euskaratzeak sortzen dituen hainbat buruhauste*, SENEZ, Donostia, 61-77.

Liburuak

LEFEVERE, A.: *Translation, Rewriting and the Manipulation of Literary Fame*, Routledge, London/New York, 1992

Liburu honen helburua berridazketak –itzulpena, antologizazioa, historiografia, kritika, edizioa– literatur obren hartzapen eta kanonizazioan duen eragina aztertzea da. Halaber, berridazketak literatur obra nola manipulatu duen ere aipatzen du, helburu ideologiko eta poetologiko desberdinak lortzeko.

Literaturaren ekoizpen eta hartzapena kultura eta historia jakin baten esparruan kokatuz, André Lefeverek literaturaren testuinguru sozial eta historikoaren birbaliotze bat egiten du zentzu post-marxista batean. Bestalde, auzitan jarri ere jartzen ditu “originaltasuna”, “inspirazioa” eta “bikaintasun estetiko” bezalako kontzeptuak. Latin klasikotik eta frantsesa eta alemana bezalako literaturetatik biltzen ditu adibideak, eta plazaratzen dituen ideiak literatur teoria, literatura konparatua, literatur historia eta itzulpen-azterketetan interesa duten irakasle eta ikasleentzat kontuan hartzekoak dira.

SNELL-HORNBY/PÖCHHACKER/KAINDL (eds.) *Translation Studies. An interdisciplinary*, John Benjamins, Amsterdam, 1994.

Gerraondoko hamarkadetan Itzulpen Azterketak Literatura Konparatua edo Hizkuntzalaritza Aplikatuaren azpisail bezala hartzen ziren, aditu bakoitzak egiten zuen hurbilpenaren arabera. 1980. urteetatik hasita bere eskuko jakintzagai gisa independentzia lortu du, eta hainbeste gai bere baitan biltzen dituzenez gero, disziplinate bihurtu da. 1992an Vienako Unibertsitatean Itzulpen eta Interpretaritzaren Institutua sortu zela 50. urteurrena ospatzean egin zen nazioarteko kongresuan ikuspuntu hori nagusitu zen; 37 herrialdeko 300 aditu bildu eta 163 lan irakurri zituzten bertan Erdi Aroko itzulpen-gintzatik hasi eta kultur aniztasuna, tresna konputazionalak eta aldibereko interpretaritzaren bezalako gaietarainoko aukera zabala osatzen zutenak.

Esku artean daukagun liburuak horietatik guztietatik 44 lan esanguratsuenak jaso eta gorputz ahalik eta koherenteena osatze-

ko eran argitaratu ditu bost sailetan: Itzulpenaren Historia eta Kultura, jakintzagaiarteko ikerketa-egitasmoak, interpretaritzaren teoria eta trebakuntza, terminologia eta lengoia bereziak ea itzulpenaren irakaskuntza eta trebakuntza gaiak landuz.

Gisa honetako kongresu eta argitalpenek ikuspegi bikaina eskaintzen dute itzulpena eta interpretaritzaren teoria eta praxia zer unetan dauden ikusi, eta joera eta herrialde desberdinetako adituak elkarriz begira lankidetzan jartzeko. Artikuluaren erdiak ingelesez idatziak dira, eta ia beste erdiak alemanez, frantsesezko banaka batzuk salbu.



TEJASWINI NIRANJANA: *Sitting Translation. History, post-structuralism, and the colonial context.* University of California Press, California, 1992.

Tejaswini Niranjana Los Angeles Californiako Unibertsitatean filosofiako doktoregoa lortu zuen eta orain Hyderabadeko Unibertsitatean irakasle da Ingeleseko Departamentuan.

Itzulpenaren inguruan autore indiarrek gauzatu duen liburu honen originaltasuna post-estrukturalismoa eta post-kolonialismoa bezalako ikerkuntza-alorrak integratzean datza, azken bolada honetan zenbait pentsalarik ahaideturik ikusten hasi baitira.

Niranjana elkarrizketan jartzen ditu itzulpenaren aro klasikoko testuak testu post-humanistiko berriein, antzeko gaiak sakonduz. Bere ustez, itzulpenaren auzia inperialismoa eta kulturari buruzko azterketetan

sortzen ari den kritikaren argitan birlandu behar dela uste du.

Tejaswini Niranjana Benjamin, Derrida eta de Man bezalako pentsalariengana jotzen du itzulpena luzaroan herri, arraza eta hizkuntzen artean harreman ezparekoak ezarri eta iraunarazteko nola erabili den erakusteko. Mendebaldeko filosofiak azpimarratu duen itzulpenaren ikuspegi tradizionalak lagundu egin dio kolonialismoari "beste" exotiko hori eraikitzen historia aldaezin eta kanpoko gisa, horrela errazago bereganatu eta kontrolatzeko. Hemezortzigarren mendetik hasi eta gaur egunerarteko testu indiarren itzulpenak aztertuz, Niranjana dei egiten die herri post-kolonialei itzulpena erresistentzia eta eraldakuntzarako gune gisara birpentsatzera.

"Historia Itzulpenean" sarrera luzearen ondoren, testu eta kulturen errepresentazioa (itzulpen-azterketak eta etnografia), alegoria eta historizismoaren kritika (Paul de Manen irakurketa), politika eta poetika (de Man, Benjamin), itzulpena eta historia deseraikitzea (Derrida Benjamin buruz) eta itzulpena disrupzio gisa (post-estrukturalismoa eta testuinguru post-koloniala) bezalako gaiak lantzen ditu, liburuari hamaika orrialdeko bibliografia batekin bukaera emateko.

Niranjana liburu hau interes handiz irakurtzen da eta teoria literarioan, antropologian, "itzulpen azterketan", eta kultura post-kolonialean adituak direnek etekinarekin irakurriko dutelakoan nago. Liburu honek, beste behin, itzulpenak eta itzulpenaren inguruko azterketek duten emankortasuna, eta kultura, zibilizazioa, politika, nazioarteko-harremanak eta abar bezalako gaiak argi berritan ikusteko ezinbestean ibili beharreko bideak dituztela erakusten du.

KITTEL, Harald (Ed.), *Geschichte, System, Literarische Übersetzung/Histories, Systems, Literary Translations*, Erich Schmidt Verlag, Berlin, 1992.

Gotingako Unibertsitateak Deutsche Forschungsgemeinschaft elkartearen laguntzarekin antolatutako sinposioan irakurritako lanak biltzen ditu liburuak eta lau sail nagusitan banaturik datoz ekarpenak.

- 1-. Eredutik kontzeptualak eta aplikazio-metodoak.
- 2-. Itzulpen literarioa kultur aroen barruan eta artean.
- 3-. Itzulpena literaturaren barruan eta artean.
- 4-. Itzulpen literarioa hizkuntzen barruan eta artean.

Azkenik, Armin Paul Frank arduratzen da liburuari galdorra jartzeaz "Itzulpen literarioaren historia kultural baterantz" gaiarekin eta bertan "historiez", "sistemez" eta ikerketa laburbiltzeko beste era batzuek dihardu.

Bertan esku hartzen duten hogeitun artean goren mailako teorialari eta ikertzaileak daude, Poltermann, Gideon Toury, Theo Hermans, Ton Naaijken eta Harald Kittel, besteak beste.



BALLARD, M. (éd.): *Relations discursives et traduction*, Presses Universitaires de Lille, 1995, Lille.

Liburu honetako lan bakoitza irakurri ahala ezinbestean bururatu zait azken urteo-

tan EIZIEREN LIM-LIBI mintegi-ikastaroetan itzultzaile literario-talde batek egin duen hausnarketa- eta azterketa-ahalegina, eta bide batez berretsi ahal izan dut gure artean korritu izan den bidea ez zegoela beste batzuk egindakotik hain urrun.

Liburu hau osatzen duten testuak ez dira eskola beretik sortutakoak, izan ere bertan esku hartzen duten ikertzaileak joera eta jakintzagai desberdinetakoak baitira. Hala ere, guztiek "diskurtso-erlazio"en gai bakar eta bera lantzen dute eta helburua testua aztertzea dute, horren kohesio diskurtsibo, semantiko, logikoari dagokionez. Sintagma, proposizio edo esaldiek beren artean duten erlazioa ez ezik, denbora, anafora edo isotopiek elementu gramatikal edo lexikoen artean ezartzen dituzten sareak ere aztergai ditu liburuak, diskurtso-ehuna eraiki eta egituratzean gertatzen diren fenomenoak argi berrikan erakusteko asmoarekin.

Horrela G. Garnier psikomekanikaren ordezkariak "iraganeko aditz-denborak eta diskurtsoaren kohesioa" (ingelese-frantsesa) aztertzen du.

E. Gonzálezek "enuntziarioa eta forma sintaktikoak" aztertzen ditu frantses eta portugesezko testuetan.

Anne-Marie Loffler-Laurianek "dibulgazio zientifikoko diskurtsoan agertzen diren jarraipen-adierazle batzuk" aztertu ditu gaztelania eta frantsesezko testuen itzulpenak parekatuz.

D.A. Kibbee-k Asertzioa/atenuazioa, subjektibitatea/objektibitatea bezalako gaiak aztertu ditu frantsesezko eta ingelesezko testuetan.

R. Landheer-ek "diskurtso-erlazio balioaniztunak eta itzulpena" gaia sakontzen du

ingeles, aleman eta frantsesezko testuak begien aurrean dituela.

J. D. Gallagher-ek aurkeztutako lanak "Pertsona-izenen anaforizazioa ingelesez eta frantsesez" du izenburua.

C. Demanuelli traduktologoak komaren erabilera auzitan jartzen du bere erkaketaren ondorioz.

M. Macnamarak "frantsesezko perpausarteko lokailu batzuk kazetaritza-corpus batean eta horien ingelesezko itzulpenak" gaia lan-tzen du.

J.C. Souesmek eta Myriam Salama-Carre ingelesezko "but" frantsesera nola itzul-tzen den aztertzen dute.

J. D. Gallagher-ek, bigarren lan batean "lokailu aurkari eta kontzesiboak frantses modernoan nola ezabatzen diren" esaten di-gun bitartean, M. Ballard, liburuaren edito-reak, ingelesezko "and" frantsesera nola itzul-tzen den adierazten digu.

Bi edo hiru hizkuntzatakako testuak parekatuz, liburu honetan datozen moduko az-terketak oso emankor eta argigarri dira itzul-tzaileok geure eguneroko lanean izaten ditu-gun zalantza asko argitzeko. Egia da, esan beharrik ez dago, horrela ateratzen diren ondorioak batzuetan badutela behin-behine-ko samarrak izateko edo ikertzailearen zen-bait apriori berreste soilean gelditzeko arris-kua, batez ere corpus zabal batean oinarrit-zen ez badira; baina behar diren arreta me-todologikoak hartuz gero, oso bide emanko-rra izan liteke, eta tradiziozko gramatiken emaitzetan "bertan goxo" eginez gelditzeko tentalditik ihes egitera eramango gintuzkee-na, ez baita inoiz ahaztu behar hizkuntzak egunero ari direla aldatzen eta komunikabi-deen eraginpean bete-betea sarturik gauden honetan inoiz baino bizkorrago gainera.

Bistan dago, honelako ikerketak behar bezala egiteko ezinbestekoak direla itzulpen-corpus zabalak izatea, hizkuntza desberdine-tako testuak parekatzeko aukera eskaintzen dutenak. Espero dezagun egunen batean gure artean ere ohartuko direla erabakigile poli-tiko eta akademikoek euskararen etorkizu-nerako horrek duen garrantziaz eta emango dituztela beharrezko urratsak premia horri asebidia jartzeko.



LERAT, Pierre: *Les langues spécialisées*, Linguistique Nouvelle, Presses Universitaires de France, Paris, 1995.

Liburu hau itzulpena, idazkuntza tek-nikoa, dokumentazioa, normalkuntza, hiz-kuntz plangintza, ezagutzaren ingeniari-tza, lexikografia, terminografia eta glotodidaktika bezalako alorrekin hizkuntzalaritzak duen ikustekoa eta esatekoaren berri adierazteko egina da.

Zehaztapen tekniko sakonetan sartu gabe, eta dibulgazio-sen apartekoarekin -argitasuna eta garbitasuna da bere azalpenaren bertute eskergarrietako bat- hitz gutxitan baina zehaztasunez, Pierre Lerat, Parisko XIII-Villetaneuse (Paris-Nord) Unibertsitatean hiz-kuntzalaritza-irakasle denak, hizkuntza berezituaren ("langues spécialisées") inguruko gai-zerrenda luzea aztertzen du hamazazpi kapitulutan.

Lehen kapituluetan, hizkuntzalaritza, hiz-kuntza, terminologia, hizkuntza berezitu-a, unitate terminologikoak aztertzen ditu; on-doren, hizkuntza berezitu-a eta idazkuntza,

morfologia, sintaxia eta semantikaren arteko erlazioak lantzen ditu.

Bederatzigarren kapitulutik aurrera, hizkuntza berezitua eta itzulpena, dokumentazioa, normalkuntza, hizkuntz plangintza, idazkuntza teknikoa, ezagutzaren ingeniari-tza, lexikografia eta terminografia bezalako sailak jartzen ditu erlaziotan.

Azkenik, hizkuntza berezitua eta irakas-kuntzaren arteko harremanaz dihardu eta egitarau emankor bat zirimarratzen du, besteak beste, honako gomendioak eginez: hizkuntza berezitua praktikatu, forma berezituak idatzi eta irakurri, sintaxi dimentsioani-

tza irakatsi, hizkuntz semantika egin, enunziatu berezituak itzuli, dokumentazio-tekniken berri eman, arauak prestakuntzan integratu, idazkuntza teknikoan hezi, hizkuntz ezagutzak esplizitatu, hiztegiak ongi erabiltzen irakatsi, hizkuntz burotika sustatu eta prestatzaileak prestatu. Bistan dago, obra honetan ageri den ikuspegiak jabeturik bageunde eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Unibertsitatean bertan esaten direnak egia bihurtzeko urratsak emango bagenitu beste oilar batek joko ligukeela kukurruku ikasleen prestakuntza linguistiko eta kontzeptualari dagokienean.

XABIER MENDIGUREN

Harpidetza Txartela

SENEZ aldizkariaren harpidedun egin nahi dut:

Izena: _____

Helbidea: _____

Herria: _____ P.K.: _____ Tlf: _____

Banku edo Aurrezki Kutxa: _____

Entitatea	Bulegoa	K.D.	Kontu-zenbakia
□□□□	□□□□	□□	□□□□□□□□□□

Kontuaren jabea: _____


NAN edo IFK zk.: _____


Helbidea: _____

- Entitate horretako kontuan zordun itzazue nire izenean aurkez diezazkizuen ordainagiriak.
- Ordainketa faktura bidez egingo dut.

Data: _____

- Hemendik aurrera harpidetza nahi dut
- SENEZ aldizkariaren zenbaki zahar guztiak nahi ditut
- Honako zenbaki hauek nahi ditut:





EIZIE

